

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-12-22
ASTELEHENA
479. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM



IMANOL GALLEGO

Paciencia Melgar gurean izan da

Ebola izan duen misiolari ginearraren plasmak Teresa Viejo osatzeko balio izan du | 5

Andoni Goitiak jantzi du txapela Oñatiko bertso txapelketan | 31



Astelehenekoaren ordezkari 'Puntua' aterako du Goienak | 2



Lokatzak eta erokikoak Urrutxuko ziklo-krosean

Elite mailako lehen postua polemikoa izan zen gizonetzkoetan. Jose Antonio Diezen erruberaren gehiegizko zabalerak Iñigo Gomezi eman zion garaipena, bigarren helmugaratu bazen ere | 24

Oñatiko zirkuituko lokatzak zaildu egin ziren proba txirrindulariei.

JOSETXO ARANTZABAL



Holan eta Merke txerriak atzo. | JA

Arrasateko santamas feria, bisitariak hartzeko gertu

Gaur, hilak 22, urteko hitzordurik garrantzitsuenetakoa izango da Arrasaten; santamas feria. 10:00etan hasita, egitarau zabala izango du egunak. Ekitaldi tradiziozkoak berriagoekin uztartuko dira eta ikusi, erosi, usaindu eta dastatzeko aukera paregabe eskainiko du Arrasatek. | 13

SINADURAK

-  HARITZ SOLUPE | 9
-  9 | MIREIA BIKUÑA
-  OSKAR RODRIGUEZ | 15
-  17 | ANDRES OSA
-  IÑAKI IDIGORAS | 18
-  19 | HECTOR PRIETO
-  OIHAN VEGA | 37
-  40 | MARKOS BALENTZIAGA

Bihar amaituko da Candyko negoziazio epea

Manifestazioa deitu dute langileek, 19:00etarako | 7

"Datazio bera lortu izan dugu beste metodo batzuekin"

Alvaro Arrizabalaga | Lezetxiki indusketen arduraduna | 8



3-1 irabazi du UDak Bergararen kontrako derbia

Garaipenarekin lehen lekuan jarraitzen dute aretxabaletarrek | 22

Urtarrilaren 10eko Bilboko manifestaziora joateko autobusak egongo dira



Astelehenekoaren 2004ko azal bat.



2006koa.



2007ko azal bat.



Duela lau urteko azal bat.



Iazko azaletako bat.

Eraldatuz, aurrera

Astelehenekoaren ordeztu 'Puntua' aterako du aurrerantzean Goienak, eskaintza osatzeko

JULEN IRIONDO | ARRASATE
Adio eta ongi etorri. 2004a ezker, astelehenetan Debagoieneko hamai-ka etxetara iritsi den papereko argitalpena ateratzeari utzi egingo dio Goienak –hau da azken zenbakia–, eta molde desberdineko aldizkari berria argitaratuko du haren ordeztu, egubakoitzeko paperekoarekin banatuko dena, urtaririlaren 16tik aurrera –*Puntua* deituko da, eta Goiena Klubeko bazkideek jasoko dute.

Honekin amaitzen da, beraz, asteleheneko argitalpenaren ibilbidea, sortu zeneko helburuak beteta, Goienako edukien zuzendari Eneko Azkarren arabera; egubakoitzetakoaz gain, asteke beste egun batean ere Goienaren papereko produktua argitaratzea bideragarri zela ikusita sortu zen astelehenekoa: "Ikusi genuen bage-nuela hutsune bat astelehenetan; egubakoitzetan egiten genuen aste-ko errepasoa, eta asteburuan zeterrena iragarri, baina asteburu lantzea falta zitzaigun. Horrela lortu genuen bi helburu betetzea, egun gehiagotan iristea irakur-leengana eta asteburuak jasotzea. Eta beste helburu bat izan zen Goienarentzat finantzazio iturri berria lortzea, harpidetzen bitartez. Izan ere, garai hartan du jatorria gaur egun Goiena Kluba denak –4.000 bazkideren bueltan ditu, gaur egun–. Auto-finantzazioaren

aldetik beste sendotasun bat ematen dio horrek proiektuari".

Aurreneko urte haietatik hona, baina, aldatu egin da egoera. Egunerokotasunarekin lotutako infor-

mazio emarirako tresna gisa indartu egin da, adibidez, Internet, paperak pisua galdu duen bitartean: "Esaterako, gaur egun *goiena.eus* denak ez du zerikusirik 2003an

ataria sortu zenean zenarekin, asko garatu da; aukera gehiago ematen ditu, gainera, eta idatzizko informazioaz gain bideoak jar daitezke, adibidez, sareak ezaugarri

duen berehalakotasunarekin. Asteburuko informazioa lantzeari dagokionez, berriz, sarean bertan eta telebistan asko ematen da Goienan –aurrerantzean *newsletter*-a ere bidaliko zaie bazkideei, asteburuaren laburpenarekin–. Honegatik guztiatatearen pentsatu genuen bere funtzioa bete duela astelehenekoa, eta beste produktu bat egiteko momentua zela, desberdina, Goienaren gainerako produktu eta euskarriekiko osagarri izango dena".

Eta hori izango da *Puntua*, "gaiak ikuspuntu desberdin bategatik" landuko dituen aldizkaria; orain arte sail berezitu bat izan ez duten gai edo esparruekin, "moda, motorra edo ondarea", adibidez, eta "molde berriekin": "Erreportaje landuagoak, itxura aldetik ere bereziki zaindutakoak". Eta Goienako edukien zuzendariaren arabera izango da "patxadaz irakurtzeko modukoa, astelehenekoa zuen iraugitze epe laburrik izango ez duena". Egunerokoan jarraituko dute egubakoitzeko paperekoak, telebistak eta sareak.

Komunitatearekin egina
Goienako lantaldea ari da, dagoneko, urtaririlaren 16an kalean egongo den lehen zenbakira begira lanean. *Puntua*-ak jasoko dituenak, baina, ez dira bakarrik kaze-

Desberdina, erakargarria

Goiena Klubeko bazkide direnek urtaririlaren 16tik aurrera, egubakoitzeko ohiko paperekoarekin batera, jasoko duten aldizkari berria edukietan eta moduetan, bietan, izango da desberdina orain artekoarekiko alderatuta.

Edukia dagokionez, "sail berezietan orain arte landu gabeko hainbat gai" jorratuko ditu –48 orri–, *Puntua*-ren arduradun Monika Belastegik



Monika Belastegi, *Puntua*-ren zirriborroarekin. | J.I.

aurreratzen duenez: "Osasuna, moda, motorra, komunikazioa...". Eta moldeak ere izango dira desberdinak, erreportajeak eta elkarrizketak izango direlako, baina, horiek batera, bestelakoak ere bai; eta azpimarratzekoa, "adituen komunitatearen" ekarpena: "Batetik egongo dira guk geuk, Goienako kazetariok, landuko ditugun elkarrizketak, erreportajeak...; baina beste hainbat eduki jasoko ditugu kolaboratzaile adituen eskutik. Adibidez, umeen loditasunaz berba egin behar badugu, horretan aditu den pertsona batek idatzitakoa izango da erreportajea, eta gauza bera beste hainbat saili edo gairi dagokionez ere".

Diseinu erakargarria
Itxurari dagokionez ere, Goienan produktu berritzailea izango da *Puntua*. Aldizkari formatua eta *couche* papera izango ditu –egunkariaren aldean bizialdi luzeagoa izan ohi duten argitalpenen ezaugarriak–, eta euskarriaren beraren nolokotasunagatik beste maila bateko dotoretasuna izango du produktuak, argazkiak eta diseinua gehiago nabarmentzeko aukerarekin –dena koloretan–: erakargarriagoa izango da.

Arrasateko hipermerkatua **EROSKI** zurekin Musakola 11 ARRASATE. Tel.: 943 71 10 30

Gabon zoriontsuak guztioi eta urte berri on!



BILDOTSA
10,95 €/kiloa



ITSAS ZAPOA
8,50 €/kiloa

tariet sortuak izango; komunitateko kideek ere zuzeneko parte-hartzea izango dute –orain arte ere bazuten, eta argitalpen berriari jarraituko dute izaten–: "Azken urteetako gure hausnarke-ta estrategikoan egon da hori, komunitatearekin, herritarrekin batera egin behar dugula produk-tua. Alde horretatik, *goiena.eus*-en badugu leiho bat komunitatearen-tzat, eta paperean ere komunitate, nolabait esatearren, arruntak badu orain ere lekua –kirol elkarteek, kultur elkarteek...–; horrekin alde-ratuta, aldizkari berrikoa izango da adituen komunitatea: motor kontuetan aditua dena, ondarean aditua dena, musikan aditua dena... Gaiari buruz dakitenekin egingo ditugu hainbat sail".

Goiena egitasmoan debagoiendarren parte-hartzearen strategi-kotasuna aipatu du Eneko Azka-ratek, komunitateak edukietan egingo dituen ekarpenei buruz jarduterakoan; ba hori baino lehe-nagotik, aldizkari berriaren disei-nurako nahi izan du Goienak irakurleen iritzia aintzat hartu: "*Pun-tua* izango zena definitzerako orduan, etxe barruan ere ez gara bakarrik kazetariak elkartu, baita administraziokoak, teknikariak... Oso prozesu zabala eta parte-har-tzailea izan da etxe barrukoan artean; bestetik, jaso ditugu Goie-naren *galaxian* dauden pertsonen iritzia eta ekarpenak. Baina, horretaz guztiaz gain, *focus group*-ak egin ditugu gure irakurleekin; talde heterogeneoetan batu ditugu –adinez, gustuz...–, eta eurekin kontrastatu ditugu eduki proposa-menak-eta. Entzun diegu zer irakurtzea gurako lukete, eta aintzat hartu".

Urtariletik aurrera Goienak kaleratuko duen argitalpen berria izango da, hain justu, askotariko ekarpenekin osatutako puzzlea: "Hori da *Puntua*".

Santamasetik santamasera, 11 urtez

Astelehenekoaren lehenengo zenbakia 2004ko otsailaren 16an argitaratu bazen ere, argitalpen berriaren aurkezpen gisa, 2003 amaieran argitaratu zen zero zenbakia; 2003an, santamas egunez, abenduaren 22an. Goienak, aurtego urtearekin astelehenekoak *Puntua*-ri txanda ematea erabaki, eta egutegiz egokitu da, orduko hartan bezala, astelehen santamas eguna, azken zenbakiaren eguna.



Astelehenekoaren zero zenbakia



Puntua-ren barruko orri batzuk.

IBAN ARANTZABAL | GOIENAKO ZUZENDARI NAGUSIA

"Bezerook gura duzuen horretan zentratu gara"

Astelehenetako argitalpenak egin duen bidearekin gustura, erronka berriari Goienak "ilusioz" heldu diola dio Arantzabalek.

Zergatik *Puntua*-rako aldaketa?

Hainbat arrazoi, baina garrantzi-tsuena da Goiena Klubeko baz-kideok esan diguzuela bestelako produktu bat irakurriko zenuke-tela. Iritziak jasotzen luze jardun dugu eta produktuaren zirriborroa erakusterakoan bazkideok esan diguzue: "Hau bai, horrelako zer-bait gura dut". Hori entzuteak poztu egin gaitu, eta euskara elkar-teetatik eta udaletatik ere babes-tu dute aldaketa. Goiena elkarre-kin egiten jarraitzen dugu, Goiena Klubekook erdigunean izanik.

Eta krisia ez da beste arrazoi bat?

Ez da arrazoi nagu-sia, baina badago hortik ere. Goiena Klubeko bazkideek oso arduratsu joka-tzen dute Goiena proiektu osoarekin, eta, tartean, horiei esker jasotzen dute doan milaka lagunek tele-bista, sarea, barikuko *Goiena*... Laguntzen digute gure herrietako historia idazten jarraitzen. Bada-kite, eta sekula ez diegu nahikoa eskertuko. Urtero bazkidezari eutsiz egiten duten trazio inda-rra bueltatu gura diegu, zerbitzu hobe emanda. Orain, kapaz gara produktu landuagoa egiteko anto-laketa modua aldatuta eta efi-zienteago izanda.



Astelehenekoaren 11 urteon ze balantze egiten duzue?

Oso ona. Bete ditu sorrerako hel-buruak. Dena den, konturatu gara irakurketa eguna asteburuan dagoe-la, eta *Puntua*-rekin lortu gura dugu birziklatze ontzira bota aurre-tik egun batzuk

"Haginlariaren itxarongelan balego irakurriko genukeena"

Orain arte jorratu gabeko moldean jardungo du Goienak *Puntua*-n.

Zabalago, egunerokoari lotu barik, sakonago... Baina ez dugu astro-fisikaz idatziko. Klubeko kideok topatuko duzue gustuko duzuen hori koloretako 48 orritan. Gertu-koa izango da, kafean komentagai diren gaiez osatua, familiarend-a-ko irakur tresna. Helburua izan da haginlariaren itxarongelan aste osoa iraungo duen aldizkaria egi-tea; bazkideok esango diguzue ea lortzen dugun.

Jose Arantzabal



Etxetresna elektrikoak
Etxerako osagarriak
ELMA banatzaile ofiziala
—
Sukaldeko altzariak
Horma-armairuak
Gremioen koordinazioa

ARRASATE

Doctor Bañez 2 • 943 79 18 92 • aranzabal.cocina@euskalnet.net - Iturriotz 15 • 943 79 15 16 • aranzabal@activahogar.com



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA





Oñatiko Foruen plazan eratu zuten herritar sarea. | IMANOL SORIANO

Ehundu dute presoek eskubideak aldarrikatzeko elkartasun sarea

Urtarrilaren 10eko Bilboko manifestaziorako autobus zerbitzua egongo da

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen alde eta horien sakabanaketarekin amaitzeko, elkartasun sare erraldoia eratu zen zapatuan Oñatiko plazan, Sare herri mugimenduak antolatuta. Ideologia eta pentsamendu askotako herritarrek koloretako zenbait hariren laguntzarekin babes ehun erraldoia eratu zuten. "Presoen egoera onartezina da", zioen

Foruen plazara gerturatu zen herritar batek.

Plazan batu, eta herritarren arteko sarea forma hartzen joan zen. Halaxe esan zuten antolatzailleek: "Ekimen hau, ekitaldi politiko bat baino, gaur egun presoek urratzen zaizkien giza eskubideak aldarrikatzeko tokia da". Eta gehitu zuten: "Aldarrikapenek askotan, kristalezko muga gogor batekin egiten dute

topo. Ez goaz sabai horren kontra, gure asmoa herritarrek mugitzea da".

Bilbora begira

Zapatuko herri mailako ekimena izan arren, urtarrilaren 10erako autobusak antolatzen hasi direla ere ekarri zuten gogora: "Ez dakit lortuko dugun, baina urtetik urtera manifestazio handiagoa egin nahi dugu", esan zuten.

30 urte eta gero Bergaran da Juan Carlos Arriaran 'Sali'

Zapatuan egin zioten harrera errefuxiatu oihari; euroagindu bat tarteko, haren egoera ez dago argi

M.B. | BERGARA


Itzulera gorabeheratsua izan du Juan Carlos Arriaran *Sali* bergararrak herrira. Barikuan, antolatatu zioten ongietorriko bidean zihola atxilotu egin zuen Polizia Nazionalak.

Barne Ministerioak jakinarazi zuenez, justizia frantsesak "terrorismoagatik" 2005 urtean emandako euroagindua betez atxilotu zuten. Iturri berberen arabera, *Sali*-k 1982an alde egin zuen Iparaldera, Mugarra taldea desegin ondoren. Bi urte geroago, Frantziak Panamara kanporatu zuen

eta 1990ean Venezuelara estraditatu zuten.

Zapatu goizean bertan deklaratu zuen Madrilgo Audientzia Nazionalan eta eguerdian aske laga zuten. Haren gertukoaren arabera, justizia frantsesak hura atxilotzeko emandako euroagindua egon badago, "baina ez ei dago garbi indarrean dagoen ala ez". Hala, egoera argitu bitartean, astero joan beharko du sinatzera Bergarako epaitegira".

Gauzak horrela, egubakoitzean egin ezin izan zioten harrera zapatuan egin zioten Irala kalean.



IMANOL GALLEGO

Euskararen historia liburu egina

Juan Madariagak ikerketa sakon baten ostean, XVII. eta XVIII. mendeetako dokumentuak batu eta ordenatu ditu. Historialariak, egubakoitzean aurkeztu zuen *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII* liburua, eta bertan, agirieta euskara jasotzeaz gain, hizkuntza bere testuinguruan jarri, eta bere historia soziala azaltzen du.

AHTaren Bergarako lotunearen beste tarte baten lizitazioa onartu du Madrilgo gobernuak

M.B. | BERGARA

Atxondo eta Abadiño arteko AHTaren obren lizitazioa onartu zuen egubakoitzean Espainiako Gobernuak Ministro Kontseiluan, 96,4 milioi euro-rengatik.

6,6 kilometroko zatia da, Bergarako lotunearen baitakoa eta Gasteiz-Bilbo norabidea lotuko du.

Bilboko manifestaziorako autobusak herriz herri

ARRASATE

▶ 15:00etan irtengo dira Garibaitik. Txartelak Kajoi, Bengoa, Taupa, Iluntz, Txitxinpe eta Beberly tabernetan daude salgai.

OÑATI

▶ 10:00etan eta 15:00etan irtengo dira Ibarrik. Txartelak Bidebarrietan eta plazan salduko dira.

ARETXABAETA

▶ Txartelak Urbaltz tabernan eskura daitezke.

ESKORIATZA

▶ Izenematea Inkernu eta hoteleko tabernan egin daiteke.

BERGARA

▶ Izena ohiko tabernetan eman daiteke.

ARAMAIO

▶ 15:30etan irtengo da Txirinbolotik. Txartelak Anboto, Eki eta Añain tabernetan eskuratu daitezke.



Melgar Arantzazun. | I.G.

Paciencia Melgar | Ebola izan zuen misiolaria

"Ebola gainditu dutenek, askotan, bizitza zerotik hasi behar dute"

I.G. | ARRASATE

Misiolaria ginearra den arren, Monrovia ebolaz kutsatu zen eta une gogorak bizi ostean, osatzea lortu zuen. Ebolak bere gorpu eta defentsak ahuldu zituen arren, ez zuen Melgarrek besteak laguntzeko duen grina ahultzea lortu. Egunotan, Aita Menni ospitalearen gonbitari esker Debagoiena ezagutu du.

Nolako gaixotasuna da Ebola?

Gogorra, oso gogorra. Zeharo ahultzen zaitu eta deshidratatu egiten zara. Gaixotasunaren indarraz gain, Afrikan baliabide eta mediku asko falta dira, eta horrek egoera okertzen du.

Ebola gainditu bezain laster, beste pertsonak laguntzeko prest egon zinen.

Edozein pertsonak egingo lukeen bezala. Garcia Viejo osatzeko beranduegi izan zen, baina behin baino gehiagotan Carlos III.ena ospitalean izan naiz, eta plasma atera didate. Horrek, Teresa Viejo osatzeko balio izan du.

Beti azpimarratu izan duzu, ebola gainditzeko ahaleginak Afrikara bideratu behar direla.

Bertan dago izurritearen fokua, eta ospitale eta langileek oso baliabide eskasekin egiten dute lan. Herrialde horiek oso txiroak dira.

Nolakoa da ebola gainditu osteko bizitza?

Oso gogorra. Ebola estigma gogorra da, eta osatu ostean jendeak baztertu egiten zaitu, beldur handia dago. Nolabait esateko ebola gainditu eta gero, gehienetan herritarrek euren bizitza zerotik hasi behar izaten dute.

Ebolak beste gaixotasun batzuen garrantzia ezkutatu du?

Zoriturrez bai. Tropikoetan oso gaixotasun gogorak daude, eta egun guztia ebolarekin nahasten da. Indar eta esfortzu guztiak hor daudenez, gainontzeko gaixotasunak ez dira tratatzen, eta jendea denge edo malariatz hiltzen da.



Juan Carlos Arriaran 'Sali' Irala kalean jendea agurtzen. | IMANOL SORIANO

'Zabaldu iturria' kanpaina, Mozambiken ere ura izan dezaten

Mikrokreditu bidez nekazari lagundu ahal izateko Mundukidek jarri du abian

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Mundukide Fundazioak *Zabaldu iturria* leloa duen mikrokreditu kanpaina jarri du abian Laboral Kutxarekin lankidetzan. Ekintza horren helburua da ur motoponpak eskuratu ahal izateko kredituak lortzea. Hala, Mozambique iparraldean dagoen Marrupa eskualdeko nekazari familiei lagunduko diete.

Desnutrizioa %30 murriztu

Kredituen ekimen hau 2002an sortu zuten, urteetan izandako uzta txarrek eragindako gosete baten ondorioz. Orduan erabaki zuten laguntza ez zuzena bidaltzea. Eta era horretan, urteek aurrera egin ahala loratuko zen proiektua jarri zuten abian, Mundukideko ordezkarien esanetan Marrupan bizi zuten "menpeko ekonomia eredia gainditzeko asmoarekin".

Ordutik, nekazarien laborantza garatzen dihardute. Eta ondorioz, familiaren biziraupenaz harantzago nekazari aukera dute oinarritzko beste ondasun batzuk eskuratzeko, baita makineria txikian eta ureztatze sistema teknologietan inbertitzeko ere. Horrez gain, 2000 eta 2010 urte bitartean haur desnutrizio tasa %30ean murriztea lortu dela jakinarazi dute. "Pobrezia protagonista den testuinguru batean, Mozambique munduko laugarren herrialde behartsuena da, ezarpen hauek ezinbesteko suertatzen dira nekazari jardueren hazkunderako, baita azpiegitura berrien eraikitzea eta izaera kooperatiboa duten enpresa txikien sustapenerako", diote Mundukideko kideek.

Lau programa martxan

Mozambiqueko Marrupa barrutian, 15.000 kilometro karratu

dituen Niassa probintzian, 58.000 biztanle baino zerbait gehiago bizi dira. Nekazaritza ustiapen oso txikiak dituzte eta eremu horietan zerealak lantzen dituzte. Familia bakoitzaren urteko irabaziak 50 eta 200 euro bitartekoak izaten dira. Mundukidek martxan jarritako mikrokreditu kanpainei esker 225.000 euro eman ahal izan dira 2.890 pertsonarendako.

Mozambiken hamar urtean jardun eta gero, Mundukidek lau programa ditu martxan inguruko lau eskualdetan. 130 irakasle



Nekazarien laborantza garatzen dihardute. | MUNDUKIDE

baino gehiagoko talde batek, Mundukideko eta bertako beste bederatzi elkartetako pertsonak osatua, 30.000 nekazariri eskaintzen die laguntza, eta ureztatutako 600 hektareako lur eremuetan egiten dute lan.

Ekimen horretan parte hartzeko interesa duenak Laboral Kutxak dituen bulegoetan dituz argibideak (esku-orriak) eta kredituak eman ahal izango dira entitate horretako kontu korronte honetan: 3035 0001 56 0010122192.

Garraio zerbitzua erregulatzeko araudiaren proposamena onartuta

Arrasaten onartuko dute eta 2015ean abian jarri

M.A. | ARRASATE

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak zuzendu duen foroak onartu du garraio zerbitzua publikoa erregulatu duen araudiaren proposamena. Foro horretan izan dira administrazioko ordezkariak, garraio-operadore enpresak eta eragile sozialak.

Orain dela urtebete jarri zen lan-mahaia martxan, eta orain, prozesuan parte hartutako administrazio guztiei bidali diete araudi hori onartu eta 2015ean indarrean jartzeko. Onartuko duten herrien artean dago Arrasate, honakoekin batera: Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz eta Hernani.

Irisgarritasuna

Araudiaren helburu nagusia da erabiltzaileen beharrei erantzutea eta garraio-zerbitzua edozein lagunendako irisgarria izango dela bermatzea.

Gipuzkoan dagoen aniztasun soziologikoa aintzat hartuta, hau da, erabiltzaileen behar, profil eta egoera desberdinak kontuan

hartuta, eratu zuten lan-mahaia eta bertan izan dira, besteak beste, ONCE, Kalapie eta Hirukide elkarteetakoak.

Hala bada, garrantzi handia eman diote irisgarritasunari, eta honakoa zehaztu dute: "Administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko eta sensorialak dutenak". Informazioaren irisgarritasunean ere jarri dute indarra, eta horretarako egun dauden sistemak egokitzeko hasiko dira.

Bestetik, ume txikiak dituzten familien beharrei ere erantzun gura diete familia-bizitza eta bizitza profesionala bateratu ahal izateko.

Eta beste berritasun bat da ordutegi zehatz eta autobus linea batzuetan bizikletak eta etxeko animaliak eramateko aukera izango dela.

Lanera bizikletaz geroago eta jende gehiago joateko helburuarekin, boluntario sarea dabil lanean

Lanean hasi da aitzindari den Debagoieneko boluntario sarea. *Lanera bizikletan* egitasmoaren sustapenean dihardu taldeak -dagoeneko ehun kide inguru ditu- eta parte hartzen dute Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek eta Foru Aldundiak. Lanera bizikletaz joango diren herritarren kopurua areagotu gura dute orain, eta, horretarako, boluntarioak jarri dituzte aholkulari eta laguntzailer. Kontakturako bideak, hauek: sarean *Lanerbizikletan.net*, posta elektronikoz *lanerbizikletan@gmail.com* eta telefonoz 900-10 27 16.



Aurreztu.com

Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

PARAPENTE BIZKAIA
Parapentean hegaldia eta bideoa Sopelako kostaldean

50€

LEHEN: 120€
DESKONTUA: %59



ARCO IRIS GLOBOAK
Globo aerostatikoan bidaia, brindisa hegalduan eta jatordua tipikoa

145€

LEHEN: 170€
DESKONTUA: %15



AIR WORKS TEAM
Hegaldia ultrarinean eta ekintzaren bideoa

60€

LEHEN: 186€
DESKONTUA: %68



FOTO IKATZ
Oparitu poltsikoko egutegi pertsonalizatuak

7€

LEHEN: 12€
DESKONTUA: %42



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?

Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

goiena

EAEko ekonomia %1,8 haziko da 2015ean, Laboral Kutxaren esanetan

Hazkunde horri jarraituz, batez besteko langabezia tasa %1,3 jaitea espero dute entitateko ordezkariak

MIREN ARREGI/A.E. | ARRASATE

Laboral Kutxak adierazitakoaren arabera, EAEko ekonomia %1,8 haziko da 2015ean. Hala eman zuten aditzera eguaztenean Bilbon egin zuten aurreikuspen makroekonomikoen aurkezpenean. Esan bezala, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako barne produktu gordina %1,8 handituko dela kalkulatu dute. Hazkunde horri jarraituz, batez besteko langabezia tasa %1,3 jaitea espero dute. 2014an tasa hori %15,8 izango litzateke eta 2015. urtean, berriz, %14,5.

Adierazitakoa baino hazkunde handiagoa izateko aukera egon badagoela adierazi du Joseba Madariaga finantza erakundeko azterketa zerbitzuburuak. Izan ere, petrolio upelaren prezioak izan duen jaitsiera oso albiste ona iruditzen zaio EAEko ekonomiarendako. Prezio baxu horien bolada luzatzen bada, %1,8tik %2,1era handituko da barne produktu gordina.

Inflazioaren egoera ere aztertu du Laboral Kutxak. Oraingoz, txostenaren egileek ez dute ikusten deflazioan erortzeko arriskurik, eta, pixkanaka, prezioek gora egingo dutela uste dute.

Nazioartea

2014an ekonomiaren "atzeraldia amaitu" dela azaldu zuten; eta, urte txar batzuen ostean, merkataua hobetzen hasi dela. Hala ere, etorkizuna "zalantza" beterik dagoela gaineratu zuten.



Laboral Kutxako ordezkariak Bilbon egindako agerraldia. | LABORAL KUTXA

Nazioarteari dagokionez, AEBak eta Erresuma Batua salbuespena direla gaineratu zuten: "Urte txar batzuen ostean hazkundearen bidean sartu dira". Japonia eta Europa, aldiz, hazkunde fasean daudela diote, baina "hazkunde motela" dela diote. Hala, 2015a "urte zirrarragarria" izango dela gaineratu zuten.

Kontsumitzaileen iritzia

Agerraldian, kontsumitzaileei egindako bi inkesta azaldu zituzten: batetik, euskal kontsumitzaileei egindakoa. Datu horien

arabera, euskal kontsumitzaileek ezkorak izaten jarraitzen dute: indizea -20an dago. Urtean zehar balore horrek egonkor jarraitu du. Kontsumitzaileen aurrezteko gaitasuna izan da hobera egin duen balore bakarra.

Bestalde, Laboral Kutxak industria konfiantzaren gaineko inkesta egin du. Enpresek datoren hiruhilekoari begira duten aurreikuspenen ingurukoa izan da inkesta. Enpresek 2015eko lehenengo hiruhilekoari begira duten aurreikuspenek txarrera egin dute.

Bihar amaituko da Candyko negoziazio epea

Aldundiaren eta langileen asmoa da Bergarako plantara enpresaren bat erakartzea

A.E. | ARRASATE

Azken batzarrean adostu zuten, bihar, hilak 23, amaituko da Candyko zuzendaritzaren eta langileen arteko negoziazio epea.

Kaleratzen kalte-ordain gainera akordioa lortu gura dute. Bestalde, langileek esan zuten euren asmoa "aukera guztiak aztertzea" dela, "enplegua mantentzeko" bada.

Aldundiarekin lanean

Gipuzkoako Diputazioa gertu dago Europar beharrezkoak diren gestioak egiteko enpresaren bat Bergarako plantara ekartzeko; edozelan ere, hori bigarren pausoa dela azaldu dute langileek.

Candyko langileek manifestazioa egingo dute bihar, martitzena, 19:00etan.

Bidegiko arduradunen aurkako salaketa, tramitera

Lan batzuk egiteagatik ordaindu zuten, baina orain egiaztatu dute lanok egin barik daudela

A.E. | ARRASATE

AP-1 autobideko lanetan gertatutako ustezko irregulartasun kasu baten harira, Bidegiko zuzendari tekniko ohi Agustin Zugastiren eta bi eraikuntza-enpresatako arduradunen aurka egin du Diputazioak. Azpeitiko epaitegiak tramitera onartu du salaketa; hala, inputatu gisa deklaratu beharko dute urta-

rrilaren 29an eta 30ean. AP-1 autobideko lur soberakinak Basagoitira eraman zituzten. Likidazioko paperen arabera, ia beteta zegoen biltegia: %99,78. Diputazioak azterketa egin zuen, hala ere, lur gehiago eramatea posible ote zen ikusteko, eta orduan azaleratu zuten agirietan adierazitakoa baino lur gutxiago zegoela.

Modu arduratsuan erosteko hainbat aholku eskaini ditu Kontsumobidek Gabonetako egunei begira

Gabonetako erosketak egiterakoan kontuan hartu beharreko hainbat aholku eman ditu Kontsumoko Euskal Institutuak, Kontsumobidek. Kontsumitzaileei informazioa eta babesa ematearren kontuan hartu beharreko aholkuak dira, modu arduratsu eta seguruan kontsumi dezaten.

Igor Villarreal | Biltegitratze elektrikoko lerroko arduraduna

"Erronka nagusia bateria errentagarriak eta fidagarriak sortzea da"

Baterien portaeraren inguruan dihardu lanean, besteak beste, Ikerlaneko ikertzaile taldeak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

IK4-Ikerlanek lankidetzaren hitzarmena sinatu du Bruselako Unibertsitate Libre ospetsuarekin (VuB), energia biltegitratzeko ikerketan elkarrekin lan egiteko. Zer esan nahi du sinatu duzuen akordio horrek? Lau urterako akordioa sinatu

dugu elkarrekin lan egiteko biltegitratze elektrikoen inguruan. Akordio horren arabera, Bruselako Unibertsitatearekin elkarlanean helburu zehatz batzuk finkatuko ditugu, lan esparru jakin batean. Modu horretan, ikertzaileak elkartrukatu ahal izango ditugu; eta, proiektu zeha-



ztetan elkarrekin lan egingo dugu, adibidez.

Biltegitratze elektrikoak bateriak dira. Zer ikertzen duzue?

Baterien portaera zelakoa den ikertzen dugu, eta nolako bizi iraupena duten. Horrez gain, portaera elektrikoa eta termikoa ere ikertzen ditugu. Batez ere, ioi litioko bateriak ikertzen ditugu.

Europar, puntako unibertsitatea da Bruselakoa?

Bai, Europar erreferente dira, batez ere, baterien portaeren inguruan.

Ikertzaileen arteko elkartrukea bultzatuko duzue. Zein onura ekarriko dio horrek Ikerlani?

Gure jendea prestatuagoa egongo da. Hemen hainbat gauza egiten ditugu, baina beste gauza batzuk ezagutzea eta, gainera, Europar erreferentziak den toki batean ikertzen egoteak Ikerlani beste ikuspuntu bat izateko aukera ematen dio.

Zuek ikertzen dituzuen bateriak

non erabiltzen dira?

Biltegitratze elektrikoak bateriak dira. Gaur egun, bateriak auto elektrikoetan, autobus elektrikoetan... erabiltzen dira; eta baita sare elektrikoan ere. Bateriei gero eta gauza gehiago eskatzen zaie, gero eta zorrotzagoak gara. Horregatik, oso garrantzitsua da baterien portaera ezagutzea. Aplikazioetan bateriek duten bideragarritasuna ezagutzea da garrantzitsua.

Tamaina jakin bateko bateriekin egiten duzue lan zuek.

Bai, gure tentsio handiko bateriekin egiten dugu lan; aplikazio handietara bideratutakoak: esate baterako, trenak, autobusa, itsasontzia...

Zeintzuk dira erronkak?

Erronka nagusia sistema lehiakorra lortzea da. Bateriak errentagarriak eta fidagarriak izatea.

Alvaro Arrizabalaga | Lezetxikiko indusketen arduraduna

"Zati bat moztu diote hezurrari, eta horrek ez du atzera bueltarik"

- ▶ Lezetxikiko humeroak 164.000 urte dituela zehazteko uranio-torio metodoa erabili dute
- ▶ Alvaro Arrizabalaga: "Guk ere erabili izan dugu metodoa, baina inoiz ez giza hezurrekin"

T.MADINA / M.TORRES | OÑATI

Jose Migel Barandiaranek eta Jesus Altunak 1964an Lezetxikiko aurkitutako giza humeroak 164.000 urte dituela jakinarazi dute duela gutxi. Jesus Altunak berak Concepcion de la Rúa antropologian katedradunarekin eta Kultura sailburuorde Joxean Muñozekin batera egindako aurkezpenean, nabarmendu zuten datazio horrek Lezetxikiko hezur fosila Europako zaharren artean kokatzen duela. Datazioa zehazteko frogak Australian egin dituzte, uranio serieak erabilita. Alvaro Arrizabalagak, Lezetxikiko indusketen arduradunak, ordea, ikuspegi kritikoz begiratzen dio iragarpen berriari.

Nola hartu duzu albistea?

Harriduraz. Egin dutena guretzako tabua da, saiatzeko guretzako giza hezur fosilak, batez ere antzinate handikoak, inoiz ez puskatzen datazio zuzenak egiteko. Gainera, benetan datua ez dakigu, aurreratu zaiguna baizik. Arkeologian, eta zientzian orokorrean, datuak ez dira datuak aldizkari zientifiko batean argitaratzen diren arte. Izan ere, hor iritzi elkartruke bat egoten da, eta ikuskatzaile batzuk daude, proposatzen den edukia berrikusten dutenak. Azkenean, zuzenketa guztiak sartuta, datua kaleratzen denean, benetako informazio izatera pasatzen da.

Egoki ikusten ez duzuna, beraz, datazio hori egiteko erabilitako metodologia da, ezta?

Hori da. Badira gauza batzuk duela 50 urte egiten zirenak, baina egun inork egiten ez dituenak. Datazioak egiterakoan, beti saihestu behar da datazio zuzenak egitearen ideia, horrek kalte zuzena dakar eta hezur fosilaren edukian, eta, gainera, ez dago atzera egiterik. Badaude beste metodo batzuk, zeharkako metodoak, egokiagoak direnak. Gure indusketen ondorioz, badaramatzagu gutxienez bost urte datazio oso antzerakoa proposatzen humeroaren testuingururako, baina hezurra inoiz ukitu gabe.

Zein da kasu honetan jarraitu den metodologia?

Uranio-torioaren analisisa egin dute, uranioaren eta torioaren desintegrazio prozesua erabiltzen duen test isotopiko bat. Uranioaren eta torioaren kopurua neurtu eta alderatuz kalkulatu da hezur fosilaren adina. Metodologia arrunta da, eta guk ere erabili izan



Alvaro Arrizabalaga arkeologoa, Goienaren erredakzioan. | TXOMIN MADINA

dugu, baina, gehienez ere, animalien hortzekin, inoiz ez giza fosilekin, eta are gutxiago fosil bakarra izanda. Atapuercan, Hezurren Leizean delakoan, milaka dituzte eta badaramatzate 20 urte benetako datazioari buruz eztabaidan. Kontua da aipatutako tabu hori ez dutela puskatu nahi izan. Kostura estalagmitikoak eta animalien hezurak datatzen ari dira, baina ez giza hezur fosilak.

Izan ere, kasu honetan, fosilari fisikoki zuzenean eragin diote.

Bai, zati bat moztu diote hezurra eta horrek ez dauka atzera bueltarik. Gainera, uste dut ez daukala zentzu handirik. Noski, bizkorrena metodo hori erabiltzea da. Denoi pasa izan zaigu burutik halako gauzak egitea, baina, une berean, zure buruari esaten diozu ez dagoela halakorik egiterik.

Zergatik diozu ez dela proposa?

Ez da batere egokia, ez nik eta ez edonork gure munduan dabilena. Esan dudana moduan, hori tabua da gure munduan, beti daude beste metodo batzuk, eta beste metodarik geratuko ez balitz, utzi behar diozu fosil hori hurrengo belaunaldiari, hurrengo belaunaldian egin dezaten datazioa. Azken aukera hori zenbat eta geroago erabili, sortutako txiki-zioa orduan eta txikiagoa izango da, neurketa sistemak hobek eta erresoluzio handiagokoak izango direnez, erabili beharreko laginak txikiagoak izango direlako. Egia da orain dela 45 urte beste koska bat ere egin zitzaiole Lezetxikiko humeroari, eta, agian, garai hartan, testuinguru horretan, gauzak horrela egiten ziren, baina gaur egun, ez.

Diozunez, aurrez antzeko ondorioetara iritsita zaudete zuek; nola?

1999an hasi genituen indusketak Lezetxiki alboan dagoen Lezetxiki 2 izeneko beste kobazulo txikiago batean. Gure ustez, bigarren kobazulo hori da humeroaren benetako testuingurua. Hortaz, hezur fosilaren datazioa ez litzateke Lezetxikiko sekuentziatik ondorioztatuko, proposatzen den moduan, baizik eta Lezetxiki 2tik. Bertan, Lezetxikin ez bezala, hondoraino iritsi gara indusketetan eta, gutxi gorabehera, humeroa agertu zen tokitik metro erdira gelditu gara. Hor agertu zaigun faunaren arabera, beti proposatu izan dugu humeroa izango zela seigarren estadio isotopiko amaierako fase batekoa. Topatutako faunaren artean, adibidez, urkiaren sagutxo dago,

klimatologia oso hotzeko garaian agertzen den sagutxo oso txikia. Hori 2012an oso aldizkari ospetsu batean kaleratu genuen, esanez hura zela humeroaren testuingurua, eta gutxi gorabehera 150.000 180.000 urte bitarte izango zituela. Gainera, ez zen lehen aldia proposatzen genuena. Gainera, datazio bera lortu izan dugu beste metodo batzuk erabiliz; adibidez, aminoazidoen errezimazioarekin.

Era batera edo bestera, hezur fosila Europako aztarna zaharren artean dela diote.

Datu hori ez da zuzena. European badaude, Alemanian, Grezian eta Frantzian, besteak beste, hori baino zaharragoak diren fosilak, eta fosilik gabeko testuinguruak, oraindik gehiago.

Uste duzu Lezetxikin aurkituko direla hezur gehiago aurrerantzean?

Baliteke. Izan ere, orain ari gara testuinguru bereko geruzan lanean. Edozelan ere, aurkitzen badira, espero dut gauzak beste era batera egitea. Guk saioak egingo ditugu, behintzat, hezur fosila beste era batera datatzeko.

"Badaude beste metodo batzuk, zeharkakoak, egokiagoak direnak"

"Datazio bera lortu izan dugu, beste metodo batzuk erabilita"

"Baliteke Lezetxikin horrelako hezur gehiago aurkitzea aurrerantzean"

ZABALIK



HARITZ SOLUPE
goiena.eus/komunitatea/

Esanak ez dakar izana

anetik bueltan etxeko atarian giltza sartzeraz joan eta hara zer topatuko atean eta, Udal Gobernuaren beste bando bat. Oraingoan, Basabeazpiko bidegorriarekin egitera doazena herritarrokin partekatu nahi omen dute.

Herritarrok jakin eta ezagutu gura dugu, bai. Gure diruekin Udalak zertzuk eta nola egiten dituen jakin eta ezagutu nahi dugu. Eta kudeaketok herritarro ongizatea eta herriaren ekonomia eta gizarte kohesioa urratu dezaketenean, jakiteaz gain, iritzia ere eman gura dugu.

Zer eta nola egiten duten kontatzeak, gizabanakoen iritziak entzun eta kontuan hartzeak eta Aretxabaletaren etorkizuna baldintzatzen duten gaien inguruan herriari galdetzeak Udala Gobernu honen ez daukan jarraera eskatzen dute, baina. Iritzi desberdinak entzun, errespetatu eta kontuan hartzeko jarrera aktiboa, alegia. Esanak eta *parte-hartze* hitza sarri errepikatzeko ez baitakar izana.

"Gure diruekin Udalak zertzuk eta nola egiten dituen jakin nahi dugu"

Kirol etxearen kudeaketarekin gertatzen ari dena da jarrearik eza horren azken adibide garbia. Gardentasun falta eta isiltasuna arduradun politikoen aldetik. Kirol batzordetik gaia atera, alderdi politikoak eta interesatuak baztertu, udal teknikarien gomendioak entzun ez eta Udaletik kanpoko abokatuen esku utzi dute Udalak berak egin beharrekoa egitea. Kontratua bertan behera lagatzeko akordioa da ezagutzera eman digutena soilik. Eta aurrerantzean zer? Kudeaketa ereduaren eta udal aurrekontuetan urtero sortuko duen zuloaren zantzurik ere ez.

Eta hiri hondakina legealdiko adibidea dugu. Azkena, Man-komunitateak argitaratutako datuen irakurketan benetako arazoa iritzi publikoari ezkutatu: Aretxabaletan 25etik 50 tona bitarteko zabor kopurua desagertzen da hilerio atez ateko bilketa sistema ezarri zigutenetik, datuon arabera. Herritarro erantzuna eskatzen duen udal jarrera kezagarria.

Galde gaitzaten nahi dugu.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.eus

Zortzi urteren ostean, agur

Esku artean duzun asteleheneko GOIENA azkena da. Urtrilean beste aldizkari batekin itzuliko gara. Berria. Beste eduki batzuekin. Koloretsua. Baina berriari baino gehiago, hiltzeaz dagoen honi eskaini gura dizkiot lerro hauek. 2006ko martxoan hasi nintzen orduko asteleheneko *Goien-karia*-n lanean. Aste bukaeretan. Erritmo biziarekin. Atsedean barik. Nekatuta bukatzen nuen, baina ikasketa itzela izan zen. Erlojuaren kontra lan egiten ikasteko balio izan zidan. Eta zinez diotsuet, orduan ikasitakoa praktikan ipintzen dugu egunero Goienan. Paperean, telebistan, Interneten, irratan. Aldizkaria aldatu arren, erritmo berberarekin egingo dugu lan.

KALE INKESTA

Zer egiten duzu gabonetan?



JESUS ITURROSPE
OÑATI

"Gabonak berba egiteko, jateko-eta aprobetxatzen ditugu. Lehen, gehiago, kaleak apainduta egoten ziren-eta".



KRISTINA BIKUÑA
OÑATI

"Ba, nik neuk Gabon egunak ez ditut gauza askorik egiteko aprobetxatzen; izan ere, lan egin behar dut".



PATXI OSA
BERGARA

"Gabonak pixka bat deskantsatzeko, hizketan egiteko eta familiarekin egoteko aprobetxatzen ditut".



MAIDER ETXEBERRIA
OÑATI

"Denok elkartzen gara eta oso gustura egoten gara. Gainera, kalea animatuta egoten da; beraz, egun politak dira".

GUTUNAK

Lore Gazteak: 50 urte

Jaione Agirre
(50. urteurrenko parte hartzaileen izenean)
Arrasate

Bukatu da, se acabo!, zioten pailazoez emanaldia amaitzeko. Eta hori diogu Lore Gazteak-en 50. urteurrena agurtzeko. Baina hor izan garenok, zuei esker, ahaztezinak izango diren bizipenak zein oroitzapenak izango ditugu betiko. Lore Gazteak-eko partaide izanagatik harrotasunez eta, zergatik ez, harrokeriaz atera ginen denok plazara, neskatila-mutiko, neska-mutil, andre-gizon, tente eta arin, dantza bizirik dagoela erakustera, uste baino osasuntsuago dagoela erakustera. Barreak, negar malkoak...

Erakusketa ederra ere oparitu diguzue. Batetik, gure historia txikia argazkietan, bakoitzak berea: "Herri horietan izan ginenean ederto pasau geuen". "Ene, neu naz

eta!". "Txikixak giñen gero e...". "Makiñe bat dantza egindekuek gaittun, neska"... Kirioak dantzan. Bestetik, gure arbasoen dotorezia ezagutzeko parada jantzien bitartez.

Eta urteurrena borobiltzeko, hitzaldia ez ezik montera ikastaroa ere izan da. Ez da makala izan urtean zehar antolatzaileek, gazte zein heldu, egin duten lana. Lan bikaina!

Parte hartzaileoi, Lore Gazteak-en 50. urteurrena antolatu dutenak txalo zaparradaren bitartez zoriontzera baino ez zaigu geratzen.

Zorionak eta eskerrik asko zuen lan apartagatik! Zorionak eta eskerrik asko dantzarekiko, gure kulturarekiko, gure herriarekiko adierazi duzuen ilusio eta maitasunagatik! Zorionak eta eskerrik asko zuei esker bizi izan ditugun une gogoangarriengatik! Zorionak eta eskerrik asko, berriz ere.

Tik tak, tik tak... ordularia atzeraka.

Noiz hurrengoa? Beste 50 urte gehiegixko izango ote?

Errespetua

Nahia Gallastegi
Arrasate

"Ebanjelioak tripako mina ematen badizue, Korana irentsi beharko duzue". Halako esaldi mingarriak irakurri nizkizun, Antton Errarte. Galdetu nahi dizut, zergatik? Katolikoa edo musulmana, baina erlijioa bai ala bai? Nik sinesmen handiagoa dut elkarren errespetuan oinarritutako gizartean, erlijiorik bakoan. Ze, orain arte, erlijioek andreak gizonen atzetik utzi gaituzte-eta. Non daude, adibidez, andre apaizak?

ZUZENKETA

Egubakoitzeko *Goiena* paperean, 5. orrian, jarri genuen Udalaiz S. Coop. kooperatiba berriaren atzean Fagor Etxetresnetako lehengo zuzendaritza eta Mondragon Taldea daudela. Baina hori ez da zuzena; izan ere, kooperatiba berria bultzatu dutenak lehengo kontseilu sozialeko kide batzuk dira.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otlora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otlora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailkatzaile arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaria), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Monika Belastegi

Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amaia Mundiñano, Zortza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otlora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otlora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otlora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004

ISSN: 2174-369X

Tirada: 4.050 ale

Diffusioa: 3.893 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko abenduko zozketetako irabazaleak



PS3

Julian Alberdi
Muruamendiaraz (Bergara)



Otarra

Pilar Altuna (Bergara)




Gospelerako sarrerak
Iker Ibarra Balanzategi
(Bergara)



Antzerkirako sarrerak
Iñigo Zaitegi Bikuña
(Bergara)



Santamasetako bertso saioa
Gotzon Agirre Arregi
(Arrasate)
Maite Aginagalde Garitano
(Arrasate)



Kosmojet jokia
Begoña Zabaleta Iturbe
(Bergara)
Manuel Lopez Aldekoa
(Arrasate)



'Carmina Burana' opera
Amaia Bikuña Martinez de
Zuazo (Oñati)
Mikel Txintxurreta Igartua
(Oñati)




Begarako Gabonetako
Kontzertua
Miren Anduaga Kortabarria
(Antzuola)
Lorea Zurutuza Alberdi
(Bergara)



Arrikrutzerako sarrerak
Arrate Agirre Agirreurreta
(Arrasate)
Maixa Arozena irastorza
(Aretxabaleta)
Kontxi Idigoras Ostolaza
(Bergara)



'Prime Time' Liburua
Jaione Agirre Arregi
(Arrasate)



Irrien Lagunak aldizkaria
Esteban Barandiaran
(Arrasate)
Gorka Markez (Bergara)
Mikel Sologaitoa Biain
(Oñati)
Maitane Loyola Zubia
(Bergara)
Jesus Markez Garmendia
(Bergara)
J.M.Ugarte Aiaitui (Oñati)
Jose Antonio Amundarain
(Oñati)
Mertxe Kalparsoro Esteibar
(Aramaio)
Trini Galdos Urzelai (Oñati)
Ione Moñux Arantzeta
(Bergara)
Edurne Elkoroiribe
Izurrategi (Oñati)
Mikel Maiztegi Mugarza
(Oñati)
Maribi Visitación Zabaleta
(Bergara)
Andoni Iturbe
Agirrebalzategi (Oñati)
Mikel Eguren Laskurain
(Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Harreman dendako otarra. Harreman Dendak Arrasateko Eroski Hipermerkatuan dagoen dendan jaso behar da.

Beste sariak. Sariak jasotzeko, etorri, beranduenez, abenduaren 22 eta 23 artean Goienaren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman behar da.

GOIENA. Otolara Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05

Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



HERRIAK



Elkarteko zenbait kide azken hitzaldia hasi baino lehen. | IMANOL GALLEGU

ARRASATE

Aztertu, zaindu eta elkarbanatu

AZEk hirugarren urtez antolatu duen 'Iragana astinduz' zikloak arrakasta itzelarekin esan du agur

IMANOL GALLEGU | ARRASATE
Arrasate Zientzia Elkarteak 2011n sortu zen, eta, ordutik hona, herriko historia arakatzen dihardute elkarteko kideek. "Ez ginen asmo zehatz batekin hasi, ikerketa gure zaletasuna izan da, eta horrela hasi ginen", esan du elkarteko kide Xabier Bengoak.

Jaso eta eman

Lau urte hauetan zaindari, ikerzaile eta, nola ez, zabalkunde lana egin dute. "Jendeak argazki eta dokumentuak entregatzen dizkigu", azaldu du Bengoak. Altxor horiek aztertu eta gordezteaz gain, herriari bueltatu nahi dizkiote: "Guk zaindu arren, Arrasate osoaren ondarea dugu esku artean". Horregatik, datorren urtean, beste asmo-proiektu batzuen artean, jasotako guztia hobeto erakusteko webgune eraldatua izango du elkartek.

Ziklo arrakastatsua

Herriko ondarea ez ezik, iragana hobeto ezagutu eta etorkizuna

hobeto ezagutzeko elkartek hirugarren urtez antolatu du Arrasateko *Iragana astintzen* hitzaldi zikloa: "Gutxi gara eta xumea da gure lana". Xumea bezain eraginkorra izan den prestaketari

Nondik gatoz, nora goaz...

Gogoz ekin genion, zaletasuna dugu, historia ikertzeari, eta urte hauetan gu izan gara gehien ikasi dugunak. Norabide bat izan nahi badugu, gure iragana ezagutzea ezinbestekoa da, eta nekeza bezain erakargarria den ibilbide honetatik jarraitzeko asmoa dugu. Zaletasuna herrikideekin elkarbanatzeak abentura hau are lilugarriago egiten du.

esker, saio gehienetan aretoa lepo betetzea lortu dute. "Ez dakigu zergatik, baina izugarria izan da hitzaldiek izan duten harrera", adierazi du Bengoak.

Hirugarren zikloa amaitu bezain laster, hurrengoa buruan dutela ere onartu du: "Badirudi formularekin asmatu dugula, eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dugu". Aurtengo hitzaldi sortak aurreko urteetakoek izandako arrakasta errepikatu edo hobetu du. "Jendeak kalean zoriondu egiten gaitu", dio, harro. Ez da gutxiagorako; zikloaz gain, duela urte gutxi berpiztutako elkartek bere azterna gero eta sakonagoa eta zabalagoa dela dirudi.

Hitzaldiak baino gehiago

Iragana astintzen zikloak elkarteari izen handia eman dion arren, *Mondragoe beirazko plaketan* erakusketak izandako oihartzuna itzela izan zen: "Marka guztiak hautsi genituen". Eta badirudi datorren urteko erronka berria hortik joango dela.

Lau hitzaldiko zikloa



GOIENA

JULIAN SAGASTA, ERROMAKO ORGANO-JOTZAILE

ARRASATEARRA Hitzaldiarekin ireki zuren zikloa. Bertan, 5 aita santurentzat jo zuen organo-jolea gogora ekarri zuten gogora.



GOIENA

DEITUREN SORRERA izan zen bigarren hitzaldia. Horretan, euskal Filologian lizentziadun eta Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko idazkari Mikel Gorrotxategi abizenen sorreraz mintzatu zen.



GOIENA

GIPUZKOAKO UDALETXE BARROKOAK, ARRASATEKO

UDALETXEA izan zen higarren hitzaldiko gaia. Sebastian Agirretxe adituak Arrasateko udaletxearen balio arkitektonikoari azaldu zuen.



IG

EUSKAL LABEA METALURGIAREN HISTORIAN: ARRASATEKO


EREDUArekin itxu zuten aurtengo zikloa. Bertan Xabier Orue-Etxebarriak Arrasateko Obiagako hiru labeetatik abiatuta labeen historiaz jardun zuen.



puntua

ASTEKARI BERRIA

Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.
Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik.



**Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:**
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

ARRASATE

Santamas usaina izan du aste bukaerak

10:00 hasiko da feria gaur eta beti moduan, gune nagusiak Laubide, Seber Altube eta Biteri izango dira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE
Gaurkoa egun handia da arrasatear eta inguruko baserritarrentzat santamas feria delako. *Goiena.eus* webgunean topatuko duzue gaurko egitarau osoa.

Feria egunaren aurretik ere, erakusleihen onena aukeratu zuten egubakoitzean; aurten Belun dendak irabazi du saria. Dudarik gabe baina, ikusmira handiena Holan eta Merke txerri bikoteak piztu zuen atzo iluntzean.

Bi txerrien aurkezpena

Gaur fresko egoteko, *Holan* eta *Merke* txerriek herritarrei egindako aurkezpenean siesta egitea erabaki zuten. Lo zeuden arren, herritar ugari bisita izan zuten.

Txerriak ezagutu eta gero, jendeak herriko erraldoi eta kilie-

kien saioa ikusi zuten, beti moduan txalo asko jaso zituzten.


Kuadrillen arteko lehen jolasak
Hiru talde, 30 bat lagun eta ondo pasatzeko gogo handia. Horrela hasi zen Seber Altuben zapatuan jokatu zen santamasetako kuadrillen arteko lehen norgehiagoka.

Lokotxak, harria jaso, zaku karrera, txingak eta trontzan egin behar izan zuten parte hartzaileek. Euskal Herrian Euskaraz eta Arrasateko Gaztetxea taldeak gogoz saiatu ziren arren, Santamas komisiokoek irabazi zuten txapelketa.

Santamasetan gaudenez, txapela baino, urdaiazpikoa irabazi zuten. Hori bai, gainontzeko taldeekin konpartituko zutela sin egin zuten.



Komisiokoak irabazi zuten kuadrillen arteko lehen jolasa. | ARGAZKIAK: I.G. ETA J. ARANTZABAL



Gogotik egin zuten txingekin korrika.



Erraldoi eta kilikien konpartsak herritar ugari batu zituen plazan.



25 kilo ez dira erraz jasotzen.



Holan eta *Merke* siesta egin zuten aurkezpenean.



Belun dendarena da aurtego erakusleihen ederrena.

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.




JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON
OPA DIZKIZUEGU
GUZTIOI!



Ate sekzionalak



Ate gidariduna



Pertsianak



Aluminiozko atek

- Garajeko atek
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



Pibote mugikorak

DEBAGOIENA

Azken opariak eskuratzeko aukera izan da bailarako azoketan

- Bigarren aldiz Oñatin egindako artisauen azokak jende asko batu zuen
- Bergarako Napar ferian, Gure Ametsa elkarteak irabazi zuen VII. saiheski lehiaketa

IMANOL BELOKI | DEBAGOIENA

Aste bukaeran Gabonetako azokak izan dira Eskoriatzan, Oñatin, Bergaran eta Elgetan.

Lehen hitzordua barikuan izan zen; Eskoriatzako Axtroki merkatarien elkarteak antolatutako Gabonetako azoka, hain zuzen. Euren produktuak atera zituzten plazara eta inguruko tabernetako prezio bereziekin, giro bikaina izan zen herrian.

Napar Ferian, artisauak nagusi

Zapatuan, Bergarako San Antonioko plazan, Napar feria egin zuten. Bertaratu ziren artisauak ekarri zituzten produktuek izan zuten harrera beroena: etxeko ezti, zapore guztietako barkiluak, gazta mota ezberdinak, pastak... Angie DJak eta Alai Taldeak azoka girotu zuten eta Gabonetako postalen 10. lehiaketa ere izan zen. 3-6 urte artekoen mailan,

Asier Telleria izan zen irabazlea; 7-9 urte artekoetan, Amets Uribesalgo; eta 10-12 urte artekoetan, Markel Bolbatua. Poniak eta zezentxoak ere izan zituzten txikienek ondo pasatzeko.

VII. sukaldaritza lehiaketa ere izan zen. Partaideek saiheskia patatekin prestatu zuten, eta irabazlea Gure Ametsa elkarteak izan zen. Bigarren, Artatse elkarteak geratu zen eta hirugarren, Lasai-Toki.

Bazkaltzeko, ferian parte hartu zuten artisauak zein lehiaketan aritu zirenak batu eta Gure Ametsa elkarteak bazkari ederra egin zuten lagun artean.

Bigarren artisau azoka Oñatin

Oñatin, artisau azoka izan zen zapatuan. Guztira herriko 10 postu zeuden udaletxearen arkupe azpian, eta jende asko batu zen, herritarren abileziak ezagutzeko.

Elgetako jostailu-trukea

Domekan berriz, Gabonetako jostailu-truke azoka izan zen Elgetan. Hainbat gaztetxo hurbildu ziren plazara eta bertan, mahai-joko, panpin eta apaingarrien artean gustura ibili ziren. Astean barrena eskolara eramandako jostailuen truke, txartela jasota zuten gaztetxoek, eta txartel hori beste jostailu batzuegatik trukatu zuten atzoko azokan.



Axtroki merkatariek giro bikaina jarri zuten herriko plazan. | IMANOL BELOKI



Bergarako San Antonioko plazako Napar ferian hainbat artisau produktu izan ziren. | IMANOL SORIANO



Oñatiko artisauen bigarren azokako eskulanak ikustera jende asko gerturatu zen. | IMANOL SORIANO



Elgetako jostailu-truke azokan hainbat gaztetxo batu ziren jostailuak trukatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL

Pertsonak lehentasun eta enplegua ardatz dituen udal aurrekontua onartu dute

EAJren eta PSE-EEren kontrako botoekin, herritarren beharrak asetzen ez dituela iritzita

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2015eko udal aurrekontua iazkoa baino %2,54 txikiagoa izango da, 31.525.278 eurokoa. Diru gutxiago izatearen arrazoiak bi dira, nagusiki: aurten ez dela iaz izandako ohiz kanpoko sarrerarik espero -2014an Gipuzkoako Aldundiak Takolo-Goiru errepidea eskualdatzerakoan ia milioi bat euro transferitu zion Udalari- eta gastuei zein sarrerei eutsiz zorpetzea kontrolatu gura izan dela. Honakoak izango dira lerro nagusiak: gizarte egoera ahulean daudenak babestea, enplegua sortzea, gastu arrunta arrazionalizatzea, herritarren zerga karga ez gehitzea eta finantza zorra kontrolatzea eta murriztea.

Bilduk eta Aralarrek osatzen duten Udal Gobernuaren aldeko botoekin (12) eta EAJren (4) zein PSE-EEren (3) kontrakoekin egin zuen aurrera proposamenak abenduaren 18ko osoko bilkuran. Aritz Arrieta sozialistaren arabera, aurrekontuek ez dituzte arrasatearren beharrak asetzen: "Uste dugu enplegua oso garrantzitsua dela eta krisiaren aurkako neu-

DATUA
31.525.278
EUROKO UDAL AURREKONTUA
2014koa baino %2,54 gutxiago izango du Udalak Arrasateko kudeatzeko: Udal zerbitzuetara joango da aurrekontuaren gehiengoa (%36,28): 11.436.000 euro inguru.

rriak hartu behar direla; iaz Udal Gobernuak eta EAJk lortutako akordioak porrot egin duela garbi geratu da".

EAJ: "Ez dago iazko sintoniarik" Jeltzaleek, berriz, ez dute iazko sintoniarik ikusi Udal Gobernuaren partida nagusietan eta horregatik eman diote ezezkoa zirriborro osoari: "Iaz adostutako hainbat gai ez dira bete; adibidez, lur azpiko edukiontzia konponetzearena, haurrentako parke estali bat ipintzearena... Gainera,



2015eko udal aurrekontua onartzeko bozketak: Bildu eta Aralar alde (12) eta EAJ (4) eta PSE-EE kontra (3). | J.B.

guk iaz eskatu genuen enplegarako partida handitzea eta aurten, berriz, txikitu eginda; enplegua lehentasunezkoa da guretako. Bilduren eredu oinarritutako aurrekontuak dira eta gure lehentasunekin ez datoz bat. Horregatik ezezkoa eman diogu", esan du Maria Ubarretxena zinegotziak.

Udal Gobernuak legegaldi hasieran markatu zituen lehentasunak mantendu ditu datorren urterako ere: "Batetik, gizarte egoera ahulean dauden pertsonen behar

dituzten zerbitzuak ematea; partida handiena gizarte zerbitzuetara bideratu dugu. Bigarrenik, enplegua dago. Iaz oso inbertsio handia egin genuen enplegua sustatzeko eta eman ditu fruituak. Aurten jaitsi egin dugu, baina arrazoiak da Jaurlearitzaren ekarpenaren zain gaudela; guk 2015erako zenbat eman dezakegun aurreikusitako dugu eta orain Jaurlearitzaren zain gaude, harena baita enpleguaren eskumena", dio Udal Gobernuak legegaldi hasieran markatu zituen lehentasunak mantendu ditu datorren urterako ere: "Batetik, gizarte egoera ahulean dauden pertsonen behar

Inbertsio nagusiak

Inbertsioei dagokien, honakoak dira 2015era begira nabarmendu beharrekoak: Udal azoka biziberritzeko 200.000 euro, San Josepe berriro urbanizatzeko lehen azpifaserako 310.000 euro, Udala auzoko urbanizaziorako 410.000 euro eta Takolo-Goiru zeharbidearen proiekturako 770.000 euro.

Era berean, finantza zorra 2011tik 2015era sei milioi eurotan amortizatu izana ere azpimarratu zuen Morrasek.

NIRE USTEZ

OSCAR RODRIGUEZ



Gure txanda da

Duela egun batzuk Estatu Gobernuak <http://transparencia.gob.es> webgunea aurkeztu zuen. Han eta hemen kritiken artean eman zaio harrera PPK lideratzen duen Gobernuaren ekintza, inork ez duelako ahazten alderdi horren baitan, gardentasunik eza dela-eta, hainbat ustelkeria kasu egon direla... eta ezagutzen ez ditugun zein beste egongo dira ere!

Webguneari azterketa txiki bat eginez, egia da datuak falta direla (adibidez, Gobernuaren 200 goi karguen soldatak), eta ez dela hain erraza informazio konkretu batzuk ikustea (adi-

bidez, Aurrekontu Orokorren exekuzioa Egin diren kritikak, zentzu horretan, egokiak dira, eta hainbat hobekuntza egin beharko lirake informazioa era sinpleago baten lortzeko.

Baina nire uste apalean, ekintza bera, *per se*, ezin dugu zaborretara bota, inondik inora! Herri-administrazioak enpresa pribatuekin egiten dituen kontratazioak, Gobernuaren egutegia egunez egun, alderdi eta fundazioei ematen zaizkien diru-laguntzak, goi karguen soldaten kontua...

Eta beste gai asko aipatzen jarrai genezake, GOIENA aldizkariaren datozen bizpahiru urteetako orrialdeak bete arte. Gardentasuna da hiri partaidetza eta gure sistemaren hobekuntzarako lehen baldintza. Kexatzea ondo dago, baina erakundeak kritikatzear gain, orain gardentasunaren ertzainak bihur gaitezke. Hiritargoaren txanda da. Gure txanda da. Gabon onak pasa!

Santamasak direla-eta autoen zirkulazioa eten egingo dute gaur herriko zenbait errepidetan

Santamasak direla-eta autoen zirkulazioa eten egingo dute herriko zenbait gunetan. Biteri etorbidea atzo ezker (15:00) itxita dago eta gaur egun osoan zehar egongo da itxita. Garibai etorbideetik ere ezingo da autorik pasatu gaur, egun osoan. Era berean, Garibaiko autobus geltokia Hotel Mondragon ondoan egongo da.

Kirola eta osasuna oparitzeko eskaintza berezia egin du Aukeak

Askotariko ekintzak egiteko aukera Musakolako kiroldegian, "prezio onean"

J.B. | ARRASATE

Urtero moduan, Gabonetarako eskaintza berezia egin du Aukeak. "Adin eta gustu guztiak" asetzeko moduko eskaintza dute Musakolako kiroldegian, 15,60 eurotik hasita: patinajea, nordic walkinga, aquagyma, matrogyma, igeriketa, k-stretcha, pilatesa, hipopresiboak, body balancea, body pumpa, spinninga, zumba, kid pilatesa, aktiba 55+ eta gimnasia eta igeriketa egokituak, besteak beste.

Aukea kirol erakundea -hilaren 19ko osoko bilkuran onartu

zenez, datorren urtean Udaleko parte izatera pasako da- Gabonei begira jarrita dago: "Abonatu eta kirolzale guztiei opari eder eta osasuntsuak egiteko aukera ugari prestatu ditugu. Poltsiko guztietara egokitzen den oparia da, 15'60 eurotik hasita ekintza ugari baitaude kanpoan, barruan zein igerilekuan egiteko".

Musakolako kiroldegira jo

Argibide gehiagorako honako telefono honetara deitu beharko du interesatuak: 943-77 16 77.



Igor Isasi, iazko kanpainan. | GOIENA

Gabonei ondoetorria, kantuan eginda

Gabonetako oporrak hartu aurretik kantaldia egin zuten Arrasate Herri Eskolako umeez hilaren 19an. Bedoñaben, Olentzero, Hator, hator, Bizaruri eta halako abestiak kantatu zituzten haurrek, guraso edo senitartekoen begiradapean.



JOKIN BEREZIARTUA

Arrasateko titulatu berriendako lan-poltsa zabalik dago oraindik

Hamabi proiektu daude martxan; hala ere, hilaren 30era arte eman daiteke izena lan-poltsan

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Arrasateko Udalak, Saiolanekin batera, titulatu berriendako programa jarri du martxan, 2014ko Enplegu Planaren barruan. Programa hori arduratzen da duela bi urtetik gaur arte titulatu diren arrasatearrei sei hilabeterako lan eskaintza aurkitzeaz. Aurtengo deialdian 12 proiektu jarri dira martxan eta hilaren 30a arte dago izena emateko epea zabalik.

12 proiektu, 12 enpresatan

Urriaren lein jarri zen martxan programa eta 44 pertsonak eman zuten izena. Horietatik, beka jasoko duten 12 pertsona aukeratu dituzte, inguruko 12 enpresa txikitik proiektuak garatzeko. Aipatzekoa da, kooperatibak ez diren enpresak bultzatu dituzte la proiektuan parte hartzeko; 12 horietatik bi bakarrik dira Mondragon taldekoak. Sarrailagintza, IKTak, makineria, produkzio mikroteknologikoa, ikerketa eta garapena, gatzaren ekoizpena eta enpresako zerbitzu aurreratuen inguruko proiektuak izango dira. Bada, 50.000 euroko aurrekontua zuzendu du Udalak 12 proiektu horietarako; sei hilabetez, 800 euroko diru laguntza jasoko dute programako proiektuetako beka-dunek.

Bi helburu nagusi

Hori horrela, programa horren helburu bikoitza bistakoa da: alde batetik, Arrasateko titulatu berriei lan esperientzia garatze-ko aukerak ematea bertako enpre-



Saiolan eta Udaleko kideak, aurreko asteko prentsaurrekoan. | A.L.

setan; eta bestetik, herriko enpresen sareari, bertako titulatuak profesionalki ezagutzeko eta euren lanaren ekarpena eskuratzeko aukera zabaltea.

2015ean jarraitzeko asmoa

Datorren urtean Enplegu Planarekin jarraitzeko asmoa du Udalak. Horrenbestez, beken programa horrek ere izango du jarraipena eta titulatu berriak direnak animatu gura ditu Udalak poltsan izena ematera, "lan esperientzia garatzeko aukera interesgarria izan daitekeelako".

Santamasetako pilota jaialdia egingo dute gaur arratsaldean

A. L. | ARRASATE

Asteburuan zehar pilotak protagonismoa izan du Arrasaten. Arrasate Pilota Taldekoek santamasetako finalak jokatu dituzte, eta, horretaz gainera, klubeko gaztetxoek ere hainbat final izan dituzte, kanpoan; hala ere, oraindik ez da frontoi giroa etengo.

Tradizioarekin jarraituz, gaur, hilak 22, santamasetako pilota jaialdia egingo dute, Uarkape pilotalekuan, 17:30ean hasita. Jaialdi horretan, bi norgehiagoka garrantzitsu jokatu dituzte: ikusgarriak izango diren partidua, duda barik. Aurten, jaialdi berezi samarra antolatu dute; beste modalitate batzuetako jarrai-

tzaileak kontuan izateko asmoz, hain zuzen ere.

Hasteko, munduko txapeldunak diren emakume palistak, bikoteka, partidua jokatuko dute: Miren Goikoetxeak eta Maider Mendizabalek Amaia Irazustabarrenaren eta Maite Ruiz de Larramendiren aurka izango dute partidua.

Bigarrenik, Aspeko pilotari profesionalak lehiatuko dira eskuz binakakoan: Aitor Mendizabal antzuolarra eta Iñigo Pascual, Aritz Lasaren eta Xabier Tolosaren aurka.

Sarrerek bost euro balio dute eta adingabeak, berriz, doan sartu ahal izango dira.

Urteko azken 'kooltur osteguna'-k Itziarren Semeak taldea ekarriko du Gabon egunerako

A. L. | ARRASATE

Joan den egunean Fly Shit talde bergararrak itxi zuen *Kooltur Ostegunak* egitasmoaren abenduko agenda. Izan ere, aurtengo kultura eskaintza luzatu guran, Gabon egunerako, hilaren 25erako, beste kontzertu bat antolatu dute: Itziarren Semeak talde bizkaitarra izango da gaztetxeko oholtzan instrumentuak astintzen.

Bestalde, urtarrilaren 8an izango du jarraipena bosgarren *Kooltur Ostegunak*-ek.

Kontzertu berezia

Antolakuntzatik adierazi dute, talde indartsu horrek jarraitzaile asko ditu Arrasaten. Nahiz eta ordu eta formatu berean izan, egunenokoa emanaldi berezia izango da; ezin dute ezer aurreratu, baina jai eta dantza giroa izango dira nagusi. *Revoluta* lanarekin etorriko da Itziarren Semeak: Europako ekialde eta Mediterraneoko doinuak euskal kantutegi tradizionalarekin nahastu dituzte ohiko *skapunk* saltsarekin.

Herriko gaztetxoek Gabonetan ere aisialdirako eskaintza zabala topatuko dute gazte txokoetan

KOMUNITATEA GOIENA | GAZTETXOKOAK | ARRASATE

Gabonetako opor garaian gazte txokoetan askotariko aukerak izango dituzte gazteek. Azken aste bukaeretan egindako batzarretan hainbat irteera proposatu dituzte; azkenean, hiru irteera antolatu ditugu. Hasteko, abenduaren 27an *Hontza Extem* abentura parkera joango gara (10 euro). Bigarrenik, hilaren 29an, Lastur aldera joango gara *paintball*-a egitera (15 euro).

Amaitzeko, abenduaren 31n, mendira joango gara, urteari agur esateko.

Horretaz gainera, gaztegu-nea irekita egongo da hilaren 26tik 30era. Eskaintza zabala eta hainbat aukera izango ditugu: Sustraiherri tailerra, Euskal Selekzioaren partidua, azken festa...

Irteeretara joateko, Gazte Bulegoan, gazte txokoetan edo Txatxilpurdin eman beharko da izena, hilaren 21 baino lehen.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



Futbol-kanpue eskaketako, 'manifestaziñue' herriko kalietan

San Juan egune zan. Mondrak Tolosaren kontra jokatu euen Gipuzkoako Kopako finala, eta irebazi egin euen mondruetarrek: 5-0.

Futbol-kanpue oingo Gelmaren eta ertzain-etxien artien euen, eta desagerketako puntuen; hortan, Mondra Gipuzkoako txapeldun izenda, futbol-kanpo barik geratuko zan ekipue.

23 egun lehenau, Jose Maria Arizmendiarietak Juventud Deportiva de Mondragon sortu euen; ez euen gure futbol-kanpue ixtie, eta dezididu euen txapeldunei merezitteko harrerie egittie eta, bide batez, futbol-kanpue eskaketie. Jugadorien bestuarixuek Maalan euzen; txapeldunek, dutxau eta jantzi ostien, plazara juen zien, musika bandiekin. Juventud Deportivakuek eta umiek, jokalarixekin, "iqueremos campo con vallau!" txillixoka juen zien kalietan, baitte Azurzaren etxe parien, plaza aurrien, ha zan-eta jabie. Ba, azkenien, Iturripekue egin arte, ez zan zaharra itxi.

Erretratue Banco Guipuzcoanoko hesittik atarata dau. Atzien, Monte tabernie; eskumakaldien, gasoliñerie eta prensa-kioskue.

Jon Iriberrri ala Gerardo Markuleta?

Larrosak, noizean behin lelengo liburue atara barri, bere ezizenaz egin euen berba Markuletak: "Ezizena erabiltzea eskizofrenia baten islada da; nire bizimoduarekin guztiz konforme ez nago. Nahiago izan dut pertsonaia bat asmatu eta pertsonaia horri benetako bizitzatik hurbilago nagoen uneetan sortutako idazlanak leporatu".

Poesia genero marginala zala argi euen: "Poesia irakurri eta idazten dugunak gutxiago gara, literatur komunitate txikia osatzen dugu, merkatu editorialean bazter baten gaude; horregatik esaten dut euskaraz poesia idaztea birpoesia egitea dela".



Erakusketan parte hartuko duten zenbait artista. | IMANOL GALLEGU

Eskuekin torneatuko artelan mostra Aroztegin

Zeramikaz eta buztinez egindako lanak urtarrilaren 11 arte ikusi ahalko dira

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Malgua bezain gogorra, arina bezain astuna eta hauskorra bezain iraunkorra. Zeramika edozein artistari hamaika irten-

bide edo buruhauste proposatzen dizkion materiala da, eta Bergaran duela urte batzuk hasi ziren material horri probetxua ateratzen. "Elkartek 30 bat urte

izango ditu", dio Bustinzaleak zeramika elkarteko kide Iñaki Olabarriak. Hiru hamarkada hauetan, eskua hartu diote materialari, eta ontzi edo hautson-

tzietatik urrun, abangoardia eta indar handiko lanak egitera iritsi dira. Eguaztenetik aurrera, gainera, aurten egindako lanak Aroztegi aretoan erakutsiko dituzte.

Guztiak lan ezezagunak

"Aroztegi lan berrienak erosten ditugu", esan du Olabarriak. Bihar ekingo diote mostra muntatzeari. Gehienak formatu txiki-kiko lanak izango dira, eta, zenbait kasutan, zeramika beste material batzuekin nahasita agertuko da. Irudimen eta pasioz betetako lanak ikusteko, Barrenkaleko aretora ohiko ordutegian joan baino ez dago.

Kide berriak

"Kide guztiek 40 urte baino gehiago ditugu eta gazteagoen premia dugu", esan du Olabarriak. Kideek materialari eskua hartu dioten arren, elkartean ez dago artista profesionalik, eta kide berriak filosofia honekin gerturatu nahi dituzte: "Niretzat, egunerokotik ihes egiteko tokia da hau". Ihes egin, eskua hartu, beste zaletasun bat probatu... Bustinzale zeramika elkartearen ateak proba egin nahi duen edozeinentzat daude irekita.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Zabor poltsak zintzilik

Eihoetatik zintzilik zabor poltsak ikusten ditugu. Hor daude etxeko eta kanpoko guztien agerian. Badirudi azken urteotan izan diren liskar eta marmarraz zertxobait baretu direla.

Balkoietako zintzilikario horiek ikusita burutazio tris-teak sortzen zaizkit. Bakoitzak, etxeko sukaldean sortzen ditugun zaborrak nahi dugun bezala botaz gero, zenbat urte edo mende iraun dezake gure bizilekua den lurra osasuntsu? Jakintsuek egindako ikerketek ez al digute aski frogatzen horrela jarraituz bizileku hau jasan ezina bihurtuko zaigula?

Ulertzen dut sortzen ditugun zaborrak birziklatzeko bitarteko bat baino gehiago erabil daitekeela, baina "nik beti egin dudana egingo dut" askori entzuten zaio. Bilboko alkateak (G.B.) Artxandako hondakinen tratamendurako eraikina inauguratu zenean esan zuen "hemendik aurrera etxeko zaborrak sartu poltsan eta jaurti ardura gabe zabor ontzietara, ez albokoak-gipuzkoarrak-dabiltzan bezala". Munduko alkate onena izendatua izan zen.

Aste honetan albiste on batek gozatu du gure gosaria. Gipuzkoa urte amaieran %45eko birziklatze mailara iritsiko da. 2016an, %60koa lortuko omen da. Gauzak horrela, zergatik, adibidez, trabak ipini Tratamendu Mekaniko Biologikoaren Instalazioari? Zergatik zapuztu nahi du oposizioak premiazkoa den ekin-tza? Etorkizuna jokoan dagoenean alderdikeriak antzuek ez ezik miserableak dira.

"Etorkizuna jokoan dagoenean alderdikeriak antzuek dira"

Kursaalera joateko doako autobus zerbitzua jarriko dute

Kursaal Eskura egitasmoa *Kantuz topa* izeneko kontzertuarekin abiaraziko dute abenduaren 27an. Doako autobusa jarriko dute kontzerturako sarrerak dituztenentzat. Autobusean tokia erreserbatzeko, kultura Saileko 943-77 91 59 telefonora deitu edo kultura@bergara.net helbidera idatzi behar da.



SAN MARTIN AGIRRE ESKOLA

Tapoi bilketa solidarioa

San Martin Agirre eskolan tapoi bilketa kanpaina jarri dugu martxan, ALIND/UBIE elkarteak egindako eskaerari erantzunez. Agenda 21 batzordeak sustatutako ekimena da, eta, tapoiekin batera, plastikozko ontzien zatiak ere batuko ditugu. Eskolako ikasle guztiei eta ikasle ez direnei ere laguntza eskatu nahi diegu; bakoitzak egin dezakeen apurrarekin gauza handiak egin daitezkeela sinesten dugulako.

KOMUNITATEA GOIENA |
SAN MARTIN AGIRRE | BERGARA

Gabonetako oporretan kartzela zaharra ekintzaz eta topaketaz beteko da

I.G. | BERGARA

Gabonetan atsedean hartzeko ezelako asmorik ez dute gazte-txean. Aste bukaeran ekin zieten Gabon garaiko ekintzei *Tatto Circus* topaketekin. Egitarau zabala eta ikuskizun bereziak izan zituzten asteburuan. Gabon egunetatik urte berrira arte ere bete-beteta egongo da gaztetxe-ko jardura.

Gabonetako ekintzak

Gabon egunean, 19:00etan, *Bizarzuri inperialista, hou, hou, hou!* antzezlanarekin hasiko dute egitaraua, eta ondoren, 01:00etan,

mojito gaua izango dute. 26an, Donbassekiko elkartasun eguna ospatuko dute, eta, hitzaldi eta kontzertuez gain, hara bidaltzeko materiala jasoko dute. Hurrengo egunetan bizikleta konponketa eta jostintza ikastaroak, zinekluba eta bakarrizketa izango dituzte. Urtea karaokearekin hasiko dute.

Urtarrilean ekintzek jarraitu egingo dute. 2an, 22:00etan, *Amets zirkua salgai* antzerkia egongo da eta egun bat geroago, 17:00etan, xake txapelketa. Ekin-tza sorta Errege bezperako jaierekin amaituko da.

Agorrosingo kiroldegian bizikidetza hobetzeko kanpaina abiarazi dute

I.G. | BERGARA

Herritar asko joaten dira egunero Agorrosinera, lan egunean 1.000 lagun inguru. Kopuru hori kontuan izanik, erabiltzaile guztiek instalazioak behar bezala erabili ahal izateko garrantzitsua da araudi minimo bat izan eta errespetatzea. Horregatik, kirol arduradunek bizikidetza hobetzeko kanpaina abiarazi dute.

Azkenaldian antzeman dituzten jarrera desegokiak amaitu, eta horiek zuzentzeko bidea da.

"Kanpainarekin, erabiltzaileei gogorarazi nahi diegu guztion ardura dela arauak errespetatzea", dio Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk.

Horretarako, urtarrilaren 11 bitartean, bizikidetza kanpaina egongo da martxan, eta egun hauetan informazioa banatuko dute. Egun horretatik aurrera, arau-haustek antzematen badira, arautegia "zorrotz" aplikatuko dute, eta bidezkoak ez diren portaerak zigortuko dituzte.



Agorrosingo sarrera nagusia. | GOIENA

Bergara Garbik laugarren aldiz helarazi dio gobernu taldeari atez atekoari buruz egindako galdeketa

Bosgarren edukiontzia aldeko plataformak duela zazpi hilabete bidali zizkion lehen aldiz gobernu taldeari atez ateko hondakin bilketa sistemaren inguruko zenbait galdera. Plataformako kideek azaldu dutenez, epe honetan ez dute erantzunik jaso eta horrek gobernuaren "utzikeria eta informazioa gordetzeko asmoa" argi erakusten duela diote. Euren ustez, besteak beste, kostuak, inbertsioak eta gastu korronteari buruzko galdeketa ez erantzuteak bilketa sistema "era inprobabilitatua" aukeratu zutela adierazten dute.

Udalak 2015ean izango duen aurrekontua: 16.742.688 euro

Goiena telebistan emitituko dute osoko bilkura gaur, 20:30ean



Eguenean egin zen osoko bilkurako une bat. | IMANOL BELOKI

IRATI GOITIA | OÑATI

16.742.688 euroko aurrekontua izango du Oñatiko Udalak datorren urtean, iazkoa baino %1,30 txikiagoa. 221.000 euro gutxiago izango ditu, hain zuzen. Eguenean eginiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak datorren urterako aurrekontua, Bilduren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen. "Gure ustez, aurrekontu onak dira, orekatuak. Udalaren egoera finantzario-ekonomikoa saneatua da eta hori seinale ona da", adierazi zuen amaieran Mikel Biain alkateak. Hain zuzen, kontu-hartzaileak zehaztu zuen krisian egonda aurrezki arrunta positiboan izatea oso adierazle garrantzitsua dela, eta 2008a ezker mantentzen dela positiboan. "Guk abstentziora jo dugu. Bilduk egin dituen proposamenak onartu ditugu eta ez ditugu kritikatu. Baina gu gureak defendatzeraz etorri gara. Egin ditugun batzuk onartu dizkigute eta beste batzuk ez. Beraz, gu ere erdibidean gera-

tu gara", esan zuen Lourdes Idoiak, EAJko bozeramaileak.

Inbertsio aipagarrienak

Udal Gobernu taldeak adierazi dute saiakera berezia egin dutela gastu sozialak mantentzeko edo indartzeko. "Nik uste dut lortu dugula gai sentsibleenak ez ukitzea: gizarte zerbitzuetarako laguntza, larrialdietarako, babesik gabeko egoeran daudentzat bideratzen dena, etxerako zerbitzura emandakoa...", esan zuen Biainek. Hain zuzen, etxerako zerbitzura bideratuko da partida garrantzitsuenetako bat: 661.400 euro. Aipagarriak dira baita ondorengoak ere: gazteek etxebizitzak alokatzeko laguntza programarako 108.000 euro eta Musika Eltzia gauzatzeko 300.000 euro.

Arloz arlokako sailkapenari dagokionez, besteak beste, ondorengoak proposatzen dira: sozioekonomian, herriko merkataritza bultzatzeko proiektuekin jarrai-

tuko dute. Hala, moneta sozialaren hirugarren faseari ekingo diote urtarrean. Arreta sozialean, eguneko zentroan bost plaza gehiago egokitzea eskatuko diote Aldundiari. Lurralde antolamenduan, egoera okerrean dauden auzoak urbanizatzen eta irisgarri bihurtzen jarraituko dute, hala nola San Lorentzo eta Errekaldeko lanen fase berriak gauzatu, Olabarrieta eta Ugarkalde bidegorriz lotu, Olabarrietako errepide azpiko pasabidea egin, ibilbide natural historikoak berreskuratu eta eraztun berdearen proiektua osatu. Hezkuntzan, berrikuntza modura, Oñatiko Herri Curriculum eta Eskolara Oinez egitasmoak aurrera eramatea jasotzen da.

Enpleguaren sustapena izango da 2015eko aurrekontuetako beste zutabeetako bat. Hala, hainbat proiektuz gain, hiru kontratazio hazten dira: gizarte zerbitzuetako zuzendari teknikoak, berdintasun teknikaria eta parte-hartze teknikaria.

EAJren eskaerak

Kirol arloko aurrekontuak izan du jaitziera handiena datorren urteko aurrekontuan. Eta, hain zuzen, hor erakutsi zuen EAJk desadostasun handiena. "Urteak daramatzaguz atletismo pista eskatzen. Guk uste dugu ez dagoela zailtasun handirik Urrutxun horrelako bat egiteko. Bestalde, nahiko genuke padel kantxak egiteko proiekturako dirua bideratzea, 2016an exekutatu ahal izateko", esan zuen Idoiak. Bestalde, jeltzaleek eskatu zuten etxebizitzak eraberritzeko laguntza plan bat -Suradesak eskaintzen duenaz gain- eta pasealeku naturalen -Zuazola, Torreauzo edo Asentzio- zerbitzuek jartzea eserlekuekin eta komunekin.

Gauzatzeko mailan eztabaida

Osoko bilkuran eztabaida sortu zuen puntuetako bat inbertsioen gauzatzeko maila izan zen. "Gure ustez, momentu honetarako exekutatu egon beharko litzatekeen

kopurua ez da bete. Hala ere, ez gara polemikan sartuko. Gaineratu dugu iazkoa baino hobea izan dela", adierazi zuen Idoiak. "1.600.000 eurotik 1.400.000 exekutatu daude dagoeneko. Oposizioak aipatu duen %57a baino ehuneko altuagoa da hori. Guk uste dugu gauzatzeko maila egokia dela", erantzun zuen Biainek.

Hiru helegite

Hiru presazko gai ere landu zituzten eguneko osoko bilkuran; hiru helegite, hain zuzen. Lehenengo, gobernu ordezkariak eta estatuko abokatuak Udalaritari jarritakoa azaroaren 7an estelada bat fatxadan jartzearen. Bigarrena, Eroskik jarritakoa, Udalak Arantzazuko Ama kalean gasolindegia jartzeko baimena eman ez izanagatik. Eta hirugarrena, EAJk aurkeztutakoa San Martingo plan partzialaren behin betiko onarpenaren aurrean. Hiru kasuetan prokuradoreak eta abokatuak izendatu beharko dira orain.

Ekintzaz beteta dator Txaloka ludoteka Gabonetan ere

Gaurko zine erraldoiarekin hasiko dira ekintzok; 16:45ean egingo dute hori. Bihar, ordu berean, sorkuntza tailerra izango da ludotekan bertan eta abenduaren 29an, zapatuan, talo tailerra, 10:30ean. Hilaren 30ean, bestetik, Wii tailerra egingo da, 10:30ean hori ere, eta urtarrilaren 5ean jolas kooperatiboak egingo dituzte, 10:30ean hasita.

Screamers & Sinners eta Malenkonía, Pako tabernan Gabonetan

Abenduaren 28an, domekan, 22:00etan, Screamers & Sinners talde arrasatear-aretxabaletarrak kontzertua eskainiko du Pako tabernan. *Demon Tales* azken lanarekin etorriko da Oñatira rock-and-rolla, punka eta country lantzen dituen taldea. Bestetik, hilaren 30ean, martitzena, 19:30ean, Oñatiko Malenkonía taldea izango da ikusgai. *Homo Homini Lupus* lana aurkeztuko dute oñatiarrek.

Oñatiko udaltzain bat zigortu du Gipuzkoako Auzitegiak isunen dirua bereganatzeagatik

Ondasun publikoa bidegabe erabiltzeagatik urtebete eta bederatzita hilabeteko zigorra ezarri diote

M.A | OÑATI

Joan den astean ebatzi zuen Gipuzkoako Auzitegiak isunen dirua bereganatu eta ondorioz ondasun publikoa bidegabe erabiltzeaz akusatuta zegoen udaltzainari urtebete eta bederatzita hilabeteko kartzela zigorra ezartzea. Ez hori bakarrik: 637 euroko isuna ere ipini dio Auzitegiak, eta urtebetez kendu dio profesionalki jarduteko aukera. Bada, bi urteko kartzela zigorra baino txikiagoa izanik, ez du kartzelara joan beharrik izango. Sententzia hori behin betikoa da, eta, horrenbestez, ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

Auzipetuak adostasuna agertu du probintziako fiskalak eta Oñatiko Udalak eskatutako

zigorrarekin; izan ere, azken horren arabera, "epaitegiatarajota, auzipetuarekin akordiora iritsi" dira.

Isunen tramitazioa

Izan ere, fiskalaren testuaren arabera, zigortutako udaltzainaren jarduna zen isunak tramitatzeko; hain zuzen ere, prozedura guztia, hasieratik bukararaino zen haren lana. Bada, Gipuzkoako Auzitegiaren arabera, udaltzainak hiru salaketaren dirua bereganatu zuen: guztira, 130 euro.

Urtebeteko etenaren ostean, Udalak berriz ere hartu beharko du lantaldean. Legez dago horretara behartuta. Udalak erabakiko du, baina, zein postutan ipintzen duen.

NIRE USTEZ

IÑAKI IDIGORAS



Kooper Aktibistak 2.0

Auzolana komunitateen oinarritzeko zeregina da, munduan eta Euskal Herrian. Doako lanaren bidez denontzako onuragarria den zerbitzu gauzatzea da auzolana.

Erdi Aroan komunitateen eraketan aldaketa sakonak eman ziren. Ordukoak ditugu Foruak eta Batzar Nagusiak, partaidetza oinarritutako demokraziaren adibide.

1950 inguruetan Arrasateko Esperientziaren lehen fruituak jaso genituen. Joxe Azurmendik *El hombre cooperativo* lanean argitzen du zein pentsamendutatik sortu zen esperientzia hori.

Arizmendiarririk ez zuen

kooperatibismoa asmatu. Gazteak formazio sozial sakon batekin jantzi zituen. Ez dago kooperatibismorik izpiritu kooperatibo gabe, elkarlan, auzolan gabe.

Zer osasun dauka egun izpiritu horrek? Enpresa kooperatiboak merkatuen erronkara moldatzen jardun dugu, eta merkatuen balore bakarra zein den ongi dakigu.

Krisi ekonomiko eta kooperatibotik ateratzeko garaiak dira. Ez da beste Arizmendiarririk izango. Lidertza bera ere auzolanen ematen da egun.

Mekanismoak gure esku ditugu (kontseiluak, batzarrak) ardurara postuak dituztenekin oinarrien babes eta bultzadarekin ahalduztuko (begiratu Kataluniara).

Partaidetza, elkartasun, garrantasun eta beste balio batzuen zerbitzura dauden mekanismook eguneratzeko garaia ere bada, ordenagailu, internet eta sare sozialak gure zerbitzura ipintzeko.

"Bizitasunaren ezaugarria ez da irautea, biziberritzea eta egokitzea baizik". Ongi etorri Kooperatibistak 2.0 auzolanera.

Ekintza ugariz betetako Gabonak Aretxabaletan

- ▶ Olentzero eta Mari Domingi, Bizartzuri eta Erregeak izango dira, urtero lez
- ▶ Tobera antzerki satirikoa eta Gabonetako futbol torneoa ere izango dira

IMANOL BELOKI | ARETXABALETAKO

Abenduaren 24tik urtarrilaren 5era arte, Gabonetako hitzorduak eta beste hainbat izango dira Aretxabaletan.

Gabonei hasiera emateko, abenduaren 24an Gabon kantak izango dira herriko plazan, 10:30ean. Hala, herriko eskolako irakasle, guraso eta 3-6 urte bitarteko haurrak baserriar jantzita irtengo dira Gabon abestiak kantatzera, herria alaitzera. Udalak herritarrei eskatu die umeez kantuan bukatu arte gozokirik ez botatzeko.

Ondoren, Mari Domingi eta Olentzero ikusteko aukera izango da herriko plazan. Izan ere, hilaren 24ra arte, udaletxeko atarian egokitu dieten etxolan daude ikusgai biak, baina 24an arratsaldean etxola utzi eta kale-rik kale ibiliko dira herrian barrena gozokiak banatzen eta umeen eskariak jasoz. 18:30ean, Ibarra kirol etxetik Leizarra musika eskolako txistulariek lagunduta irtengo dira.



Argazkioinaxxxx. | ARGAZKILARIAxxx

Gabonetako kontzertua

Aretxabaletako abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du abenduaren 27an, 19:30ean. Emanaldia parrokiaren izango da, Angel

Barandiaranen gidaritzapean. Gabonetan ohikoak diren kantuekin alaituko dute parrokiak: *Ave Maria, Alleluia, Oi Betlehem* eta halako abestiekin.

Inuzente Egunean, tobera

Abenduak 28an, berriz, Inuzente Egunean, barre egin nahi duenarentako, tobera antzerki satirikoa izango da Ibarra kiroldegian. Bertan, Eskoriatzak Aretxabaletan epaituko du, 19:00etan, eta sarrerak 8 euroren truke eros daitezke: Aretxabaletan, Arkupen; Eskoriatzan, kiroldegian; Arrasaten, Ttukunen; Bergaran, Pol-Polen; eta Oñatin, Txokolateixan.

Bizartzuri kaleetan zehar

Urteko azken egunean, abenduak 31, Bizartzuri izango da kaleetan zehar umeen eskutitzak jasotzen. Ibarra kirol etxetik irtengo da, 18:30ean, herriko ikastetxeetako guraso elkartearen eta Leizarra musika eskolakoekin laguntzaz.

Gabonetako futbol torneoa

Arizmendik antolatutako emakumeen futbol txapelketan, senior mailako Reala, Athletic eta Debagoieneko Selektzioa egongo dira aurrez aurre urtarrilaren 4an. Aurreko egunean, berriz, alebin, infantil eta kadete mailako partiduak jokatuko dituzte.

Errege kabalgata

Urtarrilaren 5ean Errege kabalgata izango da, 10:30ean, Ibarra kiroldegian hasita. Hor ere, hitzordua osatzen, Leizarra musika eskolakoak izango dira guraso elkartearekin batera. Hala, umeez eta gurasoekin ongielortu egingo diete Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege magoiei.

Joseba Iñurrategi frontoia margotu dute herriko gaztetxoek

I.B | ESKORIATZAKO

Hezkuntza Foroak bultzatuta, Joseba Iñurrategi frontoia apaindu dute herriko hainbat gaztetxok, familiakoen laguntzarekin. Giro aparta sortu zen eta erositako pintzelak ez ziren nahikoak izan joan ziren guztiei banatzeko, 40 lagunetik gora batu ziren-eta etxeko arropa zaharrak jantzita paretak apaintzeko. Lan bikaina egin zuten guztien artean; txikiak hitzak betetzen eta magoak ikusten ari ziren bitartean, nagusiek profilatze lana eginda lana banatuz. Hala, antolatzaileak

gustura geratu dira emaitzarekin, eta eskerrak eman dizkiete parte-hartzaileei eginiko lanagatik.

Ekintza horrekin, Udalaren helburua auzolana sustatzea da, herritarrek batuz, lan eginaz, herriaren parte sentitzeko.

Pilotaren inguruko esaldiak

Pilotarekin lotutako hainbat esaldi idatzi dituzte pilotalekuko paretetan. *Dejada, motz, buruz buru, falta, sentitu, egin eta pentsatu, zabalean, luze, sakea, sota-manoa, txokoan, errebotea* eta halakoak idatzi dituzte.



ALDAYPE

Aldaypekoen postu garbiketa

Abenduaren 12 eta 15ean Aldaypekoek ehiza postuen garbiketa egin zuten. 12 poltsa batu zituzten kartutxo hutsak jasoz. Hala, urtero urtero, postuak garbiago mantentzeko kontzientzia areagotu dela ikusi dute eta laguntza eskaini zutenei eskerrak eman nahi dizkiete batzordetik.

Hilaren 22an eta 23an jostailuak banatuko dituzte Arrasaten

Gaur eta bihar banatuko dituzte jostailuak, Debagoienean beharra duten haurrentzat, Eskoriatzako Joseba Iñurrategi frontoian. Egubakoitzean izan zen jostailuak ezarritako guneetara eramateko azken eguna. Hala, beharra duten guztien artean banatzeko, jostailu gehiago izatea espero da abenduaren 22an eta 23an.

Joseba B. Lenoir Duok kontzertua eskainiko du Inkernu tabernan

Urtero bezala, abenduaren 25erako, ajea kentzeko, kontzertua antolatu du Aitzorrotz Kultur Elkarteak, Inkernu tabernan. Joseba B. Lenoir Duoren emanaldia izango da, 23:00etan hasita. Joseba Baleztena eta Felix Buff izango dira oholza gainean; blues, folk eta rock doinuak, esperimintaziorako jauzia erakutsiz, loop eta pedalen bitartez.

NIRE USTEZ

HECTOR PRIETO



Emakumea historian zehar

Beti esan izan da historia garaileek idazten dutela eta hori, nire ustean, ez dago errealitate oso urrun. Hala, mendeetan zehar zapaltzaileek erabili egin dituzte galtzaileak.

"Ahaztu" horiek historia-rik kanporatuak izan dira bidegabeki; horien artean emakumeak daude. Biztanleriaren erdia izan arren ez dira era justuan tratatu, ezta historian ere. Begira diezaiegun erregeei, iraultzaileei, artistei eta beste askori, guztiak gizonak.

Aurreko batean deskubritu nuen Mercedes Sosak abestutako kantu bat, *Juana Azurduy* izenekoak. Borrokalari horren historia kontatzen da; 1780. urtean jaioa, espainiarren aurka borrokan jardun zuen XIX. mendean eta lau seme-alaba eta senarra galdu zituen egungo Bolivia askatzeko gerran. Senarrari lagun egin zion borroka guztietan, eta hori hil zenean gerrillari-rik, batez ere indiarrek, osatutako talde txiki baten buru jarri zen. Simon Bolivarren historia interesgarria dela baderitzozue, mesedez, irakur ezazue emakume horren gaineko zertxobait, bakarrik justizia egiteko bada ere.

Ikusi duzue, patriarkatuaren zapalkuntzaren tentakuluak gune askotara iristen dira, baina zorionez, emakume eta gizon askok egunero-egunero jarduten dute borrokan berdintasuna posible izan dadin.

Nik bat egingo dut, eta zuk?

"Mesedez, irakur ezazue emakume horren gaineko zertxobait"

ZUZENKETA

Joan den eguaztenean Aretxabaletan izandako ezohiko osoko bilkuran PSE-EEko zinegotzi Jorge de Castrok esandakoak ez ziren ondo jaso Goiena paperean. De Castrok ez zuen esan 2011n mankomunitateak gutuna bidali zuenik, baizik eta honakoa: "2011n Ana Bolinaga alkateak bidali zuen gutuna mankomunitatera atez ateko bilketa sistema jartzeko asmoa zutela esanaz".



Gurasoak eta haurrak Eskoriatzako frontoia margotzen. | GOIENA



Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladako gaur egungo kideetako batzuk. | A.T.G.A.

ARAMAIO

"Herriko gazteek kudeatuko duten leku propio baten beharra ikusten dugu"

Gazte Asanbladak hamar urte beteko dituela ospatzeko, abenduaren 26rako zenbait ekintza antolatu dituzte; sorpresak ez dira faltako, aurreratu dutenez

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Abenduaren 26an hamar urte beteko ditu Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak, eta egun horretan bertan egingo dituzte urteurrenako ospakizunak: 17:45ean goiko tabernetatik Bizente Goikoetxea plazara jaitsiko dira trikiti doinuez lagundutako kalejira eta 18:00etatik aurrera argazki erakusketa jarriko dute Sastiñan, hamar urteotako erretratuz osatutakoa. Gero, 19:00etan, aurkezpen ekitaldia egingo dute eta, aurreratu dutenez, ekitaldi horretan "sorpresaxoren bat" egongo da. Lunchik ez da faltako eta ondoren, 19:30ean, hileroko azken egubakoitzeko kontzentrazioa joateko deia egin dute, euskal presoen eskubideen defentsan.

Kultura etxeko lokal "txiki" baten elkartzeko dira, beste talde batzuekin partekatzen dutena: "Gaztetxe baten edo herriko gazteek kudeatuko duten leku propio baten beharra ikusten dugu. Tabernaz gain ez dugu elkartzeko lekurik eta urteroko ekintzez aparte beste hainbat ekintza antolatzen

gure leku propioa izatea gustatuko litzaiguke: ipuin kontalariak, hitzaldiak, tailerrak, pelikulak, kontzertuak, erakusketak, bazarriketak...", diote ATGAkoek.

Hainbat ekintza urte osoan

Asanbladan "nahiko jende gutxi" badira ere, herriarendako askotariko ekintzak antolatzen "gogo handiak" dituzte: "Ez bakarrik gazteendako, beste hainbat adin tartetako jendearendako ere antolatzen ditugu ekintzak". Aratus-

teetako kalejira eta bazkaria, Eguzkierripa Rock jaialdia—"Aramaioko Gazte Eguna", diote—, San Martin jaietako ekintzak—kuadrillen arteko pikea, kasu— eta Erretiratuen Eguneko talo postua dira, besteak beste, ekintza horiek.

Udalarekin harremanik ez dute apenas: "Zaila ikusten dugu harremana sendotzea, baina ez da ezinezkoa. Udalaren laguntzarik ez badugu gure kabuz eraman beharko dugu aurrera proiektua; oraingoz, baina, proiektua da".



San Martin jaien barruan Kuadrillen arteko pikea antolatzen dute urtero. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak mantendu egingo dira Gabonetan

Labidea zerbitzua egunero egongo da; bestalde, Gatz Museoa hilaren 24an bakarrik itxiko da

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA
Gabonak orpoz-orpo daude eta horiekin batera opor egunak. Hala eta guztiz ere, Udalak herritarrendako eskaintzen dituen zerbitzu minimoak mantendu egingo ditu.

Udaletxea egun gehienetan irekita egongo da, lanaldi normalarekin, nahiz eta egun batzue-

tan, oruditegi mugatua izango duen. Abenduaren 24an eta 31an, Gabon eta Eguberri bezperetan, 09:00etatik 12:00etara egongo da zabalik. Bestalde, hilaren 25ean, 26an, urtarrilaren 1ean, 2an eta 5ean, Errege Eguna bezpera, itxita egongo da.

Aipatzekoa da, bestalde Labidea zerbitzua guztiz mantenduko

dela; horrenbestez, egunero egongo dira taberna zein turismo bulegoa irekita.

Gatz museoa ere, irekita

Esan bezala, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuek egun gehienetan lanaldi normala izango dute; hori horrela, Gatz Museoa ere bere zerbitzua eskaintzen jarraituko du. Azpimarratzekoa da, bisitarik jaso ezingo den egun bakarra hilaren 24a, Eguberri bezpera izango dela; gainontzeko egunetan ordutegi bera mantenduko da. Horrekin batera, gogoraztekoa da, Gatz Museoa gatzaren produkzioari datorren hilean ekingo diola.

ELGETA



LARRAITZ ZEBERIO

Zabalik berriro erdiguneko bidea

Aurreratuta daude ibilgailuen abiadura murrizteko eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko Udala eta Aldundia Elgetan egiten ari diren lanak. Aurreko astean zirkulazioa itxita egon zen herri erdigunetik igarotzen den GI-2632 errepidean lau egunez. Tarte horretan asfaltatze lanak egin dituzte. Orain, maila berean daude espaloiak eta zirkulazio-errailak eta autoek muinotxo bat gainditu behar dute erdigunetik igarotzeko. Semaforo sistema berria egokitzea gelditzen da orain. Dagoeneko ezin da Eibartik etorri eta zuzenean erdiguneari sartu; kiroldegiko biribilgunera egin behar dute ibilgailuek.

Olentzerok jakinarazi du bihar, martitzena, etorriko dela Elgetako umeen gutunak jasotzera

Aurten ere abenduaren 23arekin jaitsiko da Olentzero Intxorta menditik. Iluntzerako espero dute herrian asto eta guzti, eta gutunak jasotzearekin batera gozokiak banatuko ditu neska-mutikoen artean. Aurretik, txokolate beroa banatuko du Maala guraso elkarteak. Biharamun goizerako ere dei egin dute guraso elkartetik. Urtero moduan, Gabonetako kantak abestera irteteko dei egin dute. Eskolan elkartzeko dira 10:00etan. Aste bukaerarako, berriz, DJ festa—hilak 26, 18:00etan—, familiendako mendi irteera—hilak 28, 10:00etan— eta Herrixa Dantza—hilak 28, 19:00etan— iragarri ditu Udalak.

ANTZUOLA

Txistor-pintxoak Landatxope elkartearen

Dastatzearen ostean, karta-joko txapelketetako sari banaketa ekitaldia egingo dute, 17:30ean

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Landatxope erretiratuen elkartearen festa giroa izango dute nagusi gaur, astelehena. Gabonen aurretik azken ekintzak egingo dituzte: 17:30ean txistor-pintxoak banatuko dituzte bazkideen artean. 72 lagunendako pintxoak egingo dituzte.

Gero, abendu hasieran jokatutako karta txapelketetako sari banaketa ekitaldia egingo dute. Andoni Egañak eta Jesusa Etxanizek irabazi zuten puntxo txapelketa; Carmen Egañak eta Sabina Agirrek tutekoa; eta Felix Alonso eta Mariano Urrutxik musekoa. Txapelkunek sariak jasoko dituzte.

Erretiratuen eskertza

Bestalde, erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeak esker oneko oharra kaleratu du. Urtean

zehar elkartearen antolatu diren ekintzetan parte hartu duten erretiratuei eskerrak eman dizkie. Berezik "zoriondu eta esker-tu" dituzte urtean zehar Landatxopeko bazkide egin diren 42 erretiratuak; eta etxean bazkide egiteko gutuna jaso duten 220 pentsiodunak inskripzio orriak betetzera "gonbidatu" dituzte.

'Kursaal eskura'

Antzuolako Udalak bat egin du *Kursaal eskura* egitasmoarekin. Hori horrela, hilaren 27an egingo den *Kantuz topa* ikuskizunera joateko doako autobus egongo dira Antzuolatik. Ainhoa Arteta, Eñaut Elorrieta eta Alex Sardui zuzenean ikusi gura dutenek izena eman behar dute kultura etxean. Ikuskizuneko sarrera norberak erosi beharko du.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan
R.P.S. 149/10 L.L.G

MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan).

ARRIKRUTZ

oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeen.

TXURI-URDIN

Izotz Jauregia

TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
%20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo opporraldia).
%10eko deskontua zubi eta opporraldietan.

AQUARIUM

DONOSTIA SAN SEBASTIAN

AQUARIUM - Donostia
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da).



GRACIAN Mertzzeria
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.



INSTITUTO OPTIKOA
Bidekurutzeta 10 | Bergara
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan.



IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa
Burdinate plaza 2 | Bergara
Lehenengo sesioa, sesio erdi.

AZPEITXI JATETXEA

AZPEITXI Jatetxea*
Aranerrea kalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero: Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

Markiegi

MARKIEGI JANTZI DENDA
Olarre kalea 2 | Arrasate
Produktu guztietan %10eko deskontua.

MIREN GARAI

MIREN GARAI
Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate
Tel.: 943 799 690
Aurpegia garbitzeko tratamendurekin, eskue-tako tratamendua doan.

LONBIDE

OINETAKOAK

LONBIDE Oinetakoak
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara
Produktu guztietan %10eko deskontua.



ML Ile-apaindegia
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea,
Arrasate / Tel.: 943 797 965
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.



NEBRASKA taberna
Zarugalde 35 - Arrasate
Tel.: 943 79 09 39
Mahou garagardo botila, euro bat bazkideentzat
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan
Interneteko menuetan %5eko deskontua



SARA MERENDERUEA Jatetxea
Meatzerrea auzoa 19,
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

TABERNA-BERRI

JATETXEA

TABERNA-BERRI Jatetxea*
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero:
Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.



ZABALA Jatetxea*
Labegaraleta 14, Bergara
Tel.: 943 76 42 57
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero: Astelehenetik larunbatara, eguneko menuan, bazkarian kafea doan



ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behea | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA
RPS: 299/13

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterron-doa (besapekoak opan).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behea | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.



JAUJA KIROLAK
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara
Produktu guztietan %5eko deskontua.



PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 55 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

FUTBOLA

Luzapenean sartu du UDAk lasaitasuna ematen duen gola

- ▶ Bergarak estu hartu zuen Gorka Valleren taldea Ibarra jokatuako derbian
- ▶ Aretxabaletarrek bi goleko abantaila hartu zuten lehen zatian; gero, sufritu egin zuten

EMAITZA	
ARETXABALETA	
3-1	
BERGARA	

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

2014ko azken derbia jokatu zuten UDAk eta Bergarak Ibarra futbol zelaian. Oso bestelako egoeran heldu ziren partidura: aretxabaletarrak goiko postuetan eta mahoneroak sailkapenaren erditik behera. Bada, sufritu egin zuen Gorka Valleren taldeak. Lehen hamar minutuetan bi goleko errenta hartu arren, kosta egin zitzaizkien partidua menderatzea eta erabakitzea. Menderatzea, minutu askoan Bergarak kontrolatu zuelako baloia eta jokoa; eta erabakitzea, lasaitasunaren gola luzapenean sartu zutelako.

Bi gol hamar minutuan

Partidua oso bizi hasi zen. Batez ere etxekoan aldetik. Di-da batean bi goleko abantaila hartu zuen Valleren taldeak: 6. minutuan Raul Sanchezek erdiratu zuen eskuinetik eta Urtzik hankarekin sartu zuen gola, eta 10.ean Jokin Badillok buruz sartu zuen bigarrena. Abantailarekin lasaiago jokatu zuten etxekoek. Buruarekin eta Bergararen atea begiz jota.

Aitor Arrateren taldeari kosta egin zitzaion partiduan sartzea.



UDAKo jokalaria Iban Espinosa baloiarekin, Eloy Crespo eta Jokin Baltzategi begira dituela | JOSETXO ARANTZABAL

Lehen zatiak aurrera egin ahala, esnatu egin ziren eta ondo jokatzen hasi ziren. 24. minutuan gainera, gola sartu zuten eta horrek erabat berpiztu zituen.

Aretxabaletak abantaila handitzeko aukerak izan zituen arren, Bergarak kontrolatu zuen norgehiagoka atsedenera arte.

2 eta 1eko emaitzarekin, bigarren zatia izan zen erabakigarria.

Baloia langara

Aldageletatik bueltan, Bergarak menderatu zuen derbia. Baloia euren jabetzakoa izan zen: hega-

letatik, erditik, paseak motzean edo luzean. Guztietan ibili ziren ondo bergararrak.

Baina adi egon behar izan zuten. Izan ere, UDAk izan zituen gol aukeretako asko oso garbiak izan ziren.

Bigarren zatiko lehen bi aukerak Arrateren taldeak izan zituen. 63. minutuan Bergarako aurrelariak kanpora bidali zuen baloia buruz, eta 75. minutuan, falta maisuki jaurti, baina baloiak langan jo zuen. Hurrengo jokaldian, minutu bat beranduago, UDAk lehia erabakita uzteko

aukera izan zuen. Aurrelariak, atezainaren eskuetara errematatu zuen, bakar-bakarrik zegoela.

Kontraerasoan

Minutuek aurrera egin ahala, Bergarak lerroak aurreratu, eta berdinketaren bila joan ziren. 84. minutuan aukera paregabea izan zuten, baina ez zuten asmatu.

Kontraeraso bikaina baliatu zuten aretxabaletarrek derbia erabakitzeke. Eskuinetik baloia ondo gidatu zuten. Lehen erremateak atezainaren gorputzean jo zuen. Aldaratzea baina, Eraña-

ren oinetara heldu eta ez zuen kale egin. Biziki ospatu zuten jokalariek eta zaleek garaipena. Urte borobilari bukaera ematen dion garaipen borobila.

Urtarrilera arte oporrak

Derbia irabazita, Aretxabaletak lehen lekuan bukatzen du urtea 35 punturekin. 15 partidutan bakararra galdu ostean. Ostera, Bergarak 18 puntu ditu eta sailkapeneko 13. lekuan dago. 2015eko lehen jardunaldian Aloñaren eta Touringen kontra jokatu dute, hurrenez hurren.

FUTBOLA

Aloña puntu barik itzuli da Ondarroan jokatuako partidutik: 2-0

Oporren aurreko azken partidutik puntu barik itzuli da Aloña Mendi. Ohorezko Erregionaleko talde indartsuenetakoa da Aurrea eta ez zuen hutsik egin. Julen Arufe eta Julen Uribesalgoren golei esker irabazi egin zuen. Aloñak atsedean egunak aprobe txatu beharko ditu gogor entrenatu eta bizi duten egoerari buelta ematen saiatzeko.

FUTBOLA

Ondo eta gogotsu jokatu arren, Tolosan galdu du Antzuolak

Gehiegizko aldearekin galdu zuen Antzuolak Tolosaren kontra: 4-1. Zelaian ondo kokatu eta atzean sendo ibili arren, jokaldi puntualei esker irabazi zuen Tolosak: atezainaren aldaratzea, estrategia jokaldia, kontraerasoa... Antzuolak itxura ona eman zuen eta guztiek esan zuten emaitza ez zela "justua" izan.

FUTBOLA

Mondrak berdindu eta Aretxabaletak irabazi oporren aurretik

Erregional Preferentean urteko azken jardunaldia jokatu zuten. Aretxabaletak 3-1 menderatu zuen Soraluze Ibarra futbol zelaian. Aldiz, Mondrak puntu bakarra lortu zuen Anaitasunaren kontrako gol festan: 3-3. Hiru gol sartu arren, ezin izan zuen partidua irabazi. Urtarrilaren 4ra arte oporrak hartuko dituzte.

ARETO-FUTBOLA

Igoerako postuetan jarraitzeko garaipen inportantea Eskoriatzak

Eskoriatzako areto-futbol taldeak 3-2 menderatu zuen Mallabia eta igoera faserako txartela ematen duten lekuean jarraitzen du. Etxekoek nahiko ondo menderatu zuten norgehiagoka. Atsedenera 2-lekoarekin joan ziren. Bigarren zatiko lehen minutuetan erabakita utzi zuten lehia hirugarren golarekin.

ARETO-FUTBOLA

Mondratek lider segitzen du Egintzaren kontra berdinduta: 3-3

Mondratek lehen lekuan jarraitzen du, Gabonen aurreko azken partidua berdindu ostean: 3-3. Puntu baliotsua eta emaitza justua markagailuaren nondik norakoak ikusita. 2-0 galtzen hasi ziren arrasatearrak, baina gai izan ziren emaitzari buelta emateko eta 2-3 ipini ziren. Ostean, berdindu zuen Egintzak.

ESKUBALOIA

Bigarren zatiko defentsa indartsuari esker eman dio buelta emaitzari Ford Mugarrik

- ▶ Lehen zatian bost goleko abantaila izan zuen Hondarribiak markagailuan: 4-9 eta 8-13
- ▶ Norgehiagoka tentsio handikoa izan zen, jokalariek asko protestatu zituztelako epaileen erabakiak

EMAITZA

FORD MUGARRI

32-28

HONDARRIBIA

FITXA TEKNIKOA

Ford Mugarri: Ekaitz, Asier, Letona, Zuloaga, Bernal (5), Iker (3), Oscar, Jorge (1), Gillen (1), Oier (1), Unai (8), Julen, Unai, Kepa (9), Iker (2) eta Josu (2).

Hondarribia: Valentin, Iñigo, Romo, Jimenez (4), Axel, Wamba (7), Vazquez (7), Arretxe, Gomez (4), Etxebarria (3), Mateos (1), Ventura (2) eta Borja.

Beste: Mikel Burguera eta Markel Garralda izan ziren nogehigokako epaileak.



Ford Mugarriko Jorge Santos jaurtiketa egiteko gertu. Bigarren zatian txartel gorria ikusi zuen. | IMANOL SORIANO

Jokalarien jarrerari buruz

Etxeko jokalarien jarreraren aurrean, honako idatzia bidali zuen zuzendaritzak: "Lehenengo zati eskasaren ostean, epaileei izan zieten errespetu falta onartezina da. Ezin daiteke horrenbeste protestatu eta are gutxiago era horretan. Berdin da epaileak onak, txarrak edo oso txarrak izan. Jokalariak euren lanean zentratu behar dira eta zapatuko lehen 20 minutuetan ez zuten egin. Gaizki jokatzearen frustrazioa ezin diegu epaileei egotzi. Halako jarrerak ez ditugu onartzen".

berdinketa lortu zuten. Orduan hasi zen benetako partidua etxe-koendako. Epaileen lanarekin gustura ez egon arren —erabaki batzuk oso eztabaidagarriak izan ziren benetan—, lehia zentratu ziren eta poliki-poliki goranzko bidea hartu zuten. Bigarren zatiko bederatzigarren minutuan ipini ziren lehen aldiz aurretik (20-19). Zailena egin ostean, garai-penaren bila joan ziren.

Kantxako giroa berriro nahastu zen Jorge Santosek bi minutuko hirugarren kaleratzearen ostean, txartel gorria ikusi zuten. Hori aprobetxatuz, barkakako defentsara itzuli ziren hondarribiarrak. Isasmendi eta Bernal, kanpoko jaurtiketa egiteko aukera barik, hegalean kokatu ziren. Baina, Ford Mugarrik topatu zituen bideak markagailua handitzen joan eta partidua irabazteko.

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Gogorra. Tentsio handikoa. Bizia. Ikusgarria. Berba horiekin laburtu daiteke Ford Mugarrik eta Hondarribiak zapatuan jokatu zuten partidua. Berba horiekin eta beste bat gehiagorekin: zakarra. Une askotan, lehia zakarra izan zelako. Batez ere, jokalariek —eta une askotan, etxeko jokalariek— erakutsitako jarrerarekin: epaileen erabakiak behin eta berriz protestatuz eta beste tal-

deko jokalarien kontra eginez. Baina tentsio une horien guztien gaintik, egoera ondoen kudeatu zuena Ford Mugarri izan zen. Bigarren zatian defentsa indartuz, emaitzari buelta eman zion eta urrezko puntuak lortu zituen.

Bost goleko errenta

Lehen Nazional mailan edozein talderen kontra galtzeko arriskua dagoela garbi geratu zen zapatuan. Konturatu orduko hiru

goleko errenta hartu zuen Hondarribiak: 1-4. Pablo Garciak hutsartea eskatu zuen, baina defentsako arazoak ez zituen konpondu. Atzean zuloak eta erasoan golik ez. Eta gainera, etxeko jokalarien bi minutuko zigorrak. Premisa horiekin, bost goleko abantaila hartu zuten kanpokoek: 4-9, 17. minutuan.

Hondarribiarrek bazekiten zeintzuk ziren arrasatearren kakoak. Hori horrela, lehen zati-

ko minutu askoan bakarkako defentsa egin zioten Kepa Isasmendi. Kanpoko jaurtiketarako aukerak moztu zizkieten arrasatearrei, eta gainera, atsedenera lau goleko abantailarekin heldu ziren: 13-17.

Txartel gorria

Aldageletako berbak kontuan hartuta, defentsako zuloak itxi eta arrasatearrak berpiztu egin ziren. Hiru minutuan 17nako

SASKIBALOIA

Partidu borobila jokatu, irabazi egin du MUK Tolosaren kontra: 61-68

Mondragon Unibertsitateak garaipenarekin agurtu du urtea. Tolosari 61-68 irabazi zion eta arnasa hartzeko puntuak lortu zituen. Arrasatearrek partidu borobila jokatu zuten. Ondo erasoan eta defentsan. Elkar ezagutzen duten bi talde izanik, lehia parekatua izan zen, baina Larreategiren mutilek ez zuten hutsik egin.

SASKIBALOIA

Atsedenerako partidua galdutzat eman du Eskoriatzak: 40-71

Ezusteke emaitza jaso zuen egubakoitzean Eskoriatzak. Sailkapenean parekatuta dagoen Aldapetaren kontra galdu egin zuten. Lehen laurden parekatuaren ostean, bigarrenaren bosgarren minutuan apurtu zen lehia. Aldapetak saskiratze errazak lortu zituen eta 18 puntuko abantailarekin joan zen aldagelara: 22-40. Bigarren zatia soberan egon zen.



SASKIBALOIA

IMANOL SORIANO

Sufrituz irabazi zuen Natra Oñatik

Natra Oñatik Erroibide Irunen kontra irabazi zuen Gabonen aurreko azken jardunaldia: 80-69. Epaileak berandu iritsi ziren eta oñatiarrek hotz hasi zuten partidua. Hori horrela, irundarrek lehen tarte ikusgarria jokatu zuten. Bigarren laurdenetik aurrera jokoa hobetuz joan ziren Natrakoak eta azken tartera heldu orduko, lehia erabakita utzi zuten Gorka Judezen jokalariek.



ESKUBALOIA

IMANOL SORIANO

Azkenaren kontra irabazi Bergarak

Etxeko hirugarren partidua irabazi zuen Soraluze Bergarak Ordiziaren kontra: 25-22. Azkenaren kontrako lehia izan arren, sufritu egin zuten mahoneroek. Antsietate handiarekin irten ziren kantxara, eta bigarren zatira arte ez zuten lehia bideratu. Hamar minuturen faltan lau goleko errenta hartu zuten. Baina azken jaurtiketarako arte ez ziren lasai egon Muniategiren jokalariek.

ZIKLO-KROSA

Lokatza, izerdia eta erorikoak Urrutxuko zirkuituan

Txirindulari oñatiarrek lan ona egin zuten, askori urduritasunak ordaina eskatu zien arren

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Lokatzez goraino eta hankak leher-leher eginda, baina irribarre-rritsu amaitu zuten atzo Oñatiko ziklo-krosean parte hartu zuten txirindulariek. Ikusle asko igo zen Urrutxu aldera, eta ederki gozatu zuten ibilbide ikusgarriak oparitu zituen eroriko, lehia eta azken uneko eztabaidarekin.

Izan ere, mutilen elite mailan Jose Antonio Diez izan bazen helmugara heltzen azkarrena; proba Iñigo Gomezek irabazi zuen. Gomezek lasterketa amaitu ostean, erreklamazio bat jarri zuten epaileei, esanez Diezen bizikletaren atzeko gurgila araudiak onartzen duena baino handiagoa zela. Epaileek egin beharreko neurketak egin ostean, Diezen gurgilak milimetro batean araudia hausten zuela egiaztatu zuten eta kanporatu egin zuten, horrela helmugara bigarren heldu zen Gomez garaipea emanez.

Epaileen erabakiak polemika handia sortu zuen; batzuk esaten zuten neurketak proba hasi aurretik egin behar direla eta korrikalari bati egitekotan, guztiei egin beharko zirela. Diez bera,

minduta zegoen, izan ere, lasterketa amaitu bezain laster berezako garaipen oso garrantzitsu bat izan zela aitortu zuen, denboraldiko proba inportanteena baitzen Oñatiko txirindularientzat. Baina, azkenean, gurgil zahar baten erruz, pistan irabazitako garaikurra kendu zioten Gipuzkoako Txirindularitza Elkargoko epaileek.

Ibilbide ikusgarria

Arazo hori alde batera utzita, ziklo-kros proba paregabea izan zen atzo Oñatin ospatu zena. Urrutxu aldean egin zen lehenengoz, eta ibilbide berriak buruhausteak eman zizkien txirindulariei. Askoren ahotan ibilbidearen zailtasun fisikoa zegoen eta batek baino gehiagok, lokatza zela-eta, bizikleta bizkarrera bota eta korrika egin zituen metro nahikotxo. Egia esan, ikusle eta bizikleta zaleentzako proba polita izan zen.

Kadete, gazte, elite eta master mailetak txirindulariak kontutan hartuta, 150tik gora ziklista irten ziren Urrutxutik, San Bartolome zelairantz, Goribar Goitira eta bueltan.

Odriozola emakume azkarrena

Odriozola izan zen elite mailan emakume azkarrena; emakumeek gazte mailako gizonetakoekin batera egin zuten proba eta bost buelta eman zizkioten ibilbideari. Lehenengo buelta gogorra egin zitzaion Odriozolari, baina bigarren aurre hartu zuten aurkariei, eta erritmo konstante bat mantentzeko irabazi zuen ziklo-krosa. Zirkuitua gogorra egin zitzaio- la aitortu zuen, eta aldapa behean ere eroriren bat izan zuen, hala ere, pozik amaitu zuen.

Bertakoek ere lan ona egin zuten orokorrean. Julen Umerez izan zen postu onena lortu zuen oñatiarra, gazte mailan bosgarren heldu zen helmugara.

Estreinakoaz, pozik

Pozik amaitu zuten proba antolatzaileek, eztabaidaren kontuarekin azken ilundu baziren ere. Aurtengoa zirkuituaren estreinakoa izan dela kontutan hartuta, datorren urterako hobekuntza batzuk egingo dituztela esan zuten; hala ere, aurtengo exijentzia fisiko maila mantenduko du zirkuituak.



Lokaztutako aldapak gogorrak egin zitzaizkien txirindulariei. | JOSETXO ARANTZABAL



Olatz Odriozola bizikleta aldatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



JOSU ALBIZUA
GAZTE MAILAKO TXAPELDUNA

"Egia esan presio handirik gabe irabazi dut oraingoan. Hiruko talde bat ibili gara aurrean, baina atzean utzi ditut eta gustura egin dut lasterketa. Zirkuituak harri nahikotxo zituen, baina nire ustez ondo antolatuta egon da".



EDU JIMENEZ
MASTER 30EKO TXAPELDUNA

"Lokatza handia zegoen eta gogorra egin zait. Hasieratik indartsu ibili naiz eta hor egon da gako. Normalean beste batek irabazten du, baina gaur ez du izan egun onena, hala ere, erritmo altua mantentzea lortu dut".



JON MUNITXA
23 AZPIKO TXAPELDUNA

"Lehenengo buelta oso fuerte hasi dut eta egia esan lasterketa amaitzeko arazoak izango nituela pentsatu dut. Hirugarren itzulian nire atzetik zetorrenak arazo bat izan du eta hori aprobetxatuta garaipena lortu dut".



OLATZ ODRIOZOLA
ELITE MAILAKO TXAPELDUNA

"Proba fuerte hasten saiatu naiz, baina lehenengo itzulia gogorra egin zait. Ostean hobeto ibili naiz eta bigarren aurrerari tarte atera diet. Ibilbide gogorra da benetan, hala ere, oso pozik nago garaipenarekin".



JOSE ANTONIO DIEZ
ELITE MAILAKO ZIKLISTA

"Epaileek euren lana egin dute, baina horren zorrotzak izatea nahi badute, lasterketa hasi aurretik bizikleta guztiak begiratu beharko lituzkete. Hala ere, nik nire lasterketa egin dut eta helmugara lehenengo iritsi naiz".



Lehen lerroan, 2014ko kirolari onenak: Irurtzun, Egaña, Garai, Gartzia eta Ugarte. | IMANOL SORIANO

SARI BANAKETA

Realeko jokalaria Andoni Ugarte eta eskubaloiko gazte neskak, urteko onenak

Egubakoitzean banatu zituzten 2014ko kirolari onenen sariak Oñatiko udaletxeko ekitaldian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urtea bukatu aurretik, 2014ko kirolari onenak saritu zituzten Oñatin. Egubakoitzean egindako ekitaldian Andoni Ugarte, eskubaloiko gazte mailako neskak, Pablo Gartzia, Pedro Irurtzun, Abixaran taldea eta Isma Egaña saritu zituzten. Lehen hirurak urtean zehar lortutako emaitzak aintzat hartuta, eta azken hirurak, urtetan kirolaren alde egindako ekarpenarengatik: txirrin-

dularitzan, atletismoan eta futboleant, hurrenez hurren.

Herritarrek ere euren kirolari gustukoena aukeratu zuten. Botoen %38,40ekin Jokin Garai izan zen irabazlea, Arianna Burgos eta Mikel Ugarteren aurretik.

Taldeka eta banaka

Kirol adituez osatutako epaimahai batek erabaki zuen urteko kirolari onena Realean jokatzeko diharduen Andoni Ugarte izan zela.

Irailtik Sanseko jokalaria da eta dagoeneko entrenatu du lehen taldearekin. Gazte mailan liga txapelketa irabazi eta Txapelduen Ligan final zortzirenetara heldu zen.

Eskubaloiko gazte mailako neskek urte borobila egin dute: liga bigarren lekuan, eta Euskal Ligarako igoera.

Arrasateko Ford Mugarriekin egindako lana aitortu zioten Pablo Gartzia entrenatzaileari, Lehen Mailan egiten diharduten lana "ikaragarria" delako.

Kirolaren aldeko lana aitortuz

Pedro Irurtzunek ziklismoaren alde egindakoagatik jaso zuen saria. Isma Egañak futbolari eta futbol taldeei emandakoagatik; eta Abixaran taldekoek, emakumeak kirola algera bultzatzeko egindako lanarengatik.

Zorionak guztiei!



Bizar zuri txirrundulari bati laguntzen. | JOSETXO ARANTZABAL



ESKALADA

70 bat neska-mutiko eskalatzen

Aretxabaletan jokatu zen Debagoieneko eskalada eskolako topaketak. Arrasate, Aretxabaleta eta Elorrioko 70 bat neska-mutikok parte hartu zuten hiru mailatan. 6-10 urte artekoek topaketa egin zuten, eta 11 urtetik aurrerakoek lehiaketa. 11-13 urte artekoetan onenak izan ziren Aitziber Urrutia eta Martxel Vicario, eta 14 urtetik gorakoetan, Marta Camara eta Martin Urrutia. Askotariko ariketak egin zituzten Ibarra kiroldegiko rokodromoan.

IMANOL BELOKI

AURKEZPENA

Kirolarekin "gozatzen" duten Arizmendiko taldeen aurkezpena

Futbola, areto futbola, igeriketa, boleibola, eskalada eta squash taldeak

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA
Aretxabaletako Ibarra kiroldegia "kirolez eta ilusioz" bete zen egubakoitzean. Arizmendi Ikastolako kirol taldeen aurkezpena egin zuten, eta han batu ziren modalitate ezberdinetako 331 jokalarik. Gazteenak 8 urtekoak ziren, eta zaharrena 33 urtekoa.

Horiekin lanean diharduten 25 entrenatzaile eta arduradunek ere ez zuten hutsik egin. Taldekako argazkiak egin zituzten eta bukaeran, denok batera elkartu

ziren erretratu erraldoia egiteko. "Kirolaren festa" izan zen.

Federatuak eta harrobikoak
Futbola, areto-futbola, areto-futboleko eskola, boleibola, igeriketa, eskalada eta squash. Horiek dira Arizmendik dituen modalitateak. Guztira, 13 talde eta bakar-kak lehiatzen diren 78 kirolari: 67 igeriketan, sei eskaladan eta bost squashean.

Futboleak eta areto-futboleak infantil mailatik gazte mailara

arteko taldeak dituzte. Talde federatuak direnak, baina ez dute baztertzeko harrobiko jokalariekin egin beharreko lana. "Ditugun talde eta jokalariek kontuan hartuta, oso balorazio positiboa egiten dugu. Pozik gaude. Kirolak herritar asko mugitzen duela erakusten du gaurko ekitaldiak", esan zuen Urtzi Amianok.

Arizmendi Ikastolako kirolarekiko duen konpromisoa oso sendoa da. Euren ezaugarriak hiru dira: euskararekiko konpro-

misoa, ondo pasatzea eta gozatzea, eta kirolean, bailaran dauden hutsuneak betetzea. Azken horri erreferentzia eginez, zera dio Amianok: "Edozein kirol egiteko baliabideak ematen ditugu. Adibidez, boleibola. Emakumeen taldea dugu. Guregana etorri zirenean, gure esku zegoen guztia egin genuen taldea osatzeko. Boleibola ez da oso ohikoa gurean, baina guk taldea daukagu. Eskarekin araberako taldeak osatzen ditugu, inongo arazo barik".

DATUA

331

JOKALARI

Horiek dira Arizmendiko taldeetan diharduten jokalariek.

ESANAK

"Edozein kirol egiteko baliabideak ematen ditugu"

URTZI AMIANO | ARIZMENDI

IKASTOLAKO KIDEA



Arizmendi Ikastolako kirol elkarteko kirolariak eta entrenatzaileak, Ibarra kiroldegian. | IMANOL BELOKI

TENISA

Santamasetako tenis txapelketako finalak jokatu dituzte Musakolan

M.B. | ARRASATE
Domekan jokatu zituzten santamasetako tenis txapelketako finalak.

Nagusien mailan Aitor Magallanes izan zen txapelduna. Finalean 6-3 eta 6-4 irabazi zuen Eneko Ugalderekin kontra. Kontsolazio finalean, hirugarren eta laugarren lekuak zehazteko, Jesus Kortabarria izan zen onena Kepa Aranbarriren kontra.

Gazte mailako txapela Beñat Axpek jantzi zuen, 6-0 eta 6-4 irabazi ostean. Azkenik, padeleko finalean eta bikoteka, Patxi Vallejosek eta Jorge Aranesek irabazi zuten 6-4 eta 6-1.

82 jokalarik

Guztira, 82 jokalarik parte hartu dute tenis txapelketan: 32 nagusietan, 10 gaztetan eta 20 bikote padelean.



Aitor Magallanes pilota jotzeko bidean. | JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Arantzabal, Garitaonaindia, Abasolo, Eraña, Sarabia eta Etxezarreta nagusi finaletan

Herri mailako santamasetako pilota txapelketako irabazleak dira

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Herri mailako santamasetako pilota txapelketak txapeldun berriak ditu egubakoitzetik. Uarkapen jokatuak finaletan Sarabiak, Arantzabalek, Garitaonaindiak, Abasolok, Erañak eta Etxezarretak irabazi zuten. "Maila ona erakutsi dute eta pozik nago egin duten lanarekin", esan zuen Ibai Bolinaga entrenatzaileak.

Maila ezberdinak

Adinaren arabera finalak jokatu zituzten: aurre-benjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak. Aurre-benjaminetako lehen mailan Arantzabal izan zen nagusi Belarren kontra (16-12), eta aurre-benjaminetako bigarren mailan Garitaonaindiak irabazi zuen Erañaren kontra: 16-9. Benjaminetako finalean, Abasolo gailendu zitzaion Erañari: 18-10. Alebinetan ere bi final jokatu zituzten: lehen mailan Sarabia



Arrasateko jokalarik gazte pilota astintzeko gertu. | IMANOL SORIANO

izan zen txapeldun. 18-11 irabazi zion Barandiarani. Bigarren mailan, aldiz, Erañak jantzi zuen txapela Bengoaren kontra irabazi ostean (18-7). Azken finala, infantil mailakoa izan zen. Etxe-

zarretak 18-8 irabazi zuen Gonzalezekin kontra.

Egubakoitzeko finalekin bukatu zuten santamasetako torneoak. 50 bat pilotari aritu dira azken hiru hilabeteetan.

Jose Manuel Matas | Arrasate Aikido Taldeko irakaslea

"Aikidoa bizitza estilo bat da, Japonian kulturaren parte dena"

- ▶ "Genetika eta jaten ditugun elikagaiak garrantzitsuak dira gure bizi iraupena luzatzeko"
- ▶ "90 urtetik gora dituen Otake-Sensei maisu handia ezagutzea izugarria izan zen"

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Jose Manuel Matas (1961) eskoriatzarrak 25 urte daramatza Arrasate Aikido Taldeko irakasle. Eta, borroka-arteetan gehiago sakontzeko asmoz, Japonian izan da orain dela gutxi. Bere bi ikasle diren Iker Beristainekin eta Javi Corresekin egon da hogeigun egun inguru.

Nola sartu zinen aikidoan?

Kung-fu estilo txinatarreko kurtsoa egin nuen behin, eta gero, aikidoa probatzean, liluratuta geratu nintzen borroka-arte horrek duen filosofiarekin... Bizitzeko modu gisa hartu eta urtetan asko ikasi dut, baina oraindik ikasten jarraitzea espero dut.

Kirola baino gehiago, bizi izateko modu bat da aikidoa?

Bai, kirola baino gehiago da, argi eta garbi. Bizitza estilo bat da. Txinan tai txia moduan, Japonian kulturaren parte da aikidoa. Arte martzial modu hori ikasketa unibertsitario bezala kontsideratzen da munduko leku askotan eta heziketaren parte dela esan gezake. Errespetua eta balioak oso kontuan hartzen dituen.

Japoniako kultura gehiago ezagutzeko asmoz, orain dela bi hilabete inguru Japonian izan zinen, ezta?

Bai, urriaren 15etik azaroaren 3ra bitartean izan nintzen; nire ikasle diren Iker Beristainekin eta Javi Corresekin. Orain dela bi urte hasi nintzen Japoniarako bidaia prestatzen, eta hango kulturaz pentsatzen nuena baino gauza gehiago ikasi eta ikusi ditut.

Japoniara bidaiatu nahi nuela azaldu nien gimnasioko ikasleei, eta asko animatu ziren nirekin etortzera. Jende gehiegi batu ginez, azkenean, bi lagunekin bakarrik joatea erabaki nuen, eta izugarrizko esperientzia izan da.



Jose Manuel Matas, Arrasateko kiroldegian, dojoan eserita. | J.M. MATAS

Zein izan zen Japoniara bidaiatzearen helburu nagusia?

Nire helburu nagusia tradizioko sendaketa naturala eta elikaduran sakontzea zen. Genetikak eta jaten ditugun elikagaiak garrantzi handia daukate gure bizitzan. Gizartearen ondorioz, denok antze-

rako gauzak jaten ditugu, eta, nork bere odol taldearen eta metabolismoaren arabera, elikagai batzuk edo beste batzuk behar ditu bizi iraupena luzeagoa izateko eta gaixotasunak ekiditeko.

Bestalde, turismoa ere egin nahi genuen; azken finean, helbu-

ru zehatz batekin joan ginen, baina beste hainbat gauza garrantzitsu ikusi eta ikasita bueltatu gara handik.

Jaten duguna gara esaldia halaxe da, orduan?

Bai, duda barik; gainera, hori ondo zaintzen bada, gaixotasunak izateko arrisku txikiagoa dugu. Okela jaten dutenak gutxi dira han, adibidez. Soja jaten dutenei, bestalde, bularreko minbizia, barrabiletakoa... izateko arriskua asko txikitzen zaie. Japonian, adibidez, ia ez da existitzen minbizi tasa hori, oso txikia da... Hiromi Shinyak esaten zuen moduan, "gizon batentzat ona dena beste batentzat pozoia izan daiteke".

Bestalde, meditazioaz eta elikaduraz gain, fisikoa ere landu behar da, baina gehiago egiteak ez du esan nahi hobea denik. Nork bere beharren arabera egin behar du. Hori guztiori kontrolatuz gero, gure bizitza luzeagoa izan daiteke. Urteak daramatza gai honetan interesatuta, eta emaitzak begi bistakoak dira, batez ere, gaixoengan.

Borroka-arten inguruko jende ospetsua ezagutuko zenuen.

Arte martzialeko maisu handiekin, medikuekin eta naturopatekin egon ginen Tokion, Kyoton, Naran, Osakan eta Iroshiman. 700 urte dituen Katori eskolan, Otake-Senseirekin eta Tadao Yamaguchi reikiarekin izan ginen, eta haiekin lan egin eta ideiak elkar trukatzeko sekulakoa izan zen.

Zer aurkitu duzue han?

Denetarik ikusi dugu han. Aurrez esan bezala, iritsi bezain laster, 700 urte dituen Katori sable eskolan izan ginen Otake-Sensei maisu handiarekin. Maisuaren etxeko helbidea eman ziguten, eta harre-

ra bikaina egin zigun. Izan ere, maisuaren gertukoak gaztelaniaz zekien. Hala, 90 urtetik gora dituen Otake-Sensei maisua ezagutzea izugarria izan zen. Oraindik, irakasten jarraitzen du, eta, oso jakintsua denez, asko ikasi genuen harengandik; nola bizi den, bere bizi izateko modua... magikoa izan zen.

Tokioko Hombu Dojo eraikinean ere izan ginen, hiru solairu ditu, eta bereziki aikidoa praktikatzeko erabiltzen da eraikin osoa. Tenplu sakratuan ere izan ginen, eta han, taldean pentsatutako desio bat ere jarri genuen ohelean: *Munduko gizaki guztiek gure bedeinkapena jaso bezate* idatzi genuen han. Beste behin, Japoniako urrezko tenpluan ere izan ginen. Hori Japoniako eraikin garrantzitsuenak dira...

Hizkuntza dela, hango kultura dela... ez zenuen arazorik izan?

Bat ere ez; han, estatusunean ikusten bazaituzte, berehala etortzen zaizkizu laguntzera. Ez zen izan pentsatzen genuen modukoa, oso ezberdina izan zen. Ongi hezitako jendea da, oso atsegina dira... Kanean gindoazela gauza asko aurkitzen genituen lurtean botata. Baina jendea ez da makurtzen hartzera. Euren filosofiak dienez, diru-zorroa galtzen badu batek, adibidez, bide bera eginez gero, galdu duen objektua bertan aurkituko du. Hala, ez da inor makurtzen lurtean dauden objektuak hartzera.

Esperientzia arrakastatsua izan da, horrenbestez; bueltatuko zara?

Oso arrakastatsua izan zen bidaia, bai. Film batean egotea bezala izan zen. Eta bai, gustatuko litzaidake berriro hara bueltatzea, eta bizi izateko modu honetaz gehiago ikasten jarraitu nahi dut.

"Aikidoa bizitzan oso barneratuta duen jende asko dago Japonian"

"Iritsi bezain laster, 700 urte dituen Katori eskolan izan ginen"



945 290 308
www.igogailuak.com
debagoiena@omegaurban.com




**Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak**


**Igogailuen
Mantentze-lanak**



puntua

ASTEKARI BERRIA

Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.
Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik.



Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

Gabonek zabalik dituzte ateak

- ▶ Asteburuan egon diren kontzertuek argi laga dute data seinalatu horien atarian gaudela
- ▶ Bailarako ia herri guztietan lehenengo Gabon doinuak entzuteko aukera egon da



YON SUINAGA

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA Bergarako musikari-harrobiak erakustaldi ederra egin zuen barikuan, Udal pilotalekuan egindako Gabonetako kontzertuan. Talde askok egin zuten erakustaldia, bakarka. Amaieran, guztiek elkarrekin jo zuten. Harmailetan senideak gustura.



LARRAITZ ZEBERIO

ELGETAKO MUSIKA IKASLEAK Lorea Larrañagaren ikasleek 25 bat pieza jo zituzten barikuan, Espaloian egindako emanaldian. Piano, gitarra eta biolin taldeak aritu ziren, bakarka; baina amaieran, guztiek elkarrekin jo zuten. *Hator hator* kantuarekin agurtu ziren.



JAGOBA DOMINGO

ARRASATE MUSIKAL Kulturate txiki geratu zen barikuan, Arrasate Musikaleko musikarien kontzerturako. Instrumentu eta ahots, doinu ederren elkargune bihurtu zen. Bandak hilaren 31n egingo duen kontzertua, bestalde, berezia izango da aurten, 20. urtemuga ospatzen ari dira eta.



IMANOL SORIANO

PORTALOI ELKARTEA Arrasateko elkarteak 10 urte bete ditu eta barikuan Gabon kantak eta bestelakoak abesten aritu ziren kalerik kale. Beste hamar urte betetzeko arazorik ez du izango elkarteak, argazkian ikusten den moduan, belaunaldi berriei ere gustatzen zaie-eta abestea.



IMANOL SORIANO

ERABAT ERROTUTAKO HITZORDUA Bandak, Orkestrak, Aritzeta Abesbatzak eta Bergarako Orfeoia zapatuan pilotalekuan egindako kontzertuaren ondoren, Bergaran dagoeneko Gabonak hasi direla esan daiteke. 35. Gabonetako kontzertuak ez zuen defraudatu, ohi bezala.



IMANOL SORIANO

OÑATIKO FORUEN PLAZAN Jose de Azpiazu Musika Eskolako kideek eta Aita Madina txistulari taldeak udaletxeko arkupeetan egin zuten urteroko Gabon kontzertua zapatuan. Erdigunea alaitu ondoren, gaur, hilak 22, San Martin egoitzan egongo dute saioa musika eskolakoek.



JOSETXO ARANTZABAL

BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzak ere urteroko kontzertua egin zuen domeka eguerdian San Martin elizan. Gabon doinu gehiago ere izango da datozen egunetan: gaur, Gabonetako karaokea egongo da 17:00etan, kiroldegian.



JOSETXO ARANTZABAL

SOPRANO ETA ORGANOA Aretxabaleta Abesbatzako Mariatxen Urkia sopranoak eta Jose Luis Frantzesena organistak atzo, domeka, egindako kontzertu ederraren ondoren, Aretxabaleta Abesbatzak Gabonetako kontzertua egingo du hilaren 27an.

Pirata gazteek altxor bikaina topatu dute Oñatiko plazan

- ▶ 'Altxorraren uhartea'-ren aurrerapen bat egin zuten
- ▶ 200 umetik gora ibili ziren piraten altxorra topatzen

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Urtarrilaren 17a gero eta gertuago dago, eta *Altxorraren Uhartea* musikaleko parte hartzaileak hasi dira urduritzen. Zapatuan baina, urduritasunak kendu, eta egiten ari diren lana erakusteko, musikalaren zati batzuk antzeztu zituzten herriko plazan.

Goiza are piratagoa izateko, gainera, herritarrak ez ziren ikusle soil izan, eta gazteek zapia buruan jantzi eta pirata izateko aukera izan zuten.

Piraten txanda

Musikalaren antolatzaileek Txanda, herriko merkatarien elkar-tearekin, egindako akordio bati esker altxorraren bila jolas erraldoia egin zuten. Lehen fasea herriko kale eta dendetatik zehar egin eta gero, bigarren fasea plazan egin zuten. "Hemen lau froga dituzte eta horien ostean altxorra topatzeko lau mapa zati jaso dituzte", dio antolatzaileetako batek.

Altxorra topatzeko lan horretan bizkorrena Eusko Txantxi 06

taldea izan zen, eta taldekide guztiek jaso zuten opari bikaina.

Ikuskizuneko sarrerak

Asteburukoa mokadutxo bat baino ez zen izan *Altxorraren Uhartea* urtarrilaren 17an estreinatuko dute-eta. Plazan egin zituzten dantzek oso harrera ona izan zuten, eta ziur zapatukoa ikusi eta gero, batek baino gehiagok Txokolateixara joan edo www.ganbara.org webgunera sartu eta sarrerak erosiko dituela.

Gogoan izan bi saio egingo dituztela, 17:30ean lehena eta 20:00etan bigarrena. Hala ere, sarrerak ahalik eta bizkorren erostea komeni da.



Goiza 'Altxorraren uhartea' musikaleko zati batekin amaitu zuten. | IMANOL SORIANO



Altxorraren bila jolasean parte hartu zuten 42 taldeetako bat. | I.B.



Jolaseko azken frogak plazan egin zituzten. | IMANOL BELOKI

ELENA INZA
GURASOA



"Egun berezia izan da eta oso gustura gaude. Oñati pirata gaztez bete da, ziur urtarrilaren 17an pirata gehiago egongo direla".

SERGIO MAIZTEGI
GURASOA



"Nabari da urduri daudela, eta eguna gerturatu ahala gehiago. Hau entsegu bat baino, herrikideei musikala erakusteko goiz bat izan da".

XABIER ABAUNZ
AKTOREA



"Ezin izan dut behar bezala parte hartu, asteon bihurdira bat egin dudalako. Piratek egurrezko hanka bai, baina ez dute igeltsurik eroaten".

JONE ANDUAGA
AKTOREA



"Gaur primeran moldatu gara, eta jendeak ere txalo asko egin dizkigunez apur bat lasaitu naiz. Musikala estreinatzea baino ez zaigu falta".

ANAJE FERREIRO
IKUSLEA



"Ikusitakoa eta gero, pirata izateko gogoia sartu zait. Artista batzuk dira, eta honelako egun gris bati kolorea jarri diote".

ENRIKE GAZTAÑAGA
IKUSLEA



"Harrituta geratu naiz, ez nuen horrenbeste piratarra espero. Ea musikala ikusteko sarrerak erosten ditudan, honek itxura ona dauka-eta".

* Txikilandia *

Urtarrilak 2-3-4 Arrasaten 2015

Urtarrilak 2

11:00-14:00 MUSAKOLAKO IGERILEKUAN: Puzgarriak, jolasak...

17:00-20:00 UARCAPEKO PILOTALEKUAN jolas Parkea: Serigrafia, roko-promoa, tailerrak, familia gunea, Wi Gunea, jolas erraldoiak, ohe elastikoak, puiñ kontalariak, karaokea, puzgarriak, muralgintza, irati tailerra...

Urtarrilak 3 eta 4

11:00-14:00 / 17:00-20:00 UARCAPEKO PILOTALEKUAN eta ARRASATEKO GAZTETXEAN jolas Parkea.

URTARRILAK 4, 19:00 KUSKIZUNA GAZTETXEAN ANE ETA PIRATEKIN PARRANDAN!

Saio borobila eginda lortu du txapela Andoni Goitiak

- ▶ Aspalditik zeukan arantza kendu du azkenean Oñatiko bertsolariak
- ▶ Goitiak eta Larreak amaiera paregabea eman zioten saioari

IMANOL BELOKI | OÑATI

Zapatu arratsaldean Oñatiko VII. bertso txapelketako finala jokatu zen, eta Andoni Goitiak saio borobilarrekin irabazi zuen txapela. Pozik agertu zen egindako saioarekin, eta oso eroso ibili zen ohol-tza gainean. Oñatiko Gaztelekua bete-bete eginda zegoen eta giro ederrean, saio bikaina ikusteko aukera izan zen. Goitiak aspalditik zeukan arantza kentzeko gogo, askotan bigarren, edo hirugarren postuan geratu izan delako.

Urko Egaña, Joseba Lasagabaster, Andoni Goitia, Egoitz Aizpuru, Maider Arregi eta Gorka Larrea izan ziren taula gainean, eta ikuskizun bikaina egin zuten.

Zortziko handian, zortziko txikian, hamarreko txikian hitza emanda, eta gaikako bi bertsoak egin ondoren, Gorka Larreak eta Andoni Goitiak jaso zituzten puntuazio altuenak eta buruz-buru-koan, bertso umoretsuak bota zituzten biek ala biek Gladiadoreak balira. Ikusle guztiak algarra baten jarri zituzten puntukako bertsoan.

Ondoren, kartzelako ariketa etorri zen, eta Gorka Larreak ikusleak hunkitu egin zituen



Andoni Goitia bertsoa botatzen, Joseba Lasagabaster eta Andoni Aizpuru atzean dituela. | IMANOL SORIANO

Gabonetan, mahaiaren bueltan hutsik dagoen aulkiaren harira botatako bertsoarekin: Preso dagoen osaba Gabonetan etorri egingo dela azaldu zuen. Goitiak berriz, bere iloba jaioko delako bertsoa bota zuen. Hala, amaiera

paregabea izan zen ikusleen txalo zaparradarekin.

Antolatzaileak pozik

Endika Ruiz antolatzaileetako batek hauxe esan zuen: "Gozamenena da guretzat bi urtean behin,

bertsoen inguruko jai hau prestatzea. Gainera, bertsozale denak argi antzematen du maila ona dagoela Oñatin. Dena den, egunero bertsoen inguruan ez dabilenak ere disfrutatu du gaurko saioan".

PUNTUAK

1. Andoni Goitia 427,75
2. Gorka Larrea 372,25
3. Egoitz Aizpuru 253,25
4. Maider Arregi 252,75
5. Urko Egaña 241,50
6. Joseba Lasagabaster 239,50

ANDONI GOITIA BERTSOLARIA

"Arantzatxoak kendu dut saio borobila eginda"

Pozik jaso du txapela.

**T x a p e l a
l e h e n a l d i z
l o r t u t a , n o l a
s e n t i t z e n
z a r a ?**



IMANOL BELOKI

Ondo, baina txapelagatik baino, egindako saioarengatik. Bertso hobek egindakoa naiz, baina uste dut akats gabeko lehen saioa gaur egin dudala. **Saiotik zerekin geratzen zara?**

Bakarkako biek oso gustura sentitu naiz. Bigarrean, zortziko gehiegi arriskatzea zela pentsatu dut hasieran, baina ongi irten zait. Jai giroan, ondo pasatzera etortzen gara, baina gero lehiakortasuna dago eta ohol-tza ahalik eta hobeen egitera igo behar da...

"Duda barik, hau izan da emanaldi bereziena"

I.G. | ARRASATE

Arrasateko Amaia Antzokia eta Manu Gomez aspaldiko lagunak dira. Duela 14 urte bere lehen laburra han aurkeztu zuen, "Amaia nire lehen zinea izan zen. Politika orain sortzaile bezala bueltatzea", dio Manu Gomez zuzendariak. Egubakoitzeko lagunarteko emanaldia izan zen, eta herrikideek txalo artean hartu zuten bai zuzendaria, bai *Das Kind* laburra.

100 zinemalditan lehiatu eta ia 40 sari eskuratu ostean iritsi

da *Das Kind* Arrasatera. Zuzendaria pozik zegoen, "zinemagilea banaiz, pareta hauetan ikusita-koagatik da", esan zuen. Antzokiak oroimen ugari ekartzen dizkio, eta eskailera naiz besaulkiek gogoe-ta politikak ekartzen dizkiote zuzendariari: "Gogoan dut herri honetan hiru zine areto zeuden garaia".

Maider Egues protagonista izan zuen *Hilarri* filmetik *Das Kind* filmera urte eta bizipen asko pasa dira, "nire ikuspuntua ez ezik, zinea egiteko teknika bera

ere izugarri aldatu da". Laburra, ikasleei proposatutako praktika batetik sortu zen.

Dagoeneko Gomezek beste zenbait proiektu ere baditu, batzuk gainera, Arrasaten sortu berri duen ekoiztetxetik irtengo dira.

Guztiaren hasiera

18 minututan argi ilunez jositako istorioa kontatzen du zuzendariak: XIX. mendea, Austria, gizon bat haren semea noiz jaioko den itxaroten dago. Une alaia den arren, familiak ez daki jaiotza horrek gizateriari zein hondamendi sortuko dion. Poztasuna eta krudelkeria, alaitasuna eta beldurra... sentipen guztiak nahastu egiten dira. Ondoren etorriko diren gertakari izugarri batzuen hasiera baino ez da filma.

Filmean, Dreyer edo Haneke-ren arrastoa erraz ikusten da, "gidoia idaztean ez duzu erreferentziarik izaten, baina proiektuak aurrera egin ahala, ezinezkoa da miresten dituzun zinemagileen lanak erreferentzia bezala ez erabiltzea", dio zuzendariak.



Gomez zuzendaria Amaia antzokiko emanaldiaren aurretik. | I.G.

Aretxabaletako Loramendi elkartearen Argazkizkiak lehiaketak baditu irabazleak

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Loramendi euskararen elkarteak egubakoitzean banatu zituen Argazkizkiak lehiaketaren hirugarren edizioako sariak. Lehiaketaren oinarria testuarekin lagundutako argazkiak dira eta Loramenditik aurreratu dutenez, "ederrak izan dira jasotako lanak eta ez da erraza izan aukeratzea".

Lehen saria Asier Iriondo, Gorka Blanco eta Nerea Arresek osatutako taldeak jaso du *Berba* izeneko lanarekin –argazkia eta bertsoa–; bigarrena, Beñat Arizabaletak, *Jone eta biok* lanarekin –argazkia eta ipuina–; eta hirugarrena, lehen erroan zuten talde berak jaso zuen, *Hesian* lanarekin –argazkia eta bertsoa.



Irabazleak euren lanak eskuan dituztela. | LORAMENDI ELKARTEA

GURE MUSIKA TALDEAK

EMON



"Grabazioa askoz ere gogorragoa izan da, baina, emaitza ikusita, merezi izan du"

- 'Sua' lanarekin aurrerapauso bat emateko apustua egin du Emon taldeak
- Betiko koktelari rap musika batu diote oraingoan

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Sua diskoarekin besapean eta familia berrituta dator bueltan Emon. *Konfeti kolore* lanarekin Euskal Herrian zehar hainbat kontzertu eman eta bertako zirkuituan lekua egin ostean, oraingo honetarako Katalunia dute jomugan. Bost astez AME estudioan sartu dira disko zainduago eta landuagoari bizia emateko. **Durangoko Azokan aurkeztu zenuen diskoa; zelako harrera izan zuen?** Azoka bezperan kaleratu genuen; hortaz, ez dakit termometro ona den guretzako; baina gu han izan

ginen bitartean nahikotxo disko saldu genituen eta zuzenekoera joandako ikusle kopuruak harritu egin gintuen. Karpa bete egin zen, eta, egia esan, ez genuen halakorik espero.

AME estudioan grabatu duzue, Axularrekin; oraingoan, baina, produktore lanak ere egin ditu.

Bai, aurreko diskoa harekin grabatu genuen eta ordutik hona zuzenekoetan teknikari izan dugu eta elkarren artean konfiantza osoa dago; hark badaki zer gura dugun eta guk badakigu zelan funtzionatzen duen. Grabatzeaz

gain, produktore izan da; nolabait, taldearen parte bihurtu da.

Grabazioa denboraz hartu zenuten. Musikariok beti nahi dugu aurretik egindakoa gainditu, eta muga gorago jartzen dugu. Produktzioan ordu nahikotxo sartu ditugu oraingoan; gitarrei arreta berezia eskaini diegu, esaterako. Horrez gain, letrak askoz gehiago zaindu ditugu; *Konfeti kolore* kaleratu ostean, hitzei garrantzi nahikoa ez geniele eman ikusi genuen, eta hori aldatzeko lan egin dugu. Besteak beste, Amets Artzallus, Josu Ganuza eta Gurutze Ostolatza izan

ditugu laguntzaile. Kantu alaiak izaten jarraitzen dute, baina badute jenio txarra; bizi dugun egoeraren isla ere badira. Disko askoz ere landuagoa da, askoz ere gogorragoa izan da, baina, emaitza ikusita, merezi duela argi dargu.

Estudioa jo aurretik, aurre-maketa grabatu genuen lokalean, kantuen sonoritatea entzuteko. Baina estudioan, aldaketa nabarmenak izan ditu kantu batek baino gehiagok; hor sartu da produktorearen figura. Azken finean, kanpoko belarri batzuek bestela sentitzen dituzte kantuak eta laguntza handia izan da.

Musika estilo gehiago ere badaude.

Bai; oraingoan, rapak ere badu bere lekua; esaterako, Selektah Kolektiboko Manugaitz Aka Wanka izan genuen estudioan. Kolaborazio asko izan ditugu.

Kolaborazioez gain, Emon handituz doa, ezta?

Bai; Andoni Matxain gitarrista zarautzitarra eta Maikel Antonio Talavera Oñatin bizi den kuba-tarra batu dira taldera, beste kolore bat eman diete kantuei. Horrez gain, zuzenekoetarako argi teknikaria eramango dugu. **Noiz izango da aurkezpena?** Urtarrilaren 9an Bonberenean aurkeztuko dugu, eta Debagoienenean 30ean Elgetan, Bergaran oraindik ez baitugu areto txukunik. Aurtengo asmoa, baina, Euskal Herrian baino gehiago Katalunia aldean jotzea da; urtarrilean bi aste inguru emango ditugu bertan *Sua* aurkezten.

ZERTZELADA



SUA

Estiloa: Mestizajea.

Egilea: Emon (Bergara, 2014).

Argitaletxea: Baga-Biga.

Iraupena: 00 minutu.

Mestizajea eta mundura begirako ikuspegia

Bergarako Emon taldearen bilakaera eta gaur egungo eskaintza ulertu behar da Euskal Herrian hainbat taldek (Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Esne Beltza...) aurretik mestizajearen alde egindako apustuaren testuinguruan. Lan berri honetan, are eta gehiago, hastapenetako ska-rocketik urruntzen doa taldea, eta doinu beroagoak sakonago lantzen dabil: cumbia, cha-cha-cha, tango eta beste hainbat aldaera. Hala ere, tronpetak, saxoak, trikiak, raggamuffiak, teklatuak eta -Nomadak'-en kasuan gitarrak-presentzia handia dute. Hain zuzen ere, mota eta kolore askotako abestien paleta landu dute; eta 'Gauko antzezleri'-n Los Rodriguez ekarri digute gogora.

IKER BARANDIARAN

Itsaso Pagoaga | Haur Hezkuntzako hezitzailea

"Jostailuek mundua ezagutzeko aukera zabaltzen diote haurrari"

Jostailu on batek haurraren beharrak ase behar dituela uste du Pagoagak, eta, besteak beste, sozializatzen eta irudimena lantzen lagundu behar diola

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Itsaso Pagoaga Haur Hezkuntzako hezitzailea da, urte batzuetan Txatxilpurdi aisialdi eta euskara elkartean lanean aritutakoa. *Guraso.com*-en jolaserako baliabideen inguruan idatzi ohi du, guraso eta helduei haurrekin euskaraz jolastu eta ondo pasatzeko baliabideak eskainiz. Baina sarean bakarrik ez, zuzenean ere eskaintzen ditu aholkuak. Besteak beste, hitzaldia eskaini zuen joan den egunean Aretxabaletako Kuku Miku guraso elkartean, eta bertan, jostailuak eta jolasak izan zituzten hizpide.

Zer da jostailu on bat?

Jostailu on bat izango litzateke umearen beharrak eta ezaugarriak kontuan hartzen dituen. Ez da berdina bi urteko edo sei urteko ume batentzako jostailua erostea, eta adin berekoen artean ere, ume bakoitza mundu bat da eta bere ezaugarriak dauzka. Kontuan hartu behar da, jostailua haurraren garapenerako tresna dela, mundua ezagutzeko aukera zabaltzen diona.

Ze gako hartu behar dira kontuan jostailu bat erosterakoan?

Jostailua dibertigarria izan behar da, interesa mantentzeko gaitasuna izan behar du, haurraren irudimena eta sormena sustatu behar ditu eta sozializatzen lagundu behar dio. Horrez gain, estetika garrantzitsua da, eta mate-



Itsaso Pagoaga. | MIRARI ALTUBE

rialek ere badute garrantzia, batez ere segurtasunari begira. Duda-rik gabe, sexu bereizketarik ere ez lukete egin behar.

Iragarki eta katalogoetan horrelakoak ikusten al dira?

Sasoi hauetan katalogo eta iragarki ugari iristen dira haurranga, eta gomendatzen dudana da, adibidez, gurasoek katalogoak haurrekin batera ikustea. Izan ere, iragarkietan agertzen dena ez da %100 erreala, eta komeni da, haurren gaitasunaren arabera, publizitatea aztertu eta interpretatzen irakastea, etorkizunean euren kabuz egin dezaten. Zergatik agertzen dira panpinekin neska bakarrik eta autoekin mutilak bakarrik? Ez da kasualitatea, eta orain sasoi aproposa da haurrekin hori guztia lantzeko.

Dena den, askotan kartoizko kaxa bat edozein jostailu baino hobea izan liteke, ezta?

Hori da. Kartoizko kaxa bat, eurentzat, mila eta bat jolas aukera eskaintzen dituen tresna da. Jostailu asko izatea ez da garrantzitsuena. Jolaserako lagunak izatea, adibidez, garrantzitsuagoa da, eta hori da, nire ustez, bermatu beharko litzatekeena.

Betiko jolasek ba al dute arrakastarik oraindik?

Noski; izan ere, batzuk ateporak dira, eta oraindik aproposak. Dena den, gaur egun, indarra hartzen dabilen jolas mota teknologikoa da, eta alde positibo zein negatiboak izan ditzake, erabilearen arabera eta, nik uste, hori haurrekin eurekin adostu eta arautu behar dela.

'Jolas' berbak berezko esanahia galtzen duenean...

Eskola kiroleko hainbat haurren gurasoen jarrera ikusita, neurriak hartu dituzte kirol elkarateek

GORKA TORRE | ARRASATE

Asko dira seme-alabei partiduetara, lehiaketetara, entrenamenduetara laguntzen dieten gurasoak. Batzuek harmailetan eseri eta ikuskizunaz gozaten dute, baina badira euren onetik aterata ibiltzen direnak ere. Leonen, besteak beste, guraso batek entrenatzaile lanetan zebilen 16 urteko gazte bati jo egin zion.

El Pais egunkariko Patricia Ramirez kazetariak bi multzotan sailkatu ditu kirol jardueretan parte hartzen duten gurasoak. Horrela, batetik, rol "positiboa" dutenak egongo lirateke, haurrak

lagundu, animatu eta kirol elkarateetan parte hartuz ekarpena egiten dutenak. Bestetik, ordea, badira emaitza onegiak eskatuz presioa sorrarazten duten gurasoak, entrenatzaileak balira bezala elkaratearen erabakiak zalantzan jartzen dituztenak, baita irainetara jotzen dutenak ere.

Azken horiek, Ramirezen esanetan, haurrek "gozatzeari utzi" eta "kirola bertan behera utzi" dezaten.

Guraso, eta ez entrenatzaile

Jazotako gertakarien harira, eta egoerak hobera egin dezan, hain-

bat kirol elkaratek eta eskola kiroleko arduradunek gurasoei zuzendutako aholkuak banatu dituzte. Hona horietako batzuk:

1) Gogoratu kirola egitearen arrazoia. Helburua ez da irabaztea. Haurrek gustatzen zaielako egiten dute, baita osasuntsu egoteko eta sozializatzeko ere.

2) Ez behartu haurra gehiago entrenatzera, itxaropen faltuen aitzakian. Saiatzen bada, nahi duen tokira iritsiko dela esanez, adibidez, frustrazioak sor litezke. (Motibazioa alde batera utzi gabe)

3) Presio gehiegirik ez egin eta ez agindurik eman; horren ordez, laguntzen saiatu.

4) Kirol taldeko partaideei zein aurkariei errespetua izan eta emozioak kontrolatu, besteak beste, animatzerakoan.

Gogorarazi dute, baita ere, gurasoek "eredu" izan behar dutela, eta eskola kiroleko orduetan bada ere, guraso izaten jarraitzen dutela, ez entrenatzaile.

9-10 urterekin hasten dira gaztetxoak mugikorra erabiltzen

LARRAITZ ZEBERIO | DEBAGOIENA

Durangoko Azokako Kabia gunean neska-mutiko gazteei zuzendutako ikastaroak egin zituzten Maite Goñik eta Gorka Juliok. Mugikorra segurtasunez nola erabili izan zuen gaia.

Goñik azaldutakoaren arabera, gaur egun, 9-10 urterekin hasten dira gazteak mugikorra erabiltzen. "Azkar ikasten dute mugikorra erabiltzen. Kontua da ondo erabiltzea", zehazten du. Ohiko tresna bihurtu da gaztetxoentzako, baina "jabetu behar dute beste tresna guztiek bezala bi alde dituela".

Gazteekin batera hezitzaileek eta gurasoek ere erabilpen egokiari buruzko zenbait puntu ezagutu beharko litzatekeela uste du adituak. Hala ere, oina-

rrizkoena ezaguna da dagoeneko. "Nahiko sentsibilizatuta gaude datuak ez ematearen kontu horrekin, eta gaztetxoak ere bai", dio Goñik.

Aukera handiak

Arriskuez hitz egin diete gaztetxoei, aurten, baina baita mugikorrek eskaintzen dituzten aukeren inguruan ere. "Irakasleentzako oso tresna baliagarria izan daiteke eta saiatzen gara hori aldarrikatzen", azaltzen du Goñik. "Uneotan mugikorra erabiltzea debekatuta dago ikastetxe guztietan, eta bitartean ordenagailuak erosi eta erosi ari gara. Mugikorra, azken finean, ordenagailu bat da. Jakin beharko genuke mugikorrei etekin gehiago ateratzen".



Bi neskatila Kabia gunean egindako ikastaroetako batean. | L.Z.

ERREZETA

Jengibre gailetak, norberak nahi bezala apaintzeko

M.T. | ARRASATE

250 gramo irin, 100 gramo azukre beltz, koilarakada bat jengibre birrindu eta gatz apur bat nahastu behar dira ontzi batean. Ondoren, nahasketari irabiatutako arrautza bat eta aurrez urtutako 140 gramo gurin gehitu behar zaizkio. Dena eskuekin nahastuta, masa uniforme lortzen da.

Mahaia irineztatu ondoren, arrabolaz masa zabaldu behar da, zentimetro erdiko lodiera lortu arte. Hortik aurrera, masa moztuz, gailetei nahi den forma eman dakieke.

Labera sartzeko erretiluan, gailetak laberako paperaren gainean jarri behar dira. Aurrez 180 graduan berotu ondoren, hamabost edo hoge minutuz sartu behar dira labean, txigortu arte.

Gailetak bere horretan jan daitezke, baina baita azukre-hautsarekin edo urtutako txokolatex estalita ere.

ARGITALPENA

'Itsasoa edan dut', ezezaguna dena beldur barik ikertuta

L.Z. | ARRASATE

Maddik beldurra dio itsasoa- ren hondoari, baina probatu arte ez du jakingo bertan zer dagoen. Leire Bilbaok (Ondarroat, 1978) idatzi du, 6 urtetik gorako umeentzako.

Zelan jakin zelakoa den zerbait probatu aurretik? Galdera horretatik abiatzen da Leire Bilbaoren *Itsasoa edan dut* liburua. Irakurtzen hasten dabilen umeentzat prestatu du Bilbaok beldurrak gainditzeari buruzko istorio hori.

Ibaizabal argitaletxeak argitaratu du liburua, Txirrita bildumaren barruan. Ilustrazioak, berriz, Enrique Morentek egin ditu.

Azken hiru urteotan haur literaturako lanak egiten dabil Bilbaok, eta lan erritmoarekin gustura dagoela azaldu du: "Ez naiz idazle profesionala, eta, lan egin eta gero, ahal dudana heinean, egunari orduak kenduta idazten dut".



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Etxebizitza salgai erdigunean. 68 metro koadro. Bi logela, komuna, sukaldia eta egongela. Guztiz hornitua. 190.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 72 06 64

102. EROSI

Bergara. Bergara aldean baserri bat erosi nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 51 07 71

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan Santakurtz kalean. Prezio onean. 943 79 63 68 edo 675 00 95 77.

Aretxabaleta. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia-jangela eta egongela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Ia berria. Hilean 600 euro. Informazio gehiago www.euskalnet.net/aguirehelbidean edo telefono honetan: 630 60 47 75

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Ferrerías kalean. Hiru logela, guztiz hornitua eta berokuntzarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 66 54 99

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldia, bi komun eta garaje-trasteleku. Berokuntza eta ur bero zentrala. Bizkaia Etorbidea Tean. 645 73 29 66 edo 943 76 03 31 (Jose Manuel)

Bergara. 50 metro koadroko apartamentua ematen da errentan Zubieta kalean. Erositako aukera ere bai, 48.000 euroan. 679 45 57 62

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukaldia-jangela eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 08 39 92 edo 679 56 84 78 telefono zenbakieta.

Esakoriatza. Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Jantzieta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 70 37 51

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, gutxienez bi logelakoa. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. Deitu telefono zenbaki honetara: 605 68 18 49

Baserri bila Debagoienan. Bikote arrasatearra Debagoienan edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. Interesatuok deitu 680 34 29 60 edo 699 28 99 06 zenbakieta.

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 36 09 39

Oñati. Hiru logelako etxebizitza bila nabil, deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 86 98 38

Oñati. Oñatiko neska arduratsua ki edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko luke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 15 15

Oñati. Neska eta mutil euskaldun, langile eta arduratsua etxebizitza bat hartuko lukete errentan, 500 euro inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 72 87 50

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

Arrasate. Pertsona bat behar da erdigunean dagoen etxebizitza osatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 82 69 77

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldia eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaian dago. Wifiarekin. Hilean 250 euro, gastuak barne. Kontratu barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesatuok egonez gero deitu mesedez arratsaldeko 18.00etatik aurrera 653 74 87 51 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Pertsona euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 73 12 56

Bergara. Etxerako pertsona bat behar dugu sei hilabeteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urtarriletik aurrera lan egiteko, 8:00etatik 14:30ak arte. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 05 99 37

402. ESKAERAK

Arrasate. Asteazte zehar ume eta nagusiak zaindu edo denetarik garbiketarako egongo nitzuke. 603 33 50 64

Arrasate. Eskarmentu handiko neska goizetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 12 56 87

Arrasate. Esperientzia handiko mutila asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditut 662 43 08 54

Bergara. 23 urteko neska euskalduna, esperientziarekin, umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu 685 77 40 26 edo 943 76 52 79 telefono zenbakieta.

Bergara. 24 urteko neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita janaria prestatu, etxea garbitu eta ospitaleko egonaldia egiteko ere. Esperientzia dut eta erizaintza ikasketak eginda. Bergaran zein Arrasaten edo Antzuolan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 92 40 53

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak. Modulu bakarra: 22 euro + BEZ

<p>1. ETXEBIZITZAK</p> <p>101. Saldu</p> <p>102. Erosi</p> <p>103. Errentan eman</p> <p>104. Errentan hartu</p> <p>105. Etxeak osatu</p> <p>106. Bestelakoak</p>	<p>3. LOKALAK</p> <p>301. Saldu</p> <p>302. Erosi</p> <p>303. Errentan eman</p> <p>304. Errentan hartu</p> <p>305. Bestelakoak</p>	<p>5. IRAKASKUNTZA</p> <p>501. Jaso</p> <p>502. Eman</p> <p>503. Bestelakoak</p>	<p>7. ANIMALIAK</p> <p>701. Saldu</p> <p>702. Erosi</p> <p>703. Eman</p> <p>704. Bestelakoak</p>	<p>9. HARREMANAK</p> <p>901. Agurrak</p> <p>902. Harremanak</p> <p>903. Deiak</p> <p>904. Bestelakoak</p>
<p>2. GARAJEAK</p> <p>201. Saldu</p> <p>202. Erosi</p> <p>203. Errentan eman</p> <p>204. Errentan hartu</p> <p>205. Bestelakoak</p>	<p>4. LANA</p> <p>401. Eskaintzak</p> <p>402. Eskaerak</p> <p>403. Bestelakoak</p>	<p>6. MOTORRA</p> <p>601. Saldu</p> <p>602. Erosi</p> <p>603. Alokatu</p> <p>604. Bestelakoak</p>	<p>8. DENETARIK</p> <p>801. Saldu</p> <p>802. Erosi</p> <p>803. Eman</p> <p>804. Hartu</p> <p>805. Trukatu</p> <p>806. Galdu</p> <p>807. Aurkitu</p> <p>808. Bestelakoak</p>	<p>10. RELAX</p>



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 apartakale eta txokoarekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espolonia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Masterreka 70 m², 3 logela. Igogailua eta trastelekuarekin. 130.000 €.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubietta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m², 3 logela, trasteleku eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garaiea, txoko eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Artekalde 47 m², 2 logela. Berritua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garaiea eta trasteleku aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiuurre 70 m², 2 logela. Erabat berritua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garaiearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berritua. Igogailua eta terraza handiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiuurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trasteleku, Terrazarekin.
- Mariako 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerka 79 m², 3 logela, berogailua, trasteleku. Garaiea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €
- Sagasti 86 m², 3 logela. 163 m²ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auza 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Aiherra 83 m², 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Torreade 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:

- Osintxu 85 m², 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

Bergara. Eskarmentua eta informea dauzan emakumea etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Debagoiena. Neska lane-rako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriko tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. 56 urteko emakume lanerako gertu. Eskarmentu dut umeak zaintzen, etxeko lanak egiten, garbitasunean eta baita tailerlean ere. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Lan bila nabil: nagusiak zaintzen, garbitasunean edota sukaldia laguntzaile. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Mutila lane-rako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentu dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorikez dut. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 63 21 99

Debagoiena. Mutila lane-rako gertu. Garbiketarako, zerbitzari eta banatzaile moduan lan egin izan dut. Berehala hasteko gertu nengoke. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646 72 08 24

Debagoiena. Mutila lane-rako gertu. Gidari, sukaldia laguntzaile, margotzen, erakuntzan edota nagusiak zaintzen aritutakoa naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egiteko gertu. Gidabaimena eta autoa daukat. 687 08 37 16

Debagoiena. Nagusi eta umeak zainduko nitzuke eta baita garbitasun lanak egin ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 87 22 46

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketarako edota nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko laguntzen. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Geriatria ikasketan ditut. Nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egongo nitzuke. Egun osoz, erdiz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 85 66 02

Debagoiena. Neska arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat. 634 42 67 04

Debagoiena. Neska arduratsua, oinarriko geriatria eta sukaldaritza ikasketaduna, nagusiak zaindu edo denetarik garbiketarako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. 615 06 28 04

Debagoiena. Neska espainiarra egunez zein gauzez nagusiak zaindu eta etxeko garbitzeko gertu. Egun guztian zehar. Esperientzia dut. Interesatuok deitu telefono honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Neska gertu gauzez nagusiak zaintzeko edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 23 86 28

Debagoiena. Neska gertu lanerako: zerbitzari, sukaldia, nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 11 15 14

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketarako gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 15 56 95

Debagoiena. Neska lane-rako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentu dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorikez dut. Berehala hasteko moduan. 603 63 31 55 edo 677 83 37 23

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile, garbitasun lane-tan edota nagusiak zaintzen lan egongo nuke. Autoa daukat. 636 11 23 40

Debagoiena. Tituludun mutila gertu lore zaintzan eta araztegi lan egiteko. Gidabaimena daukat. Adrian. 943 79 82 43

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitarteak eta abar egiten urtetan aritutakoa. 666 83 21 95

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Irakaslea behar da bi mutila eskola partikularrak emateko. Mekatronika moduluko sistemen integrazioa eta sistema elektrikoak. 690 82 61 97

Arrasate. Irakaslea behar da mutilo bati eskola partikularrak emateko. DBH 2. mailako matematikak. 688 65 73 49

Bergara. Irakaslea behar da mutil bati eskola partikularrak emateko, ingeniari graduko 2. maila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 75 65 64

Oñati. Irakaslea behar da bi neskatari eskola partikularrak emateko. DBH 4. maila eta Batxilergoko lehenengo mailarako. 627 91 23 21 (Mila)

6. MOTORRA

602. EROSI

Mendirako motorra. Mendirako motorra erosi nuke. 656 75 76 98

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katu ar heldua. 3 urteko katu arrarentzat etxe berri baten bila nabil, zaindu ezin dudalako. Esterilizatuta dago eta behar dituen txertoak hartuta ditu. Oso jostaria da. 653 71 78 82

Txakurkumeak. Txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 54 05 96

Txakurra opari. Pomerania arrazako txakurra, lau urtekoa, ematen da opari. Alergia arrazoiak direla-eta, ezin dugu zaindu. Oso maitagarria da eta ume artean hazitakoa. Txertoak eta txipa dauka. 625 70 38 92

704. BESTELAKOAK

Txoriak. Txoriak badituzu emateko, nik jasoko nitzuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 637 18 07 23

8. DENETARIK

802. EROSI

Elur-erraketak. Elurretarako erraketak erosi nitzuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 51 22 78

Realeko kamiseta. 6-8 neurriko kamiseta erosi nuke. Berdin da zein denbalditakoa den. Interesatuok idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo deitu edo whatsapp bidali zenbaki honetara: 653 72 22 54

803. EMAN

Bergara. Haurrentzat jostailu eta jolasak ematen dira. 685 77 40 26 edo 943 76 52 79.

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. 699 06 23 95

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. Oinez ibiltzeko edo korrika egiteko zinta trukatu nuke spinnereko bizikleta baten ordean. Zinta Domios TC270 modeloa da. 13 km orduko hartzen ditu eta plataforma aldapan ere ipin daitezke. 665 75 88 52

807. AURKITU

Kartera Antzuolan. Dirua bakarrik duen kartera topatu dute Antzuolan. Ez dauka dokumentaziorik. Galdetu udaletxean. 943 76 62 46

Pen-drivea Aretxabaletan. Azaroaren 20an, Durana kalean pen-drive bat aurkitu genuen. 600 05 19 00

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Neska bila. 40-45 urte bitarteko neska ezkongabea ezagutu nahiko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 615 75 09 90.

ETXEKO SUKALDERAINO

Maria Fagan | Musikaria

- ▶ Musika ez ezik, sukaldaritza ere barrutik bizi izan du txikitatik
- ▶ Bidaiaria, lagunena laguna eta akatsetatik ikasten duenetakoa da

"Musikak ez dit jaten ematen, baina zaletasuna baino gehiago da"

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Txikitatik harmonia zainetan daraman horietakoa da Maria Fagan (Arrasate, 1989), *Mary May* bezala ezagunagoa dena. 6 urte zituenean hasi zituen flauta ikasketak eta 13rekin gitarra bidelagun izango zuela erabaki zuen. 14 urte ingururekin hasi zen bere kantu propioak egiten eta gaur egun 200 emanalditik gora emandakoa da Euskal Herrian, Irlandan eta Frantzia.

Zelakoa da Maria Fagan?

Bizipen, emozio, kezka, kontraesan, sentimendu eta kaos honi guztiari ahotsa eta musika jartzen dion pertsonaia.

Zein harreman daukazu sukaldearekin?

Txikitatik izan dut gustuko. Beti begiratu izan diet amari eta amonari sukalde lanetan ibili direnean eta gaur egun egiten ditudan plater batzuetan asko igartzen da hori.

Zein da zure espezialitatea sukaldean?

Porru-patatak.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena?

Uda aldean gonbidatuko nuke bazkari goxo batera Zarauzko Aiten-Etxean. Eta gauean, noski, parranda.

Eta etsirik handiena?

Esaldiak dioen moduan: *Arierioari ezta urik ere, eta desertuan baldin badago polboroiak.*

Zeinek gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Bat bakarria aukeratzea oso zaila da, baina, horrela izanda, U2 taldeko Bonorekin eseriko nintzateke, bere kantuek diotenari buruz jarduteko. Oso letra sakonak ditu.

Zergatik musikari?

Ez dut nire burua musikaritzat hartzen. Niri jaten ez dit musikak ematen, lanak baizik, baina zaletasuna baino gehiago ere bada. Barrenean gordetzen ditudan sentimenduak ateratzeko modu bat daukat nik musikan.

Sukaldaritzak eta musikak badute zerbait batera?

Biak ditut gustuko. Eta sukaldean nabilela gustuko dudana musika jartzen badut, ziurrenik goxoago dago dena.

Musikan miresten duzun inor?

Momentu honetan, Ben Howard eta Bon Iver-eko Justin Vernon ditut palko baten. Konposatzen dituzten abestiak maisulanak dira, nire ustez. Inoiz maila horretako abestirik egitea lortzen badut, oso pozik egongo naiz nire buruarekin.

Zer maite duzu bizimodu honetan?

Bidaiatzea, izkina guztietan ditudan lagunekin elkartu eta gure bizipenez hitz egitea eta, nola ez, musikalki haztea.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera ematen dizute.

Bat, Leonardo Dicaprio ezagutzea; bi, denboraldi bat Ameriketako Estatu Batuetan ematea; eta hiru, zorion absolutua aurkitzea.

Bitzitan ezinbestekoa da...

AUKERAN...



Lehen platera: Amamak egindako azalorea bexamelarekin.

Bigarrena: Kokotsak saltsan.

Postrea: Txokolate-moussesa.

Edatekoa: Godello ardo zuria.



Mery May musikari arrasatearra. | MARIA FAGAN

"Nire bihotzeko Dublin maitera denboraldi baterako joango nintzateke"

Lagun sorta on bat bizkar gainean eramatea.

Zure bizitzako anekdota bat.

Bakarria aukeratzea zaila da, baina ugari izan ditut, bai. Bereziki, prestatzen ez direnean gerta daitezkeen gauzak. Jende interesgarri asko ezagutu dut prestatu gabeko egunetan.

Zer errepikatuko zenuke?

Denboran atzera eginda, Burdeos-en igarotako urtea.

Zerk beldurtzen zaitu?

Nire oroitzapen onenak ahazteak, duda barik, horiek altxortzat baititut.

Damu zara...

Damu, mila gauzaz, baina, seguru aski, akats horiek egin ez banitu ez nintzen izango gaur egun naizena.

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Sex & The City.

Nora ospa egingo zenuke gustura?

Aitaren herrira; nire bihotzeko Dublin maitera denboraldi baterako egingo nuke alde, gustura asko.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Errealitatea gorroto dut, baina xerra bat jan dezakedan leku bakarria da (Woody Allen).

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

PASTA LANGOSTINOEKIN

Langostinoak jateko garaian gaude; izan ere, Gabonetan beti izaten ditugu etxean; bai janaurreko bezala, bai lehenengo plater bezala. Horregatik, langostinoekin osatutako errezeta bat proposatuko dizuet.

Familiarekin goxo-goxo gaude, negua etxe berotik kanpo utzita, naturari esker gurera heltzen diren langostinoek, nahi eta nahi ez, izugarri pozten gaituzte; agian, Gabonekin bat datorren janaria delako.

Sukaldean

Jaki horretaz disfrutatzeke ez da aditua izan behar; lapikoan egin edo egosiz, segituan prestatzen den platera da. Gainera, oraingo honetan eskaintzen dizuedan errezetan daudden osagaiez lagunduta, plater zoragarria bihurtzen da. Beraz, *Bon appetit!*



Protagonismo handia dute langostinoek plateran. | THE COOK ROCKER

Fitxa

▶ Denbora: 30 minutu.

▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK

▶ Pasta, 250 gramo.

▶ Langostinoak, 15-20 inguru.

▶ Esne-gaina, 150 ml.

▶ Baso erdi txakolin.

▶ Berakatz-atal erdi.

▶ Olio, gatza, perrexila eta piperbeltza.

▶ Gazta parmesanoa.

Prestaketa

1. Lehenengo, langostinoak garbituko ditugu. Segidan, ondo xehatu, eta zartagin batean berakatz eta olio pixka bat jarriko dugu.

2. Berakatz txigortzen hasten denean, langostinoak botako ditugu. Laranja kolorea hartzen dutenean, txakolina botako diogu, eta, horrela, pare bat minutu utziko dugu, alkohola lurrundu arte.

3. Ondoren, esne-gaina zartaginera botako dugu. Baita perrexil eta gazta parmesanoa ere. Saltsa egiten dagoen bitartean, nahastu egingo dugu. Eta su ezitan egiten utziko dugu.

4. Bitartean, pasta egingo dugu.

5. Pasta egin ostean, nahastu egingo dugu langostinoekin eta saltsarekin, eta kito!

Google News zerbitzua eten dute Espainian, legea dela eta

Espainiako Gobernuaren erabakia mundu mailako murriztaileena da

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Halaber, Googlek hedabideetako albisteetako bilaketan emaitzak erakusten dituen Google News zerbitzua eten du Estatuan. Aurrerantzean, hortaz, Espainiako egunkarietako albisteak ez dira agertuko bilatzaile horretan. Espainiako Gobernuak ezarri berri duen Jabetza Intelektualaren Legearen ondorioz etorri da zerbitzuaren itxiera eta Espainiako Egunkarien Editoreen Elkarteko kide diren argitalpen guztiei, nahi edo ez, aplikatuko zaie. Googleren bilatzaile orokorrean emaitzek agertzen jarraituko dute, ordea; News zerbitzuaren etetea da lege berriak eragin duena. Mundu mailako lehen herrialdea eta bakarra da Espainia halako neurria ezartzen duena. Lehenago, Alemanian, antzerako saiakera bat egindakoak dira, baina hedabideen euren eskariz atzera egin zuten han, neurriak eragindako trafikoa murrizte handia ikusita. Hala ere, Espainiako Gobernutik adierazi dute negoziazio mahaia sortu gura dutela, 2015ean, legea



Google News. | GOOGLE

benetan indarrean sartzen den momentuan. Editoreen elkartetik bultzatutako neurria izan da hori, baina, Googlerekin harreman ona euste aldera, kolaborazio bideak proposatzen hasi dira. Hain zuzen, publizitatea kudeatzeko plataforma bateratua garatu du Googlek, eta hori begi onez ikusten dute editoreek, hau da, Espainiako egunkari nagusien jabeek.

Orain, zerbitzua etenda, ikus-kizun dago nola eragingo dien

egoera berriak hedabideei. 2001ean abiatutako zerbitzua da Google News eta hedabideetako eduki berriena hobeto aurkitu eta aurkezteko bilatzaile nagusiaren moldaketa bat da. Albisteen beritasuna eta garrantzia hartzen da kontuan, gainerako webguneenak agertzen den edukiaren gainetik.

Europar, jarrera garbirik ez

Googleren eta albisteen argitaratzaileen arteko ika-mikak askotariko erantzuna izan du Europar, herrialdez herrialde. Nahiz eta editoreak euren jabetzakoa den eduki baten erabilera desegokia salatu, askok onartzen duten edukiaren sustapenean eta agerikotasunean Googlen agertzeak egiten dien mesedea. Alemanian, azaldu moduan, atzera egin zuten eta Frantzia, berbarako, akordio batera iritsi ziren funts bat eratzeko. Belgikan auzitegiek galaz egin zioten Googleri albisteen testu eta argazkiak erabiltzea baina hedabideek azkenean akordioa lortu zuten. Errotik eten, ordea, Espainian soilik egin da eta onura ikusteko dago.



Clip-on gailua, betaurreko batzuei erantsita. | SONY

Edozein betaurrekotarako gailua aurkeztu du Sonyk

J.B. | ARRASATE

Edozein betaurreko pare adimendun bilakatzeko sistema aurkeztu berri du Sonyk. Hau da, gailua bera betaurrekoa izan barik, edozein betaurrekoki atxiki dakioken gehigarria da aurkeztu duena, gailu independentea da eta ohiko betaurrekoetara egokitzen da. Asmakizunari Clip-on izena ipini diote eta azkenaldian Sony aurkeztzen dabiren berritasun andana deigarriari batzen zaion gailu berria da.

Ezaugarriak

Betaurreko areagotuen esparruan ez da Sonyk egingo duen lehen saiakera. Smart Glass

betaurrekoak aurkeztu zituen, baina teknologia eta diseinu aldetik zaharkituta geratu da gailua erabat. Proposamen honek, gailuaren praktikotasunaz gain, softwarearen asmatu behar-kori atxiki dakioken gehigarria da aurkeztu duena, gailu independentea da eta ohiko betaurrekoetara egokitzen da. Asmakizunari Clip-on izena ipini diote eta azkenaldian Sony aurkeztzen dabiren berritasun andana deigarriari batzen zaion gailu berria da.

Betaurrekoak aurkeztu zituen, baina teknologia eta diseinu aldetik zaharkituta geratu da gailua erabat. Proposamen honek, gailuaren praktikotasunaz gain, softwarearen asmatu behar-kori atxiki dakioken gehigarria da aurkeztu duena, gailu independentea da eta ohiko betaurrekoetara egokitzen da. Asmakizunari Clip-on izena ipini diote eta azkenaldian Sony aurkeztzen dabiren berritasun andana deigarriari batzen zaion gailu berria da.

Betaurreko areagotuen esparruan ez da Sonyk egingo duen lehen saiakera. Smart Glass

Robin Williams eta iPhonea, bilatuenak

2014an zehar Googleren bilatzailean gehien bilatutako terminoen zerrenda aurkeztu dute

J.B. | ARRASATE

Google enpresak urtero egiten du bilatzailean gehien bilatutako terminoekin zerrenda, eta, hain zuzen ere, urtearen argazki moduko bat aurkeztu gura izaten dute. Google Zeitgeist delakoan, aurten, denetarik emaitzak jaso dira: pertsonaia-rik garrantzitsuenak, Youtubeko bideorik ikusienak, gailurik bilatuenak... Zerrenda horretatik, noski, webgune batera sar-

tzeko helbide barran idatzi barik haren izena bilatzailean idatzita sartzen diren horien kontsultak ezabatu dira. Emaitzak, horrenbestez, gehien bilatutako terminoak dira. 2014ari dagokionez.

Askotariko izenak

Hasteko, pertsonarik bilatuena aurten hil den Robin Williams aktorea izan da eta bigarren eta hirugarren lekuetan daude Mun-



Robin Williams aktorea. | ARGAZKILARIAXXX

duko Futbol Txapelketa eta ebo-la gaitza, hurrenez hurren. Bestelako artean, zerrendan daude Malaysia Airlineseko ezbeharrak eta Ice Bucket Challenge kanpaina. Flappy Bird

aplikazioa eta Conchita Wurst abeslaria. Pertsona famatuena artean, aipatutako horiez gainera, Jennifer Lawrence aktorea, Kim Kardashian enpresaria eta Julie Gayet aktorea daude. Bada,

aktoreak dira zerrendan nagusi, Lorde eta Jared Leto musikariak salbu.

iPhone 6-a, bilatuena

Teknologiari dagokionez, interes handiena pizten duten gailu eta teknologia gaien zerrenda ere aurkeztu du Googlek, eta aurten erregea iPhone 6-a izan da, oso gaitetik. iPhonea, hain zuzen, lehenengo hamarren zerrenda horretan hiru aldiz agertzen da hainbat modelorekin. Beste gailu bilatuenak dira Samsung Galaxy S5-a, Moto G-a, Moto X-a, Xperia Z1-a eta Galaxy Noteren 4aren belaunaldia.

Googlek zerrenda egiteko ez dio bakarrik bilaketa kopuruari begiratzen, termino horrek epe baten izandako hazkundera ere hartzen du kontuan.

Sarraila inteligentea, Sonyren berria

Telefonoarekin kontrola daitekeen sarraila garatzen dabil Sony: Qrio Smart Lock. Zifratutako kodeen bitartez irekitzen da sarraila eta kode horiek mezuen bitartez ere parteka daitezke. Merkatuan egingo den gisa horretako sarrailarik txikiena da.



Skypek testu eta ahots itzultzaile automatikoa ezarri du

Translator delako zerbitzua abiatu du Skype aplikazioak. Probatarako bertsioan dago oraindik, baina emaitzak ematen hasi da. Sistemak jada itzulita dauden testu eta audioak erabiltzen ditu datu basea osatzen joateko. Horri esker, munduko hizkuntza nagusietan jarduteko gauza da komunikazio aplikazioa.

Bideoetatik GIFak egiteko aukera gehitu du Youtubek

Aukera berri horrekin, bideo jakin baten puntu batetik bestera GIF bizidun bat egiteko aukera ematen du Youtubek. Irudia Youtubeko erabiltzailearen kontura geratu da lotuta eta sarean erabili dezake txertatu ala elkarrizketetan erabili ahal izateko. Oraingoan, kanal batzuetan bakarrik egin daiteke.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

Agur, 'Goenkale'

Ondo irakurri duzu, 20 urte bete ostean, *Goenkale* bukatu da. Betiko.

Hala iragarri zuen aurreko astean EITBko zuzendaritzak. Otsailean grabatuko dute azken atala, nahiz eta 2015eko udazkenera arte, behintzat, pantailan ikusiko dugun tele-saila.

Goenkale izan da ETBk inoiz egin duen saiorik luzeena; izan ere, Europako historia osoan zehar, berriz diot, Europako historia osoan zehar egon den telesailik luzeena izan da *Goenkale*. Milaka atal eta ehunka aktoreekin, tartean, Debagoieneko hainbat eta hainbat.

Agur esango diogu, beraz, Euskal Herriko afalosteak bete dituen Arralde herriari, ia-ia benetako bilakatu den herriari, belaunaldi guztiek ezagutu duten Arralderi. Euskal ekoizpen batek zerbati hain handia lortzea ikaragarria izan da.

Beraz, azken urteetan tele-sail hori ikusten ez nuela aitortu behar badut ere, esker oneko hitzak besterik ez dut bertan lan egin duten profesional guztientzat; batzuk pertsonalki ezagutzen ditut, gainera, eta bihotzez esan dezaket beraien onena eman dutela proiektu erraldoi honetan. Zorionak eta ondo segi!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 22



Santamasak

Arrasateko santamas jaien gaineko saio berezia eskainiko dute astelehenean jasotakoarekin. | 22:00

12:00	Debagoiena zuzenean
13:00	Ur eta lur
13:25	Zorion Agurrak
13:30	Debagoiena zuzenean
14:30	Berriak
15:00	Kulturriketak
15:30	Onein
16:00	Debagoiena zuzenean
16:30	Berriak
17:00	Osoko bilkura: Oñati
18:25	Zorion Agurrak
18:30	Berriak
19:00	Amaia DJ
19:30	Kulturriketak
20:00	Berriak
20:30	Osoko bilkura: Oñati
22:00	Jaiak: Santamasak
22:30	Berriak
23:00	Kulturriketak
23:30	Jaiak: Santamasak
00:00	Debagoiena zuzenean
00:30	Berriak

MARTITZENA, 23



Osoko bilkura

Bergarako 2015eko aurrekontuen gaineko osoko bilkura osorik ikusi ahal izango da martitzenean. | 22:00

12:00	Debagoiena zuzenean
12:30	Jaiak: Santamasak
13:00	Sasoi betean
13:25	Zorion Agurrak
14:00	Debagoiena zuzenean
14:30	Berriak
15:00	Jaiak: Santamasak
15:30	Onein
15:55	Zorion Agurrak
16:00	Osoko bilkura: Oñati
17:30	Gogoetaren plaza
18:25	Zorion Agurrak
18:30	Berriak
19:00	Idemtitateak
19:30	Jaiak: Santamasak
20:00	Debagoiena zuzenean
20:30	Berriak
21:00	Debagoiena zuzenean
21:30	Berriak
22:00	Osoko bilkura: Bergara
23:30	Berriak
00:00	Jaiak: Santamasak
00:30	Debagoiena zuzenean
01:00	Berriak

EGUAZTENA, 24



Musikala

Olentzero & Co. musikalak ikusgai. Ikuskizuneko protagonistak Bergarako artistak dira. | 21:30

12:00	Debagoiena zuzenean
13:00	Ikusi irratia
13:55	Zorion Agurrak
14:00	Debagoiena zuzenean
15:00	<i>Olentzero & Co.</i> musikala
16:45	Osoko bilkura: Bergara
18:15	Jaiak: Santamasak
18:45	Debagoiena zuzenean
19:40	Jaiak: Santamasak
20:15	Ikusmira
20:30	Debagoiena zuzenean
21:30	<i>Olentzero & Co.</i> musikala
23:15	Amaia DJ
23:45	Gogoetaren plaza
00:30	Debagoiena zuzenean

EGUENA, 25



'Peter Pan'

Peter Pan musikalak ikusgai. Aitor Garitano bergararra da ikuskizuneko protagonista antzetzten duena. | 21:30

12:00	Debagoiena zuzenean
13:00	Gipuzkoa pedalka
13:30	Idemtitateak
13:55	Zorion Agurrak
14:00	Debagoiena zuzenean
15:00	Gogoetaren plaza
16:10	Zorion Agurrak
16:15	Debagoiena zuzenean
17:15	<i>Peter Pan</i>
19:30	Gipuzkoa pedalka
20:00	Debagoiena zuzenean
21:00	Amaia DJ
21:30	<i>Peter Pan</i>
23:45	Amaia DJ
00:15	Debagoiena zuzenean
01:00	Jaiak: Santamasak

EGUBAKOITZA, 26



Tobera

lazko Bergarako tobera antzerki satirikoa. Bagarak Debagoieneko antolatutako hirugarrena. | 21:00

12:00	Debagoiena zuzenean
13:00	Amaia DJ
13:30	<i>Peter Pan</i>
15:55	Zorion Agurrak
16:00	Debagoiena zuzenean
17:00	Gipuzkoa pedalka
17:30	Ertzak
18:10	Ikusmira
18:25	Zorion Agurrak
18:30	Idemtitateak
19:00	Ur eta lur
19:30	Amaia DJ
20:00	Debagoiena zuzenean
20:30	Sasoi betean
21:00	Tobera herri-antzerkia
23:15	Kulturriketak
23:45	Gogoetaren plaza
00:45	Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

Urtarrilaren 5ean itzuliko da 'Igo autobusera!'

Arrasate Irratiko autobusak atsedean hartuko du Gabonetan eta urtarrilaren 5ean itzuliko da *Igo autobusera!* irratsaioa zuzenekoekin 107.7ko uhinetara. Bitartean, baina, Arrasate Irratian izango da zertaz gozatu; izan ere, musikaririk onena entzun ahal izango da 24 orduetan, eten barik.

'Birzi bizi' mahai-jolasa oparitu dute hurrengo zozketa egiten denean

Urtarrilean, Arrasate Irratia ohiko programaziora itzultzen denean, lehenengo asteko zozketan *Birzi bizi* izeneko mahai-jolasa zozketatuko dute. 8 urtetik gorako gaztetxoendako da eta parte hartzeko 943-25 05 05era deitu beharko da, edo, bestela, irratia@goiena.com helbidera idatzi.

Entzuleek Arrasate Irratian parte hartzeko aukera daukate

Herritarrei eta entzuleei aukera eman nahi zaie Arrasate Irratian parte har dezaten. Norbait zoriondu nahi badute edo bestelako proposamenen bat egin nahi izanez gero, jarri harremanetan irratia-ekin. Horretarako, deitu 943-25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com-era mezua. Animatu eta parte hartu!

TELE-ALBISTEAK

Santamas jaien gaineko saio berezia gaur, astelehena

Arrasateko jai giroa jasoko dute egunean zehar eta 22:00etan egongo da ikusgai Goiena telebistan



lazko santamas jaietako postuetako argazki bat. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Arrasateko aurtengo santamasekin disfrutatu ahal izango da gaur, astelehena, 22:00etan, Goiena telebistan. Jaietako protagonistak izango diren *Holan* eta *Merke* txerriak erakutsiko dituzte saioan eta kaleko giroa eta postuetan dagoena jasoko dute.

Hainbat tokitan dauden feria eta erakusketak ikusi ahal izango dira saioan: Laubide plazako ganadu feria, Biteri etorbidean jartzen den hegazti erakusketa, Seber Altube plazako fruta eta barazki erakusketa, Jokin Zaitegi plazan eta ganadu feriaren inguruetan egongo den artisau langintzen feria...

Bestetik, Herriko Plazan Armaixoko Sagardogileen sagardo dastaketa eta taloak ere izaten dira, eta herritarrei galdetuko diete ea zer moduzkoak izaten ari diren santamasak.

Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak kalean ibiliko dira herriko trikitilariekin, Udaxpe txistulari taldearekin, albokariekin eta Arrasateko gaiteroekin. Hori ere ikusi ahal izango da.

Oñatiko eta Bergarako osoko bilkurak

A.T. | ARRASATE
Egubakoitzean eta asteburuan Arrasateko osoko bilkura eskaini ostean, aste honetan, Oñatiko eta Bergarako 2015eko aurrekontuen gaineko osoko bilkurak ikusi ahal izango dira Goiena telebistan.

Oñatikoa astelehenean 17:00etan eta 20:30ean ikusi ahal izango da, eta martitzenean, berriz, 16:00etan ere eskainiko dute.

Bergarako 2015eko aurrekontuen osoko bilkura, ostera, gaur, astelehena, egingo dute eta Goiena telebistan bihar, martitzena, ikusi ahal izango da, 22:00etan, eta eguaztenean errepikatuko dute, 16:45ean. Gertutik jarraitu ahal izango da, beraz, horietan gertatzen den guzti-guztia.

Gabonetako programazioa Goienan

A.T. | ARRASATE
Ohiko programazioak aldatzeko izango ditu Gabon sasoiaren Goiena telebistan.

Berriak saioa gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, eskaintzeaz gain, hilaren 29an eta 30ean ere eskainiko dute (14:30). Bertan, egunotako albiste nagusienak jasoko dituzte. *Berriak* saioa, Gabonen ostean, urtarrilaren 5ean itzuliko da.

Iluntzeetan eskaintzen den *Debagoiena zuzenean* saioa, bestetik, urtarrilaren 7an itzuliko da zuzenekoekin. Hala ere, urtarrilaren 7ra bitartean, urtean zehar egin diren erreportajeak ikusi ahal izango dira hainbat egun eta orduetan (ikus goiko telebistaren programazio taula).

ZORION AGURRAK



BERGARA
Unax Murgizu
Abenduaren 29an, 8 urte. Zorionak, Unax! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxeko danen partetik.



OÑATI
Irati Letona Zumalde
Abenduaren 29an, 4 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
Elene Larrañaga Agirre
Abenduaren 28an, 8 urte. Zorionak, Elene! Patxo eta besarkada potolo bat etxekuen partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



OÑATI
Eneko Aranburu Onaindia
Abenduaren 27an, 9 urte. Zorionak, *guapo*, zure bederatzigarren urtebetetzean.



OÑATI
Aetz Larrea Negeruela
Abenduaren 25ean, 5 urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo erraldoi bat etxeko danon partetik. Hegoa eta Beñatenak sudur puntan.



ESKORIATZA
Manex Barandiaran Guijarro
Abenduaren 24an, 4 urte. Zorionak, Manex! Gure etxeko 'kotalitok' lau urte ditu. Patxo handi bat etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



ARRASATE
Lur Lamadrid Garcia
Abenduaren 24an, 8 urte. Zorionak, Lur. Egun ona pasatu, bihotza, etxekuen partetik. Asko maite zaitugu. Muaka!



BERGARA
Aner Arriola Gallastegi
Abenduaren 23an, 9 urte. Zorionak etxekuen partetik. Asko maite zaitzugu, *enano!* Bikain pasatu eguna eta asko disfrutatu bederatzia! Besarkada handi bat!



BERGARA
Aitor Beistegi Frias
Abenduaren 23an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA
Nerea Gastañaga
Abenduaren 28an, 20 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta ondo pasa dezazula zure urtebetetze eguna. Muxu handi bana!



ARRASATE
Ametz Zulueta Algorta
Abenduaren 22an, 6 urte. Gure Anbotoko damarentzako, zorionak eta musu handi bat! Ondo pasatu Santamasetan!



ARETXABALETA
Arkaitz Ibabe
Abenduaren 21ean, 8 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo potolo-potolo bana denon partetik.



BERGARA
Maddi Barrocal Santos
Abenduaren 20an, 9 urte. Zorionak! Ondo pasatu urtebetetze eguna, familia eta lagun partetik.



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Zorionak, Gari eta Oihan. Abenduaren 20an 4 urte beteko dituzue. Ondo ospatu zuen urtebetetze eguna eta patxo potolo bat etxeko guztion partetik. Bereziki lizaro, amatxo eta aitatxo.



OÑATI
Beñat Arana Urtzelai
Abenduaren 19an, 5 urte. Zorionak etxekuen partetik! Pozik ospatu zure urtebetetzia.



BERGARA
Beñat Urbina Olaso
Abenduaren 19an, 5 urte. Zorionak, Beñat! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna zure laguntxuekin eta familiarekin.



ARRASATE
Jon Andoni Barrena
Abenduaren 18an, 39 urte. Zorionak, tio Jon! Beste urte bat gehiago... Ondo-ondo pasa dezazula zure eguna eta mila muxu Ekaitzen eta Iratiren partetik.



LEINTZ GATZAGA
Eider Errasti Beloki
Abenduaren 18an, urtebete. Zorionak, politxo! Muxu handi bat etxekoen partetik.



ESKORIATZA
Ametz Belategi Arrese
Abenduaren 18an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenien ailegatu da zure eguna. Ondo-ondo pasatu eta disfrutatu. Patxo potolo bat familia danaren eta, bereziki, Oihanen partetik. Gora Real!



ARRASATE
Paulo Ferreira Jausoro
Abenduaren 16an, 16 urte. Zorionak, Paulo! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
Ilargi Villar Urrutia
Abenduaren 15an, 7 urte. Zorionak, printsesa, zorionak, poxpolin! Zelako ondo pasatu geben zure eguna! Beti bezain alai eta pozik jarraitu, maittia. Muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik. Auritz, Xuban, amatxo eta aitatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitzez Goiena.eus atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorianagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitzez Goienaren ordezkartzaren batera.

Abenduaren 18ko 17:00ak arte jasotako zorion agurra iragarri ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak urtarrilaren 9an, egubakoitza, argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Malen Beistegi Otaño

Bergara. 3,570 Kilo. Abenduaren 17a. Gurasoak: Maite eta Eneko. Argazkian, Malen txikia Unax anaiarekin.



Garazi Martins Lera

Oñati. 3,380 Kilo. Abenduaren 15a. Gurasoak: Mari Luz eta Tiago. Argazkian, Garazi jaioberria sehaskan lo.



Unai Diaz Davila

Bergara. 3,030 Kilo. Abenduaren 15a. Gurasoak: Maria eta Iñaki. Argazkian, Unai lasai-lasai.



Manex Jimenez Izagirre

Arrasate. 3,570 Kilo. Abenduaren 14a. Gurasoak: Maitane eta Fran. Argazkian, Manex txikia sehaskan.



Paule Avila Hernando

Aramaio 3,160 Kilo. Abenduaren 12a. Gurasoak: Montse eta Igor. Argazkian, Paule txikia irribarretsu.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkarietara batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Atsegin	Zeregina	Lo-kuluxka
	Estalki	Bildukin	Koreakoa
	* Irudiko garraio-bidea		
	Debako auzoa		
Modura	Basamortu		
Dute, niri	AEB-etako diru		
		Bizkaiko herria	
		Amerikako aintzira	
Txanpon		Egoskin mota	
Nafarroako udalerrria		Bilo	Alderantziz, ni filosofikoa
Gizon izena		Ipar EH-n, inguru	
Barruan		Nitrogenoa	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

N	V	N	E	N	E	A	B
R	A	R	E	N	E	A	R
I	R	I	R	I	R	I	R
V	L	T	E	R	A	V	L
V	E	T	E	A	V	E	T
D	I	D	A	T	E	A	D
O	L	E	K	A	R	O	L
A	N	O	A	N	O	A	N
T	A	P	A	K	I	T	A
L	L	L	L	L	L	L	L

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Gabonetako espiritua beti aldean eramateko

Zuhaitzak eta balkoiak, etxeak eta kaleak, denak Gabonetako apaingarriz jantz badaitezke, zergatik ez zure bizarra? www.nopuedocreer.com



ASTEKO DATUA

7.801

EZKONTZA 2013AN EAE-N

2013ko ezkontzen estatistikak eman ditu Eustatek, eta, horren arabera, orain dela bi urte baino %5,9 ezkontza gutxiago egin ziren

iaz. Lau ezkontzatatik hiru zibilak izan ziren, eta ezkondu aurretik, bikoteen %49 batera bizi ziren. www.eustat.es

EGURALDIA



Max. 14°

Min. 2°

Zeru urdinean eguzkia jaun eta jabe et hego haizearekin tenperaturak gora egingo du. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-12-22

HAMARREKOA

Julen Telleria Jaioterriaz harro dagoen tolosarraren ahotsa egin zen lehenengo ezagun, besteak beste, 'Akabo bakea' irratsaioarekin; orain, ETB1eko 'Gu ta gutarrak' programa aurkezten du. | TXOMIN MADINA

"Oraintxe bertan sinatuko nuke bizitza osoan irratian aritzea"

1. Saioan, Euskal Herriko kuadrilla jatorrenaren bila zabilta. Jatorrena ez da, bada, norberarena? Horretan dudarik ez dut, baina ikuspegi soziologikotik polita da elkar ezagutzen ez duten gazteak batu eta ondo moldatzen diren frogatzea. Ondo irten da esperientua: agerian geratu da norberarenaz gain beste kuadrilla jator batzuk sor daitezkeela.

2. Nolako esperientzia dabil izaten zuretzat? Telebista mundu ezezaguna nuen, eta asko ari naiz ikasten. Saioko gazteekin ere asko nabil ikasten: giza ikuspegitik, bat-batean sekulako harremanak sortu dira.

3. Parte-hartzaileak asko aldatzen dira kamera piztuta egon edo ez? Uste dut kontziente ere ez direla; kamerinoan ere platoon bezalako harremana dute; kamerak erabat ahaztuta dauzkate.

4. Saioak ez ditu kritika gutxi izan. Espero baino askoz gutxiago eta suabeagoak izan dira. Formatua gustatu edo ez, gure ibilbideak kritika batzuk, behintzat, isilarazi ditu. Hasieran kontra zeuden askok onartu dute nerabe asko euskarazko telebista ikusten jarri ditugula.

5. Zer ikasi duzu euskal gazteriaz? Anitza dela; denetarik dago, eta horren jabe izan behar dugu. Belau-naldi aldaketa dago: gazteok, aukeratzeko aukera izan dugu eta euskal gazteei munduko edozein gazteri gustatzen zaiona gustatzen zaie.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Euskal herritarrok hobeto ulertuko genuke elkar, eta baita elkar errespetatu ere; Gabonetan bezala!"

6. Telebista bai, baina irratia uzteko asmo barik. Ez, horixe! Oraintxe bertan sinatuko nuke bizitza osoan irratian aritzea. Telebistan oso gustura nabil, baina irratiak beste magia bat du. Eta zorzea dut, irratian egiten dudana oso gustuko dut-eta.

7. Irratian ikusten ez ditugunak ikusiko bagenitu... Batzuetan, asko irabaziko luke, baina irratiaren misterioa ere hor dago. Gure kasuan, katxondo mundiala ikusiko zenukete, eta lotsatzeko ezer ere ez.

8. Noiz konturatu zinen komunikazio mundua zela zeurea? Beti izan naiz saltseroa. 8 urterekin andereñoak esan zion amari bertsolaria izango nintzela, plaza-gizona. Karrera aukeratzeko ere, zehazki zer zen jakin gabe, izenagatik, Ikus-entzunezko Komunikazioa aukeratu nuen lehenengo: ikusi, entzun, komunikatu.

9. Mundu horretan bi lan izateko, nori jarri behar zaizkio kandelak? Zorte handia izan dut, eta une egokian leku egokian egon naiz. Baina zortearen esku ahalik eta gutxien utzi; sinesten duzunean saiatu, egin lan gogor. Niri balio izan dit.

10. Gabonak: familia giroan ala etxetik kanpo? Kostako zaio bakarren bati ni Gabonetan etxetik kanpo ikustea. Inauterietan batera, urteko egun garrantzitsuenak dira, irrikaz egoten naiz noiz helduko.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



'Puntua'

Aldaketa-oharrarekin dator aste honetan (ere) asteleheneko GOIENA: datorren urtarrilaren 16tik aurrera asteleheneko GOIENAREN lekuan *Puntua* kaleratuko da eta GOIENAREKIN batera iritsiko da gure etxeetara, egubakoitz batean bai eta hurrengoan ere bai, puntual-puntual.

Asteleheneko GOIENAREN puntu eta jarraia izango da *Puntua*.

Ez dago gaurik goizaren ondorena gaberik, ez iretargi-aldirik zazpi egunetik hara luzatuko denik; momia ez den oro aldatu egiten dela dio poetak; horrenbestez, astelehenaren hasitako lan-astearen buruan egubakoitzaren, halaxe Asteleheneko GOIENAREN jarraipenean ere *Puntua*, ziber-eremuetan *puntu eus* atsegin beteko markarekin aurkituko duguna, eta Debaren Goeneko berriak lau puntu kardinaletara zabalduko dituen.

Urtarrilaren 16a bihurtuko da abiapuntu; hortik aurrera, hor izango dugu Urkuluko ura edaten dugunok informazio fidagarriko argi-puntua eta entretenimendurako jo-puntua.

Ongi etorri gure artera, *Puntua*, eta irakurleon begikotasun eta irakur-min laztanenek eraman dezatela iraupenaren bidean aurrera, irteeraren puntu-puntutik.

GABONETAN
ondo entzutea, oparirik onena da

**%15
BEHERAPENA
AUDIFONOETAN***



Merkatuko
mugikorrik
erabilerrazena

**160€
ESKAINZA**



GAES
Entzumen Zentroak

www.gaes.es

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • BERGARA

*Kontsultatu ezazu zure zentroan, promozioan dauden beste modelo batzuk. Eskaintza baliogarria 14/12/31 arte. Ezin da pilatu beste eskaintza batzuekin.